Gizarte
Politiken
Saila

Departamento de
Políticas
Sociales

# 2024ko
# MEMORIA

araba álava
foru aldundia diputación foral

ARGITARATZALDIA
Arabako Foru Aldundia
Gizarte Politiken Saila

DISEINU ETA MAKETAZIOA
2ados

TESTUEN ITZULPENA
Arabako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzua

# 2024KO MEMORIA

Gizarte Politiken Saila

araba álava
foru aldundia diputación foral

# AURKIBIDEA

**SARRERA**

1

**GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA ... 1**

**1.1. Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritza ... 2**

1.1.1. Zerbitzuaren antolamendua ... 2

1.1.2. Ikerketa, ebaluazioa eta plangintza ... 3

1.1.3. Estatistikak eta informazioa ... 5

1.1.3.1. Estatistikak ... 5

1.1.3.2. Informazioa ... 6

1.1.4. Kalitatea ... 6

1.1.5. Prestakuntza ... 8

1.1.6. Dokumentazioa ... 11

1.1.7. Koordinazio soziosanitarioa ... 12

1.1.8. Beste erakunde batzuk ... 14

**1.2. Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzua ... 15**

1.2.1. Zentroak baimentzeko eta ikuskatzeko jarduketak ... 16

1.2.1.1. Baimenak ... 16

1.2.1.2. Zentroak ikuskatzeko jarduketak ... 17

1.2.2. Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren onuradun diren pertsonei arreta emateko zentroetan plazak egiaztatzea ... 19

1.2.3. Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa ... 20

1.2.4. Laguntza- txakurren Foru Erregistroa ... 20

1.2.5. Beste jarduera batzuk ... 21

2

**BERRIKUNTZA, KUDEAKETA-SISTEMA ETA EBALUAZIOKO ZUZENDARITZA ... 25**

3

**GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA ... 29**

**3.1. GOFEren zerbitzu orokorrak ... 31**

3.1.1. Zerbitzu orokorren antolamendua ... 31

3.1.2. Ekonomia eta Aurrekontu Arloa ... 33

3.1.2.1. Egindako jarduerak ... 33

3.1.2.2. GOFEren 2024ko aurrekontuaren likidazioa ... 35

3.1.3. Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloa ... 37

3.1.3.1. Egindako jarduerak ... 37

3.1.4. Langileen Arloa ... 38

3.1.4.1. Giza Baliabideak. Lanpostuen zerrenda ... 38

3.1.4.2. GOFE-INDESA Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzu Mankomunatua ... 41

3.1.5. Antolaketa eta Informatika Arloa ... 42

**3.2. Gizartegintza Arloa ..... 44**
3.2.1. Gizartegintza Arloaren antolamendua ..... 44
3.2.2. Gizartegintza Arloko Zerbitzu Orokorra ..... 45
3.2.3. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak ..... 46
3.2.3.1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Informazio eta Arretarako Bulegoa ..... 46
3.2.3.2. Familia ugariak ..... 49
3.2.3.3. Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuak ..... 50
3.2.3.4. Gizarte larrialdietarako koordinazio-zerbitzua ..... 53
3.2.3.5. Beste jarduera batzuk ..... 53
3.2.4. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua – ELZ ..... 53
3.2.5. Prestazio ekonomikoak ..... 55
3.2.5.1. Aldizkako oinarrizko prestazioak ..... 55
3.2.5.2. Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistematik eratorritako prestazioak ..... 57
3.2.5.3. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeari lotutako prestazio ekonomikoak ..... 58
3.2.6. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta ..... 59
3.2.6.1. Indarkeria matxistan espezializatutako arretarako Hegoak Foru-zerbitzua ..... 59
3.2.6.2. Indarkeria matxistaren biktimentzako egoitza-harrerako baliabideen sarea ..... 61
3.2.6.3. Esku-hartze psiko-hezitzaileko eta psikosozialeko zerbitzua (SISEP) ..... 62
3.2.6.4. Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko Tximeletak zentroa ..... 62
3.2.7. Gaixotasun mentala duten pertsonentzako baliabideak ..... 63
3.2.7.1. Egoitza-zentroak ..... 63
3.2.7.2. Autonomia-mugetatik eratorritako beharrei erantzuteko eguneko zentroak eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro okupazionala ..... 64
3.2.7.3. Esku-hartze psiko-hezitzaileko programa ..... 64
3.2.7.4. Beste jarduera batzuk ..... 65
3.2.8. Gizarteratzea ..... 65
3.2.8.1. Gizarte-bazterkeriaren balorazioa eta diagnosia ..... 65
3.2.8.2. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran bizi diren pertsonentzako egoitzak ..... 66
3.2.8.3. Gizarte-bazterkereriaren ondoriozko beharrizanei erantzuteko zerbitzua ..... 67
3.2.8.4. Gizarteratzea sustatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko programak ..... 67
3.2.8.5. Gizarte-erantzunkidetasuneko beste programa batzuk ..... 68
3.2.9. Erakundeentzako laguntzak ..... 71

**3.3. Adinekoen Arloa ..... 73**
3.3.1. Adinekoen Arloaren antolamendua ..... 73
3.3.2. Adinekoen Arloko Zerbitzu Orokorra ..... 75
3.3.3. Egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak ..... 75
3.3.3.1. Egoitzak ..... 76
3.3.3.2. Etxebizitza komunitarioak ..... 79
3.3.3.3. Eguneko zentroak ..... 80

3.3.4. Programak....83
3.3.4.1. Lankidetza hitzarmenak....83
3.3.4.2. Boluntariotza....83
3.3.4.3. Mantentze kognitiboa eta funtzionala lantzeko tailerrak....83
3.3.5. Erizaintza-koordinazioa....84
3.3.6. Gizarte-koordinazioa....85
3.3.7. Zentroetako arduraduna....86
3.3.8. Parte-hartzea hainbat foro eta batzordetan....86

**3.4. Desgaitasuna duten Pertsonen Arloa....87**
3.4.1. Desgaitasuna duten Pertsonen Arloaren antolamendua....87
3.4.2. Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zerbitzu Orokorra....89
3.4.3. Informazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua....89
3.4.3.1. Desgaitasun-graduaren balorazioa....90
3.4.3.2. Mendekotasun-graduaren balorazioa....91
3.4.4. Esku-hartzeko zerbitzua arreta goiztiarrean....92
3.4.5. Laguntza Neurrien Unitatea (LNU)....94
3.4.6. Autonomia-mugen ondoriozko beharrei erantzuteko eguneko zentroak....94
3.4.6.1. Autonomia pertsonaleko zentroa (APZ)....95
3.4.6.2. Etxebidea eguneko zentroa....95
3.4.6.3. Ehari eguneko zentroa....96
3.4.6.4. Landaberde eguneko zentroa....96
3.4.6.5. Goizalde eguneko arretarako zerbitzua....96
3.4.6.6. Zabalgana eguneko zentroa....96
3.4.7. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak....98
3.4.7.1. Zuzeneko kudeaketako egoitzak eta etxebizitza lagunduak....98
3.4.7.2. Zeharkako kudeaketako egoitzak eta etxebizitza lagunduak....99
3.4.8. Atseden-zerbitzuak....101
3.4.8.1. Desgaitasuna duten helduentzako atseden-zerbitzua....101
3.4.8.2. Desgaitasuna duten umeentzako atseden-zerbitzua itunpeko kudeaketako etxebizitza propioetan....102
3.4.9. Baliabide okupazionalak....103
3.4.10. Garraio egokituko zerbitzua....103
3.4.11. Programak....104
3.4.11.1. Aisia eta astialdia....104
3.4.11.2. Mugimendia asoziatiboarekin lankidetza....104
3.4.12. Ohiko etxebizitzan eta norbanakoen ibilgailuetan egokitzapenak egiteko eta produktu berreskuraezinak eskuratzeko laguntza ekonomikoak....105
3.4.13. Bestelako jarduerak....106

**3.5. Adingabeen eta Familiaren Arloa** ..... **107**
3.5.1. Adingabeen eta Familiaren Arloaren antolamendua ..... 107
3.5.2. Adingabeen eta Familiaren Arloko Zerbitzu Orokorra ..... 108
3.5.3. Adingabeen babesgabetasuna ikertzea eta baloratzea ..... 108
3.5.4. Familian esku-hartzeko programak ..... 109
3.5.5. Familia-harrerarako sustapen eta laguntza teknikoko zerbitzua ..... 112
3.5.6. Adopziorako sustapen eta laguntza teknikoko zerbitzua ..... 114
3.5.7. Egoitza-harrera ..... 115
3.5.7.1. Programa orokorrak ..... 115
3.5.7.1.1. Kasu urgenteetarako harrera-programa
3.5.7.1.2. Oinarrizko programa
3.5.7.1.3. Emantzipaziorako prestatzeko programa eta emantzipatzeko programa
3.5.7.2. Programa espezializatuak ..... 118
3.5.7.2.1. Jokabide-arazoak dituzten nerabeak artatzeko programa
3.5.7.2.2. Emakumeak eta haien 6 urtera arteko haurrak artatzeko Sortuleko programa. Castillo de Portilla etxea
3.5.7.2.3. Beste programa espezializatu batzuk
3.5.8. Harrera osteko jarraipen-programa ..... 121
3.5.9. Beste jarduera batzuk ..... 122
**3.6. Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloa** ..... **124**

4

**INDESA 2010 S.L** ..... **127**
**4.1. Xedea eta antolamendua** ..... **128**
**4.2. INDESA 2010 S.L.ren jarduera-arloak** ..... **129**
4.2.1. Industria-arloa (lantegiak) ..... 129
4.2.2. Zerbitzu-arloa ..... 130
**4.3. INDESA 2010 S.L.ren enplegua** ..... **131**
**4.4. 2024an egindakoak** ..... **134**
4.4.1. Helburu ekonomikoak ..... 134
4.4.2. Helburu sozialak ..... 135
**4.5. INDESA 2010 S.L. taldearen salmenten bilakaera** ..... **136**

5

**ERANSKINA** ..... **139**

# SARRERA

Gizarte Politiken Sailak, gizarte -zerbitzuen alorrean, Arabako Foru Aldundiak dituen eginkizunak eta aginpideak garatu behar ditu.

2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiko Sailak zehazten dituen Ahaldun Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, Sail honek eginkizun eta eskumen-arlo hauek ditu:

- Hirugarren adina
- Desgaitasuna duten pertsonak
- Haurrak eta familia
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak
- Prestazio ekonomikoak
- Ordenamendu juridikoan ezartzen diren gainerako guztiak

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 4/2021 Foru Dekretuak, Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretua aldatzen duenak, Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten du, eta adierazten du Gizarte Politiken Sailaren jardun-arloei dagozkien eginkizunak eta eskumenak gauzatzeko, Sailaren titularraren zuzendaritzapean, hura honako unitate organiko hauetan egituratzen dela, zuzendaritza berria sortuta:

1. **Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza; honako bi zerbitzu hauek dauzka atxikita:**
   a) Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzako Zerbitzua.
   b) Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzua.
2. **Berrikuntza, Kudeaketa Sistema eta Ebaluazioko zuzendaritza**
3. **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea**
4. **INDESA 2010 S.L. foru-sozietate publikoa**

Gainera, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren bidez, organismo, sozietate eta erakunde hauek atxikitzen zaizkio Sailari, Aldundiaren Erakundeen Erregistroan bakoitzak daukan identifikazio-zenbakiarekin:

**a)** Adingabeen Kontseilua, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 5eko 469/1985 Foru Dekretuaren bidez eratua.

**b)** Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua, Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 15eko 28/2010 Foru Dekretuaren bidez eratua.

**c)** Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea, maiatzaren 3ko 55/2011 Foru Aginduaren bidez eratua eta maiatzaren 29ko 155/2012 Foru Aginduaren bidez egiaztatua.

# Gizarte Politiken Saila




Jardueren memoria honetan, honako hauen ekintzak azaltzen dira:

- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarenak. Zuzendaritza honek antolaketa-egitura hau dauka bere eskumenak gauzatzeko:
  - Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritza.
  - Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzua.
- Berrikuntza, Kudeaketa Sistema eta Ebaluazioko Zuzendaritza.
- Erakunde autonomoaren bitartez egindako jarduerak, alegia, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez egindakoak. Erakunde horrek arretaren sare publikoa osatzen duten zerbitzuen zuzeneko jarduera guztia garatu eta kudeatzen du, eta, halaber, lankidetza-hitzarmeneko mekanismoen bitartez ardurak beste batzuen esku utziz jarduten du. Jarduera- eta arreta-egitura bi funtzionamendu-arlo handitan antolatuta dago:
  - Zerbitzu orokorrak.
  - Zerbitzu espezializatuak.
- INDESA 2010 S.L. foru-sozietate publikoak -Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 2ko 712/2010 Erabakiak sortua- egindakoak. Haren funtsezko helburua da Arabako desgaitasuna duten pertsonentzat, gizarteratzea lortzeko, kalitatezko enplegu-aukerak sortzea, gizarteari, ekonomiari eta inguruneari dagokienez iraunkorrak.

# 1
# GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA

# 1.1. GIZARTE ZERBITZUETAKO IDAZKARITZA

Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritza Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari laguntzeko erakundea da, Sailaren helburuak betetzeko garaian, eta haren zerbitzu tekniko gisa eratu da. Bere jardun-eremua funtzio orokor hauek garatzea da: beharrak ikertzea; baliabideak ebaluatzea; gizarte-zerbitzuen behatokia; zerbitzuen plangintza egitea; datu estatistikoak eguneratzea; kalitate-programak egitea; aholkularitza; laguntza teknikoa; informazio orokorra ematea; dokumentazioa eta argitalpenak egitea; langileak prestatzea eta birziklatzea; koordinazio soziosanitarioa.

## 1.1.1. ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA

**ORGANIGRAMA**



| LANGILEAK | 2024 |
|---|---|
| Gizarte Zerbitzuetako Idazkaritzako burua | 1 |
| Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritzako idazkaria | 1 |
| Soziologoa | 3 |
| Prestakuntzako goi-mailako teknikaria | 1 |
| Liburutegiko erdi-mailako teknikaria/Dokumentalista | 1 |
| Kalitate-prozesuetako goi-mailako teknikaria | 1 |
| Koordinatzaile soziosanitarioa | 1 |
| **GUZTIRA** | **9** |

## 1.1.2. IKERKETA, EBALUAZIOA ETA PLANGINTZA

Arabako Lurralde Historikoko gizarte-beharrak ikertzeko eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko zentro, zerbitzu eta programen kalitatea ebaluatzeko, beharrizanak asetzeko eta dauden zerbitzuak hobetzeko beharrezko baliabideak planifikatzeko eta programatzeko, eta erakunde horren langileei dagozkien barne-jardueretan berdintasun-printzipioa txertatzeko, hainbat ekintza egin dira:

**Beharrak aztertu eta zehaztu, eta gizarte-zerbitzuen eskaerei buruzko txostenak egin**

Hauek izan ziren GOFEren kudeaketa-arloekin lankidetzan egindako lanak:

- Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Arabako Prestazio Ekonomikoen azterketa: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ikasteko ematen dituen laguntzak genero-ikuspegiarekin aztertu.
- Genero-indarkerian espezializatutako foru-zerbitzu sozialen sareak emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko, biktimak osatzeko eta erreparatzeko, eta indarkeria ez errepikatzeko duen eraginaren 2024ko ebaluazioa.
- Zainketen Europako Estrategiarekin eta Europako Kontseiluaren Gomendioarekin lotutako jarduerak baliozkotu, kalitate handia duten eta eskuragarriak diren iraupen luzeko zainketak eskuratzeari buruz.
- Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) ebaluazio partziala.
- 2.6 zorro-fitxaren aplikazioari buruzko txostena. Arabako Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzua.

Bestalde, GOFEk egindako araudi berriaren genero-eraginari buruzko 7 txosten egin dira.

Eta gardentasunari, parte-hartzeari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko Foru Araua aplikatzen jarraitu da, 3 informazio-eskaerari erantzunez.

**GOFEren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Barne Plana**

2023ko Programa Operatiboa ebaluatu, 2024ko Programa Operatiboa egin eta haren infografia editatu da.

Berdintasun Batzordearen lana dinamizatu da eta 2 bilera egin dira, I. Berdintasun Planaren esparruan eratutako bi lantaldeen lana koordinatzeaz gain, neurriak garatzen laguntzeko:

- **1. taldea:** Laneko osasuna eta sexu-jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena.
- **2. taldea:** Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista eta inklusiboa.

Talde horien lanaren ondorioz, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzeko gida bat, diptiko bat eta poster bat zabaldu dira, eta Jazarpenaren aurkako Batzordea eratu da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan-eremuan sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-orientazioagatiko, genero-adierazpenagatiko edo -identitateagatiko jazarpena prebenitzeko eta esku hartzeko protokoloaren esparruan.

Hainbat material argitaratu dira intraneten, horretarako sortutako “Berdintasuna” atalean (informazio-pilulak, hainbat lanbidetan genero-ikuspegia txertatzeko eskuliburuak, intersekzionalitateari buruzko bideoak, ¿Bazenekien gizarte-ongizaterako foru-erakundeak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak artatzen dituela?, indarkeria matxistaren biktima diren GOFEko langile publikoentzako lan-eskubideen gida...), eta txostenak egin dira Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzak gauzatu beharreko Berdintasun Planean ezarritako neurrien arabera, GOFEn genero-ikuspegi intersekzionala txertatzeko irizpideak, berdintasunerako barne-planen esparruan beste erakunde publiko batzuetan egin diren jardunbide egokien identifikazioa, GOFEren Laneko Osasuneko genero-irizpideak aplikatzearen emaitzen urteko txostena, kontziliazio erantzunkiderako jardunbide egokiak, dibulgazio-neurriak...

**Plangintza**

Gizarte-zerbitzuei dagokien zatian, hainbat plan eta arau-esparruren diseinu- eta/edo ebaluazio-batzordeetan parte hartu da:

- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazio-sistemen taldearen bileretan eta ebaluazioan parte hartu da, Emakundek bideraturiko etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko EAEko Erakundeen arteko III. Akordioaren esparruan. Era berean, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako foru-zerbitzuen arreta-erregistroa egin da.
- Gizarte Politiketako Sailak Foru Sektore Publikoaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren inguruan duen betetze-mailaren jarraipen-txostena egin da.
- Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen karteraren fitxen erakunde arteko ebaluazioan parte hartu da.
- Arabako Gizarte Zerbitzuen 2024-2030 Mapa egiteko aurretiazko diagnostikoa egiten lagundu da.
- Foru-jardueren jarraipena egin da, 2023-2026 aldirako V. Gizarteratze Planaren eta 2023-2024rako Programa Operatiboaren esparruan.
- Erakundeen arteko lankidetza izan da diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunei aplikatu beharreko enplegurako pizgarriak arautzen dituen dekretu-proiektua egiteko.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokiarekin lankidetzan aritu gara.
- Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren (2018-2022) azken ebaluazioan parte hartu da.
- 2024an Euskadin bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen gaueko VII. zenbaketan parte hartu da.
- Salamancako Unibertsitateko (USAL) Diversitas Ikerketa Taldearekin lankidetzan aritu gara Espainiako etxerik gabeko emakumeen baldintzei buruzko ikerketa batean.
- Arartekoaren “Familiei Laguntzeko Politikak Euskadin” txosten bereziaren jarraipena egiteko azterlan bat egiten lagundu da.
- “Aniztasuna kudeatzeko estrategiaren” erakunde arteko koordinazio-batzorde bat sortzen lagundu da. Arabako Foru Aldundiarekin kultura anitzeko 2021-2024 bizikidetza sustatzearen alde, eta 20.000 biztanletik beherako Arabako udalerrietan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko koordinazio-talde bat sortzearen alde.
- Arloarekin lankidetzan, “Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan jarduteko protokoloa” garatu da esku-hartze sozialaren arloan.
- “Arabako Lurralde Historikoan haurrei zuzendutako gizarte-zerbitzuetarako jarduera-gida” EHUrekin eta Adingabeen eta Familiaren Arloarekin eguneratzen jarraitu da.

# 1.1.3.
# ESTATISTIKAK ETA INFORMAZIOA

Atal honetan Arabako Lurralde Historikoan dauden zerbitzuen beharrei, eskariari eta eskaintzari buruzko estatistikak eguneratuta izateko ekintzak agertzen dira, baita Sailak behar bezala funtzionatzeko behar den dokumentazioa edukitzeko ekintzak ere.Helburu hori ezarrita, honako jarduera hauek egin dira:

**1.1.3.1. Estatistikak**

Prestazio eta zerbitzuei buruzko estatistikak eguneratuta mantendu dira, eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sisteman integratuta dauden datuen ezaugarrietara egokituta. Besteak beste, honako hauek nabarmentzen dira:

- Adinekoen Behatokia. IMSERSO 2023.
- Egoitza-zentroen errolda eguneratzea. IMSERSO 2023.
- Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokia 2023.
- Gizarte Zerbitzuen Estatistika: 2023ko erakunde eta zentroak (EUSTAT eta Foru Aldundiak)
- 2023ko lan-merkatuaren errolda.
- Enpresetako I+G jarduerari buruzko estatistika. 2023. EIN.
- Desgaitasunari, autonomia pertsonalari eta mendekotasun-egoerei buruzko inkesta. 2023ko zentroak. EIN.
- EAEko udalerrietako iraunkortasun-adierazleen estatistika. 2023. EUSTAT.
- Gizarte Zerbitzuen Garapenaren Indizea. IDEC 2023.
- DBKren "Hirugarren adinekoentzako egoitzak" txosten sektoriala egiteko datuak ematea.
- UDALSAREAK berotegi-efektuko gasen adierazleen eta inbentarioen kalkulua egiteko eskatutako datuen erantzuna.

Gainera, atal honekin lotuta, honako hauek egin dira:

- Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren Estatistika Buletina argitaratzea.
- Gizarte baliabide eta prestazioei buruzko eta erabiltzaileen ezaugarriei buruzko informazio xehatua, Batzar Nagusiek eta hainbat erakundek hala eskatuta.
- Adinekoentzako egoitza eta etxebizitza pribatuen datu basea eguneratzea, eta datu eguneratuak eskatu, grabatu eta ustiatzea.

**Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokia**

Eguía-Careaga Fundazioa- SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekiko lankidetza hitzarmena mantendu da. Horren bidez Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren web-orriko adierazleak eguneratu dira.

Era berean, datu baseak eguneratu dira. Hori guztia www.dataraba.eus webgunetik eskura daiteke.

#### 1.1.3.2. Informazioa

Ekintza hauek egin dira, GOFEren kanpoko komunikazio sistemak eta bideak hobetze aldera, herritarrek eta erakundeek egun dauden gizarte baliabideak eta haiek jasotzeko bideak zeintzuk diren jakiteko:

**Informazioaren teknologia berrien erabilera**

Gizarte zerbitzuen web berriaren edukiak eta egitura eguneratzeko lanak amaitu dira, eta haren irisgarritasuna hobetu da, Insuit ® tresnaren mantentzeari esker.

Gizarte Politiken Saileko gizarte zerbitzuei buruzko informazioa eguneratu da GeoAraba atarian egokitzeko. Arabako Foru Aldundiak sortutako informazio geografikoa eskuratzea ahalbidetzen duen tresna da GeoAraba.

Era berean, Intranet korporatiboaren edukiak eguneratu dira.

**Argitalpenak: monografiak,liburuxkak eta ikus-entzunezko materiala**

Ekitaldian zehar, monografia eta liburuxka batzuk argitaratu dira, baita ikus-entzunezko materiala ere:

- Gizarte Politiken Sailaren 2023ko Memoria editatu eta banatu zen.
- Arabako Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren Estatistika Buletina online argitaratu zen.
- Sei hilean behin, desgaitasuna egiaztatzeko 3.487 txartel berri egin eta banatu ziren.
- Gizarte Zerbitzuetan BeBai jardunbide egokiak aitortzeko jardunaldiko bideoak argitaratu ziren.
- Harremanetan oinarritutako arreta-ereduaren eskuliburua – Gizarea argitaratu zen.
- “Giltza multzoa” Irakaskuntza-egoera” argitaratu zen Araba a Punto – Nerabeekin nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko estrategiaren esparruan.
- Egoitza-zentroen Gizarea diptikoak argitaratu ziren.

## 1.1.4. KALITATEA

SIISekin sinatutako kontratu baten bidez (“Gizarte-zerbitzuetako arretaren kalitatean espezializatutako dokumentazio-zerbitzua eta gizarte-zerbitzuetan arretaren kalitatea sustatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzua”), IFBS.CALIDAD webgunea eguneratu da, honako hauek barne hartzen dituena: jardunbide egokien aintzatespena, tresna teknikoak, GOFEren kalitate-ekimenak, liburutegi birtuala, Etika Batzordea eta estekak. Era berean, 2022tik aurrera posible da jarraipena egitea eta nobedadeak jasotzea, X sare sozialaren bidez. Berrikuntza nagusi gisa, Harremanetan Oinarritutako Arretaren Foru Ereduaren, Gizarearen, edukiak gehitu dira, printzipio, orientabide eta abar gisa.

Harremanetan Oinarritutako Arretaren Foru Ereduaren garapenak, Gizareak, mugarri nagusi hauek izan ditu:

- Gizarea Talde Bultzatzailea (GTB) eratu da. Adineko pertsonen eta desgaitasunen bat duten pertsonen foru-egoitzen eremuko hogei lagunek (profesionalak eta familiakoak) osatzen dute taldea, eta Gizarearen hedapen progresiboa bideratzeko ardura du, hilero bilerak eginez.
- GTBren aurkezpen instituzionala Diputazio Jauregian, Gizarte Politiketako diputatuaren presentziarekin eta babesarekin.
- Gizarearen aurkezpena Arabako gizarteari eta erakundeei, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian.

- Gizarea eskuliburua eta “Adinekoen egoitza-zentroetan ezartzeko orientabideak” izeneko 1. eranskinaren argitalpena.
- Kalitate Taldeen Estatutuaren eta dinamizatzaileen eraketa.
- Gizarearen ebaluazio-elementuak “BeBai” aitorpenen laugarren deialdian txertatu dira.
- 2024ko irailean, Gizarea ereduaren garapenaren emaitzak Medikuntza Geriatrikoaren Europako Elkartearen XX. Kongresuan aurkeztu ziren, Valentzian.
- Gizarea Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko etxebizitza lagunduetan hedatzen hasi da, bai informazioaren, sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren arloan bai “Kalitate-profilak” diagnostiko-tresnaren sorkuntzaren arloan.
- Foru-titulartasuneko egoitza-zentroetako kalitate-taldeen urteko bigarren topaketa egin da, esperientziak partekatzeko.
- Araban Bizitza Independentearen Foru Eredua garatzeko Talde Eragilearen koordinazioarekin jarraitu da, Esku-hartze Sozialeko eta Desgaitasuna duten Pertsonen arloekin batera. Aurrerantzean ere, dibertsitate funtzionala duten pertsonek bizimodu independentea egiteko behar dituzten laguntzak eskuratzeko prozedura arautzen duen eta bizitza independentea sustatzeko laguntza ekonomikoa emateko oinarriak ezartzen dituen dekretua lantzen jarraituko da.
- “Araban adinekoen nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko erronkaren inguruan eraikuntza kolektiboko estrategia” izeneko Araba a Punto proiektuaren garapenaren esparruan, ekintzak eta proposamenak ezartzen jarraitu da. Horien guztien artean, “Nerabezaroan nahi gabeko bakardadea prebenitzeko ikaskuntza-egoera lantzeko gida” egin izana nabarmendu da.
- BeBai aitorpenen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan parte hartu da, laugarren edizioan, Arabako gizarte-zerbitzuetako jardunbide egokien esperientzia, ekimen eta proiektuetarako.
- Etxean Bai proiektua ebaluatzeko tresnak ezarri dira, eta ondorioen azken txostena egin da.
- Arabako Lurralde Historikoko adinekoentzako egoitza-zentroetan, titulartasun publikokoetan zein pribatukoetan, kalitate-adierazleak ezartzeko proiektu parte-hartzailea garatzen jarraitu da, eta hainbat adierazle hautatu dira zenbait zentrotan baliozkotze praktikoa egiteko oinarri gisa.

2023an adierazleen pilotaje-prozesua gainditu ondoren, 2024an datuak biltzeko lehen edizioa egin zen; 38 egoitza-zentrok hartu zuten parte eta 1.862 pertsonari buruzko datuak bildu ziren.

**GOFEko Erabiltzailearen Arretarako Unitatea**

Unitatea 2010. urtean sortu zen eta GOFEko kudeaketa-arloetako 5 ordezkarik osatzen dute, Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzak koordinatuta.

2024an, GOFEko Erabiltzailearen Arretarako Unitatea hamabi aldiz bildu da, hilean behin. Guztira, 140 kexa eta 26 kontsulta/eskaera kudeatu dira.

| JARDUERA-ARLOA | Kexa-kop. | Kontsultak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Adinekoen Arloa | 53 | 9 | 62 |
| Adingabeen eta Familiaren Arloa | 12 | 1 | 13 |
| Desgaitasuna duten Pertsonen Arloa | 30 | 5 | 35 |
| Gizartegintza Arloa | 36 | 8 | 44 |
| Zerbitzu Orokorrak | 9 | 3 | 12 |
| **GUZTIRA** | **140** | **26** | **166** |

# 1.1.5. PRESTAKUNTZA

Prestakuntzaren helburuak langileen trebakuntza-maila areagotzera bideratuta egon dira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dituen gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzen laguntzeko.

Ekintzen ardatza izan dira, alde batetik, lanbide-birziklatze eta sustapenerako programak, eta, beste alde batetik, beste erakunde eta programa batzuekin esperientziak eta ezagutzak trukatzeko ekimenak.

Hainbat administrazio publikotako langileen prestakuntza finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen deialdian parte hartu da. Hala, aurkeztutako Barne Prestakuntzako Plana garatzeagatik jaso zen dirulaguntza.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen dieten profesionalak trebatzeko prozesuak aurrera egin du, Emakundek Euskal Autonomia Erkidegoan proposatutako modulukako prestakuntza-programari jarraikiz. GOFEren Berdintasunerako Prestakuntza Planaren barruko prestakuntzarekin jarraitu da, kudeaketa-arloekin lankidetzan. Idazkaritzak honako ekintza hauek antolatu eta koordinatu ditu:

**Barne-prestakuntza**

2024an, 61 ikastaro antolatu eta koordinatu dira, eta guztira 762 emakumek eta 146 gizonek (908 pertsona) hartu dute parte. Prestakuntza horrek 703 ikastordu izan ditu.

**PARTE-HARTZEA SEXUAREN ARABERA**




**BERTARATUTAKO LANGILEEN BEREIZKETA, ARLOAREN ARABERA**



Hona hemen antolatutako prestakuntza-ekintzetan izandako pertsonen banakapena:

| IKASTAROAREN IZENA | Guztira | E | G |
|---|---|---|---|
| Desgaitasunaren ebaluazioaren arloko jardunaldi teknikoak - Baredi | 17 | 16 | 1 |
| Jokabide-laguntza positiboei buruzko tailerra eta estrategiak | 14 | 13 | 1 |
| OIA ikuskatzaileen prestakuntza | 12 | 12 | 0 |
| Gainbegiraleen prestakuntza - oinarriak | 10 | 10 | 0 |
| Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoari buruzko ikastaro aurreratua - 2 edizio | 36 | 28 | 8 |
| DBLOri buruzko oinarrizko ikastaroa - 7 edizio | 109 | 90 | 19 |
| Arriskuak eta prebentzio-neurriak (Soziosanitarioa) - 10 edizio | 123 | 112 | 11 |
| Jokabide-nahasmenduaren maneiua – Zadorra Egoitza | 24 | 23 | 1 |
| Dementzia duen pazienteari modu integralean heltzea. Jokabide-nahasmenduen maneiua - Txagorritxu Egoitza | 20 | 18 | 2 |
| Dementzia duen pazienteari modu integralean heltzea. Jokabide-nahasmenduen maneiua – Ajuria Egoitza | 19 | 16 | 3 |
| Jokabide-nahasmenduaren maneiua - Laudio Egoitza eta Amurrio Egoitza | 15 | 15 | 0 |
| Jokabide-nahasmenduaren maneiua – Lakua Egoitza eta Sallurtegi Egoitza | 16 | 13 | 3 |
| Kasuak ebazteko eztabaida-metodoa. Aplikatzeko gakoak | 10 | 9 | 1 |
| Gizarte Zerbitzuetako Etikari buruzko oinarrizko ikastaroa | 19 | 13 | 6 |
| Jokabide-laguntza positiboari buruzko tailerra eta estrategiak | 18 | 16 | 2 |
| Berdintasunari buruzko oinarrizko ikastaroa - 2 talde | 38 | 37 | 1 |
| Emakumeen eta gizonen berdintasunaren oinarrizko elementuak administrazio publikoaren esparruan - 2 talde | 29 | 24 | 5 |
| Jarrera-higienea - 4 talde | 60 | 56 | 4 |
| Gizarte Zerbitzuetako Etikari buruzko ikastaro aurreratua | 22 | 17 | 5 |
| Zakutxo aromatikoen tailerra | 13 | 10 | 3 |
| Sedazio aringarria | 19 | 14 | 5 |
| 39/2015 Legea - Oinarrizko maila | 17 | 15 | 2 |
| Mantentze-lanetako prestakuntza | 11 | 0 | 11 |
| Laneko arriskuen prebentzioa (Zuzendaritza, Kudeaketa, Administraria, Teknikaria, mandatariak, telefonistak) - 5 talde | 50 | 43 | 7 |
| 39/2015 Legea - Maila aurreratua | 18 | 16 | 2 |
| ReacciónARTE (Autobabesa) lantokian | 15 | 14 | 1 |
| Generoa eta maskulinitateak | 22 | 0 | 22 |
| Bakardadeak bizitzen - Araba a Punto | 17 | 16 | 1 |
| Laneko arriskuen prebentzioa (Garbiketa-laguntzaileak) | 10 | 9 | 1 |
| Laneko arriskuen prebentzioa (Sukaldea) | 8 | 6 | 2 |
| Min kronikoari aurre egitea | 11 | 9 | 2 |
| Lidergoa Gizarearen esparruan | 10 | 6 | 4 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ikuspegi intersekzionala: teoriatik praktikara | 20 | 18 | 2 |
| Gizarearen esparruko komunikazioa | 24 | 22 | 2 |
| Gizarea, harremanetan oinarritutako arreta-eredua – etxebizitza lagunduak | 8 | 8 | 0 |
| Bihotz-biriketako bizkortzea Desgaitasun-baremoaren jardunaldia | 24 | 18 | 6 |
| **GUZTIRA** | **908** | **762** | **146** |

**Kanpo-prestakuntza**

Beste zenbait erakundek antolatutako 50 jardunaldi, kongresu, ikastaro eta mintegitan parte hartu duten 132 pertsonaren (119 emakume eta 13 gizon) bertaratzearen koordinazioa eta agiri-eta aurrekontu-jarraipena egin da.

Oro har, barne- eta kanpo-prestakuntzako jardueretan parte hartu duten pertsonen kopuruaren bilakaera honako irudi honetan ikus daiteke:

**BARRUKO ETA KANPOKO IKASTAROETAN PARTE HARTU DUTENEN KOPURUA**




**Erakundeen arteko lankidetza**

Elkarteek, fundazioek edo irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuek egin dituzten prestakuntza-jardueren antolaketan parte hartu da, gizarte-zerbitzuetako jarduerei lotutako ikastaroak, jardunaldiak, biltzarrak eta mintegiak antolatzeko laguntzen deialdiaren eta ebazpenen bidez.

2024an, 15 elkarteri eman zaie dirulaguntza 21 prestakuntza-jarduera egiteko.

Zenbait ikastetxetako ikasleek praktikak egin ditzaten luzatu diren hitzarmenen jarraipena egin eta praktiketarako hitzarmen berri bat sinatu da. Guztira, 62 ikaslek (52 emakume eta 10 gizon) egin dituzte praktikak GOFEren zentroetan.

# 1.1.6.
# DOKUMENTAZIOA

**Liburutegia, bideoteka eta harpidetzak**

GOFEk gizarte-zerbitzuen arloko bibliografia-funts espezializatua eta kalitatezko informazio-zerbitzu eraginkorra izan ditzan, ikerkuntzan, prestakuntzan eta barne-komunikazioan laguntzeko, gizarte-zerbitzuen alorreko dokumentazioa mantentzeko eta kudeatzeko eginkizunak egiten jarraitu da. Besteak beste, honako hauek:

- Eguía-Careaga Fundazioarekin lankidetza teknikoari eutsi zaio. 2024. urtean, berritu egin da fundazio horren kontratua SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuetako Dokumentazio eta Informazio Estatistikoaren Zerbitzua garatzeko, SIISen onlineko dokumentu-funtsetarako eta legeriaren datu-baserako sarbidea errazten duena.
- Agirien datu-basea berrantolatu eta berregituratu da.
- Mota guztietako liburuak, aldizkariak, bideoak, CDak eta literatura grisa katalogatu eta sailkatu dira; ondorioz, 80 agiri gehiago informatizatu dira.
- Garbiketa egin ondoren, INMAGIC dokumentu-basea berriro indexatu da.
- Aldian behingo argitalpenen harpidetza berritu da. Gaur egun, aldian behingo argitalpenen datu-baseak 116 aldizkari ditu. Horietatik 17 bilduma irekiak dira. Osasun-zientzien arloan, online tresnen 2 harpidetza berri egin dira, informazio zehatza eta eguneratua eskuratzeko.
- Informazio-eskaerei erantzun zaie (kontsultak, agirien mailegua eta liburutegien arteko maileguak), beste erakunde batzuetatik gizarte-zerbitzuetan interesatutako pertsonek zein GOFEko zerbitzuek eta langile teknikariek egindakoak. 1.510 argibide-eskaera erantzun dira guztira, zeinetatik 1.427 GOFEko profesionalek egin dituzten, eta 83 GOFErekin zerikusirik ez duten pertsonek (norbanakoak eta erakundeak).
- Aldizkari ofizialetan argitaratutako xedapenen berri jasotzen jarraitu da. Hain zuzen, GOFEren jarduketa-arloekin zerikusia duten xedapen guztiak GOFEko zuzendariordetza teknikoei bidaltzen zaizkie.
- “Funtzio Publikoari buruzko Araudia” zerrenda eguneratu da.
- Informazioa eta argitalpenak trukatzeko harremanak ezarri dira beste dokumentazio-zentro eta liburutegi batzuekin, hala gizarte-zerbitzuetan espezializatutakoekin nola beste autonomia-erkidego batzuetako askotariko zentroekin.
- Era berean, gizarte-zerbitzuetan espezializatuta dauden Interneteko informazio-foroetan (Dixit, Arartekoa, Info PS, besteak beste) harpidetza izaten jarraitu da. Horrela, dokumentazio-zerbitzuak unean uneko kalitatezko informazioa jasotzen du argitalpen berriei buruz eta gure jarduketa-arloarekin loturiko gertakariei buruz.
- GOFEren intraneten legegintzaren berri ematen duen zerbitzua eguneratuta eduki da: gizarte-ekintzari buruzko legeria. Proiektu horrek aukera ematen du bilaketak egiteko, dela formulario errazaren bidez, dela kontsulta aurreratuko pantailaren bidez, eta argitaratutako azken arau hautatuak kontsultatzeko.
- Ekitaldien hileroko alerta bat sortu da, jardunaldiei, ikastaroei eta/edo web-mintegiei buruzko informazio eguneratua biltzen duena.

GOFEren liburutegiak Espainiako Osasun Zientzien Liburutegien Aldian Behingo Argitalpenen Katalogoan (C17) jarraitzen du; hala, bertan dauden zentroekin koordinatuta, informazio espezializaturako eskaera askori erantzun zaie.

- Intranet korporatiboan gune bat prestatu da, “Dokumentazioa eta Argitalpenak” izenekoa, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean lan egiten duten pertsonen eguneroko zereginean lagungarriak izan daitezkeen berrikuntza bibliografikoak, gizarte-zerbitzuetako hainbat arlorekin lotutako bibliografia tematikoak, lege-nobedadeak eta bestelako informazio-baliabideak ezagutarazteko.

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Dokumentuak Kalifikatzeko Batzordea**

Bilerak egin dira Dokumentuak Artxibatzeko eta Kudeatzeko Zerbitzuan, Arabako Foru Aldundiaren dokumentuen kudeaketa eta artxibo elektronikoa integratzeko esparru-dokumentu erreferentea ezagutzeko. Era berean, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Dokumentazioaren Balorazio Batzordearekin (COVAL) egin beharreko gestioei buruzko informazioa bildu da, gure erakundeak sortutako dokumentuak identifikatu eta sailkatzeko, eta dokumentu-segiden atalak garbitu ahal izateko.

## 1.1.7. KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOA

Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Koordinazio Soziosanitarioa 2013an sortu zen, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak bultzatutako egitura soziosanitarioari erantzuteko. Egitura horren arabera, EAEko lurralde historiko bakoitzeko bi koordinatzaile zeuden. Euskadiko gobernantza soziosanitarioari buruzko abenduaren 7ko 150/2022 Dekretuaren arabera, Lurraldeko Koordinazio Soziosanitarioa irudi erreferentea da bere lurralde historikoko koordinazio funtzional soziosanitarioaren esparruan eta dagokion eskumeneko eremu zehatz, sanitario edo sozialean. Osasun Sisteman, haren titulartasuna Lurralde Historiko bakoitzean Osasun Saileko Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritzak izendatzen duena edukiko du. Gizarte Zerbitzuen Sisteman, titularra dagokion Foru Aldundiak izendatzen duena izango da.

Oro har, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren eta Arreta Soziosanitarioko Lurralde Kontseiluaren erabakiak garatzea du helburu.

Lanean jarraitu dugu gizarte-, osasun- eta/edo hezkuntza-arretako beharrei erantzun integrala emateko, arreta galdu duten edo eguneroko ohiko funtzionamenduan oreka galtzeko arriskuan dauden eta zerbitzu soziosanitario koordinatuak behar dituzten pertsonekin lanean, euren arreta hobetzeko diseinatutako zerbitzu-eredutik abiatuta.

Horretarako, Arabako Lurralde Historikoko eta EAEko egitura soziosanitarioetan parte hartzen da.

**Plangintza eta antolamendua (makro maila)**

Parte-hartzea 150/2022 Dekretuak berak ezartzen dituen gobernantza-organoetan, Lurralde Historikoan garatu diren plangintza-erabakien berri emateko:

- Arabako Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioa: Arabako Lurralde Historikoko koordinazio soziosanitarioko organoa, plangintzaren eta antolamenduaren kudeaketa-mailan, bai eta antolaketa-kudeaketan ere.
- Arabako Lurraldeko Batzorde Soziosanitarioa: Lurraldeko Kontseilu Soziosanitarioaren erabakiz eratua. Haren jardun-eremua antolaketa-kudeaketa da.
- Batzorde Tekniko Iraunkorra: Koordinazio soziosanitario autonomikoa. Finantzaketa soziosanitarioko esparrua.
- Baliabide eta esku-hartze soziosanitarioen katalogoa.
- Finantzaketa soziosanitarioko esparrua.

**Antolaketa-kudeaketa (meso maila)**

- Lurralde Plan Operatiboa 2022-2026: 2021-2024 epealdirako Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategiarekin bat etorrita, arreta horren sustapenean eta hobekuntzan sektoreen artean aurrera egiteko helburuak eta jarduerak identifikatu eta deskribatzen ditu, erakundeen, osasun-erakundeen, gizarte-zerbitzuen eta bestelakoen arteko koordinazio egokia bultatzeko, ahalik eta arretarik onena sendotzeko aldiberekotasuneko, koordinazioko eta jarraitutasun asistentzialeko irizpideetan oinarrituta, prebentzioa, detekzio goiztiarra, komunikazioa, laguntza eta esku-hartzea erraztuz, bai eta baliabideak eraginkortasunez erabiltzen lagunduz ere, arreta soziosanitarioko eredu eraginkorra, koordinatua eta iraunkorra garatzeko, pertsona bere bizi-proiektuko protagonista gisa ardatz hartuta.
- Arabako eta Arabako Errioxako Eskualde Batzordeak: eskualdeko behar soziosanitarioen esparruan, gizarte- eta osasun-zerbitzuetako laguntza-eremuek partekatutako koordinazioa eta erabaki teknikoak hartzea.
- Adinekoen azpibatzordea: Arabako Eskualde Batzordearen mendekoa.
- Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuen, GOFEren eta Arabako ESIren arteko lankidetza eta koordinaziorako esparru-protokoloa.
- Lankidetza-protokoloa eta koordinazio soziosanitarioa Arabako Foru Aldundiaren (GOFE), Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren eta Arabako Errioxako ESIren eta Arabako Osasun Mentaleko Sarearen artean.
- Kasu konplexuak koordinatzeko batzordea. Batzorde honen helburua da beren egoeragatik beren egoerarekin bat datorren esku-hartze sozial eta sanitarioen eskaintza baliatzeko aukera mugatuta ikus dezaketen pertsona guztiak inplikatutako erakundeen radarrean sartzea, arreta-sistemen artean esku-hartze koordinatua sustatzeko, bakoitzaren eskumen-alderdiak kontuan hartuta. Hasiera batean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gasteizko Udala, Arabako Osasun Mentaleko Sarea (AOMS) eta Arabako ESI dira kasu horien lanketan eta kudeaketan parte hartuko duten erakundeak.
- Lantaldeak xede-kolektiboen arabera koordinatzeko batzordea: dinamizazioa eta lantaldeetan parte hartzea xede-kolektiboen arabera. Kasuen kudeaketa. Ibilbide, protokolo, laguntza-ibilbide eta prozedurei buruzko dokumentuen jarraipena eta ebaluazioa egitea. Dokumentu horien helburua da beren egoeragatik gizarte- eta osasun-zerbitzu koordinatuak behar dituzten pertsonentzako arretaren kalitatea hobetzea, ahalik eta ongizaterik handiena izan dezaten. Osasun Sistemako (Arabako ESI, Arabako Errioxako ESI, Osasun Mentaleko Sarea), Gizarte Zerbitzuetako (udaletakoak eta foru-aldundietakoak) eta Hezkuntza Sistemako lanbide-talde horietan parte hartzen dute.
- Arabako ESI-GOFE lankidetza-protokoloa, Etxebidean bizi diren pertsonei arreta neurologikoa emateko.
- Arabako ESI-GOFE lankidetza-protokoloa, Etxebidean bizi diren pertsonei arreta oftalmologikoa emateko.
- Prestakuntza-beharren kudeaketa: jakintzak/baliabideak/programak zabaltzea eta bi eremuetako profesionalen arteko topaketak sustatzea, koordinazioa hobetzeko estrategia gisa.
- Adinekoenganako tratu txarrak detektatzeko tresna.
- Tokiko osasun-sareak.
- Erreferentziazko jardunaldi profesional soziosanitarioak.
- Osabide Integra eta garapen berriak.
- Elkarreragingarritasuna: arreta soziosanitarioan parte hartzen duten erakundeen informazio-sistemen interkonexioa, elkarrekin eta koordinatuta lan egiteko dinamikaren euskarri izango diren funtzionaltasunak emanda. Lau erabilera-kasu zehaztu dira: mendekotasun elkarreragilea, telelaguntza, arreta goiztiarra eta interkontsulta soziosanitarioa baloratzeko txosten medikoa.
- Atari soziosanitarioa.
- Egoitza-unitate soziosanitarioa: idazkaritza.

**Laguntza-kudeaketa (mikro maila)**

- Laguntza-mailako informazio-fluxuak koordinatzea, premia soziosanitarioak modu koordinatuan artatzeko.

# 1.1.8. BESTE ERAKUNDE BATZUK

**Arabako Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea (AGEHEB)**

Maiatzaren 29ko 155/2012 Foru Aginduaren bidez, Arabako Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea (AGEHEB) eratu zen. Gizarte Zerbitzuen Idazkaritzak babes tekniko eta logistikoa eskaini dio batzorde honi, bere ezarpena eta jarraitasuna errazteko eta, horrela, Gizarte Zerbitzuen alorrean gatazka etikoak aztertzeko metodologian eta gatazken konponketan sakontzeko aukera egon dadin, besteak beste.

Etika Batzordeak jarduera hauek egin ditu:

- Bilerak: ohikoak: **11**; apartekoak: **3**
- Lantaldeak/Batzordeak: **2**
- Jasotako kontsultak: **2**
- Egindako txostenak: **1**
- CEISAren etikari eta hedapenari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-saioak:
    - Bioetika ikasgeletan: Calasanz-Escolapios ikastetxea, Arabako Osasun Mentaleko Etika Batzordeak antolatua.
    - CEISAren aurkezpena, GOFEk antolatutako “Bioetikaren hastapenak Gizarte Zerbitzuetan” ikastaroan.
    - Aurkezpena Etika eta Gizarte Zerbitzuen Jardunaldian.
    - Bioetikari buruzko prestakuntza Xilemako patologia dualean arreta (Abegia) ematen duten profesionalentzat. (3 saio)
    - Bizitzaren amaierako zaintzari eta arretari buruzko prestakuntza Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunentzat.
    - Bizitzaren amaierako zainketei eta arreta integralari buruzko prestakuntza San Prudentzioko ALZIko profesionalentzat.
    - Bizitzaren amaierako zainketei eta arreta integralari buruzko prestakuntza Kabia Fundazioko (Gipuzkoa) arduradunentzat.

CEISAko kideen parte-hartzea:

- Barne-prestakuntza: “Kasuak ebazteko deliberazio-metodoa: aplikatzeko gakoak”.
- Parte-hartzea Etika eta Gizarte Zerbitzuen XIII. jardunaldiaren antolaketan eta jardunaldian bertan: “Bizitzako bidaiaren azken etapa zaintzea: ekipajea prestatzen”.
- Arabako Etika Batzordeen arteko Jardunaldiaren antolaketa: “EALOren egungo egoera”. Txagorritxu Egoitzan. Data: 2024/04/25.
- “Bioetika eta Konplexutasuna” XVI. Bioetika Biltzar Nazionala.
- Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioa: 4 saio.
- Eutanasia Bermatzeko eta Ebaluatzeko Euskadiko Batzordea: 9 osoko bilkura. Parte-hartzea 15 kasutan egiaztatzaile gisa (2024an Batzordera iritsitako 74 kasuetatik).
- Lankidetza Gizartean Esku Hartzeko Bizkaiko Etika Batzordearen ikerketarekin (GEHEB Bizkaia galdetegia).
- Parte-hartzea “Espainiako Gizarte Zerbitzu Autonomiko eta Probintzialen Etika Batzordeen Sarea”ren sorkuntzan.
- 2024an “Osasun Itunari” egindako ekarpenak.

**Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua eta Kontseilu Sektorialak**

2024an, Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluak bilera bat egin zuen, eta Kontseilu Sektorial bakoitzak (Desgaitasuna, Inklusioa, Haurrak, Gazteak eta Familia, Adinekoak) berea.

# 1.2 GIZARTE ZERBITZUEN ERREGISTRO ETA IKUSKATZAILETZA ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzuak honako eginkizun hauek ditu esleiturik, besteak beste:

- Arabako Lurralde Historikoko gizarte-programak, zentroak eta zerbitzuak baimendu, ikuskatu eta homologatzea.
- Zentroak eta zerbitzuak egiaztatzea, kalitate-betebehar eta -estandarrak betetzen direla bermatzeko.
- Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa kudeatzea eta haren mantentze-lanez arduratzea, Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den gizarte-zerbitzuen arloko legeriarekin bat etorrita.
- Aurreko puntuan adierazitako eginkizunekin loturiko administrazio-prozeduretan aholkularitza ematea eta prozedurok arau bidez kontrolatzea, instruitzea eta haien ebazpena proposatzea.
- Ikuskatzaile-lanetan antzemandako arau-hauste administratiboengatik abiatutako zehapen-espedienteak instruitzea eta haien ebazpena proposatzea; halaber, zehapen-espedienteetatik eratorritako zehapenak direla-eta borondatezko epean egin beharreko ordainketak zatikatzeko ekintzak.
- Gizarte-zerbitzuetako zentroen araudiaren gaineko informazioa, laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea jendeari, toki-erakundeei eta elkarteei.
- Araugintzako aurreproiektuak edo proiektuak prestatzea, Saileko zuzendaritzari helarazteko eta han aztertzeko.
- Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzak, dagozkion eskumenen esparruan, bere esku uzten dituenak.

| LANGILEAK | 2024 |
|---|---|
| Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailetza Zerbitzuko burua | 1 |
| Gizarte Zerbitzuen Ikuskatzailetzako teknikaria | 3 |
| Gizarte Zerbitzuetako ikuskatzailea | 2 |
| **GUZTIRA** | **6** |

2024ko otsailaren 28an, 2024-2027 legegintzaldirako Ikuskapen Plana onartu zen, honako helburu hauekin:

- Gizarte-zerbitzuen hartzaileek kalitatezko eta beren beharretara egokitutako arreta jasotzen dutela zaintzea.
- Gizarte-zerbitzuen hartzaileen eskubideak errespetatzen direla zaintzea eta egiaztatzea; eskubideok indarrean dagoen ordenamendu juridikoak aitortzen ditu, eta, bereziki, egoitza-zentroen erabiltzaileen eskubide espezifikoak.
- Zentroen eta zerbitzuen funtzionamendua egiaztatzea eta betekizun material eta funtzionalen arloan indarrean dagoen araudiari egokitzen zaizkiola gainbegiratzea, bete beharreko gutxieneko baldintzak ezartzen dituen araudiari, hain zuzen ere.
- Zentroak eta zerbitzuak erabiltzaileei kalitatezko arreta emateko alderdiei buruz aholkatzea.

Oinarrizko jarduera-ildoak helburu hauek lortzera bideratuta egongo dira:

I. Gizarte-zerbitzuen hartzaileen eskubideak errespetatzen direla bermatzea, batez ere arreta integrala, espezifikoa, eta beren beharretara eta onarpen-kontratuaren bidez zerbitzuaren prestazioa arautzen duten baldintza guztiak ezagutzera egokitutakoa jasotzeko eskubidea, bereziki egoitza-izaerako gizarte-zerbitzuen hartzaileena.
II. Zentroak eta zerbitzuak gainbegiratzea eta kontrolatzea.

## 1.2.1. ZENTROAK BAIMENTZEKO ETA IKUSKATZEKO JARDUKETAK

### 1.2.1.1. Baimenak

Baimenduak izateko, gizarte-zerbitzuen arloan ari diren zerbitzuek eta zentroek arautegian berariaz ezartzen zaizkien baldintza materialak eta funtzionalak bete behar dituzte, beren tipologia eta titulartasuna gorabehera.

Martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen dituenak, zein egintzak behar duten administrazio-baimena eta zein jakinarazi behar diren ezartzen du. Horrenbestez:

1. Honako hauek administrazio-baimena behar dute:
   - **a.** Titulartasun pribatuko gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zerbitzuetako zentroak abian jartzeko sorkuntza-, eraikuntza-edo instalazio-ekintzak.
   - **b.** Hasierako egitura edo funtzioen araubidea aldatzeko egintzak.
   - **c.** Zerbitzu edo zentro baten kokapenaren lekualdaketa.

2. Honako hauek jakinarazi egin behar dira:
   - **a.** Titulartasun pribatuko zerbitzuen etenaldia edo zentroen itxiera.
   - **b.** Zerbitzu edo zentroaren titulartasun-aldaketa.

**Baimen-motak**

**1. Aurretiazko baimena.** Ezinbestekoa honako hau egiteko:

- **a.** Zerbitzua edo zentroa sortu, eraiki edo instalatzeko.
- **b.** Zerbitzua edo zentroa lekualdatzeko.
- **c.** Zentroan funtsezko aldaketak egiteko, alegia, artatzen ari zen zerbitzu bera ematera bideratutako eraikinen egituran aldaketak egiteko edo eraikinok handitzeko edo eraberritzeko.

**Izapidetutako aurretiazko baimen-eskaeren kopurua (zentroaren irekiera, eraberritze-lanak). 2024**

| ZENTRO-MOTA | Herria | Plaza berriak |
|---|---|---|
| Aguraingo arreta goiztiarreko zentroa | Agurain | Ukatua |

**2. Jarduera-baimena.** Ezinbestekoa honako hau egiteko:

a. Zerbitzu edo zentro bat abian jartzeko ekintzak, baldin eta gizarte-zerbitzuen arloko jarduketak exijitzeko modukoa den kalitate-maila bermatuta egoteko behar adinako gaitasun materiala edo teknikoa edo giza gaitasuna badute.
b. Zerbitzuaren edo zentroaren zereginak eta helburuak aldatzeko.

2024an **izapidetutako funtzionamendurako baimen-espedienteak**, Murgiako egoitza-zentro batean plazak ugaritzeko espediente bat izapidetu da (Murgiako La Purísima egoitzan bi plaza gehiago ezartzeko).

Gainera, aldeko txosten bat egin da EKILORE emantzipaziorako prestatzeko egoitza-baliabidea egoitza-harrerari buruzko 131/2008 Dekretura egokitzeko, bai eta Erriberabeitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroan egin nahi ziren obra batzuei buruzko txosten bat ere.

**3. Titulartasun-aldaketak:** Villodas eta Ariñez egoitza-zentroen titulartasuna aldatzeko espedienteak izapidetu dira.

**4. Zentroen itxiera:** 2024ko maiatzaren 14an Foru Agindua eman zen Astegietako (Gasteiz udalerria) ADEI Etxebizitza Komunitarioaren funtzionamendurako baimena ezeztatzeko. Etxebizitza horrek 9 egoitza-plaza eta 2 eguneko arreta-plaza zituen.

Era berean, 2024ko maiatzaren 22ko Foru Aginduaren bidez, Zelaizabal egoitza-zentroa (Arkaute) itxi zen. Zentro horrek 26 egoitza-plaza eta 3 eguneko arreta-plaza zituen.

Adinekoen egoitza-zentro, etxebizitza komunitario eta eguneko zentro pribatu baimenduen zerrenda Gizarte Zerbitzuen webgunean kontsulta daiteke, esteka honen bidez: web.araba.eus/eu/gizarte-zerbitzuak/zentro-pribatuak

2024/12/31n, egoitza-plaza hauek zeuden Arabako Lurralde Historikoan:

| | | Plaza guztiak | Gasteizen | ALHko gainerako lekuetan |
|---|---|---|---|---|
| Titulartasun pribatua | Egoitza | 1960 | 1348 | 612 |
| | Eguneko arreta | 201 | 101 | 100 |
| Foru-titulartasun publikoa (*) | Egoitza | 1194 | 931 | 263 |
| | Eguneko arreta | 670 | 433 | 237 |
| **GUZTIRA** | **Egoitza** | **3154** | **2279** | **875** |
| | **Eguneko arreta** | **871** | **534** | **337** |

*(*) EALZen plazak barne.*

### 1.2.1.2. Zentroak ikuskatzeko jarduketak

Ikuskapenetarako ardatz erreferenteak honako hauek dira: batetik, gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eskubideak, eta, bestetik, baldintza material eta funtzionalak eta langileekin loturikoak, arautegiaren arabera bete beharrekoak.

## Ikuskapen-bisitak

2024. urtean, 195 ikuskapen-bisita egin dira: ohiko bisitak, kexek edo salaketek eragindakoak edo funtzionamendu-baimenak izapidetzeko beharrezkoak. Batzuetan, bisita berean hainbat helburu bete dira:

2024an zentroetan egindako ohiko ikuskapenen kopurua:

| SEKTOREA | Titulartasun PUBLIKOA | Titulartasun PRIBATUA |
|---|---|---|
| **ADINEKOAK** | **18** | **142** |
| Egoitza-zentroak (egoitzak eta etxebizitza komunitarioak) | 9 | 32 |
| Eguneko zentroak | 9 | 2 |
| Apartamentu babestuak | 0 | 108 apartamentu (bloke batekoak) |
| **ADINGABEAK** | **26** | **0** |
| Egoitza-zentroak | 23 | 0 |
| Eguneko zentroak | 3 | 0 |
| **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK** | **3** | **0** |
| Egoitza-zentroak | 2 | 0 |
| Eguneko zentroak | 1 | 0 |
| **ARRETA GOIZTIARREKO ZENTROAK** | **0** | **2** |
| Arreta goiztiarreko zentroak | 0 | 2 |
| **INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK** | **4** | **0** |
| Egoitza-zentroak | 4 | 0 |
| **GUZTIRA** | **51** | **144** |
| **GUZTIZKO OROKORRA** | **195** | |

Koadro honetan, eginiko ikuskapenetarako arrazoiak ageri dira:

| IKUSKAPEN-BISITA EGITEKO ARRAZOIA | Kopurua |
|---|---|
| Ohikoa | 73 |
| Funtzionamendurako baimenaren ondoriozkoa | 1 |
| Kexen ondoriozkoa | 21 |
| Jarraipena | 2 |
| **GUZTIRA** | **97** |

Ikuskapen-kopuruarekiko aldea tutoretzapeko apartamentuen ikuskapenak agiri bidez egiten direlako da, ohiko bizilekutzat jotzen direlako.

Era berean, bisita bakoitzaren aktak eta nahitaezko txostenak egin dira, eta ikuskapenen emaitzak zentroen erakunde kudeatzaileetara bidali dira.

2024an, alderdi hauetan eragin da bereziki:

1. **Eremuei dagokienez**, zentroaren egoera orokorraz, garbiketaz, altzariez, ohe artikulatuen funtzionamenduaz, deitzeko tinbreez, lotarako argiez, koltxoien egoeraz eta lentzeriaz gain, segurtasun-gaiak jorratzen ari dira, Autobabes Planen Euskal Erregistroan inskribatzeko edo, hala badagokio, eguneratzeko eskatuz, edo larrialdi-irteerek oztoporik ez dutela gainbegiratuz.
2. **Erabiltzailearen oinarrizko zaintza**.- Egoiliarren higiene pertsonala, arropa egokitzea eta laguntza teknikoak. Langileen arreta, erabiltzaileen kexak.
3. **Jarduerak**.- Jardueren egutegiak egiaztatzea, aurreikusitako jarduerak egitea, asteburuetan edo oporraldietan jarduerak egitea. Pertsonen profil bakoitzerako jarduera espezifikoak egitea.
4. **Erabiltzaileen edo beren familien kexak.**
5. **Elikadura**.- Dietak kontrolatzea, nutrizioan prestakuntza duten profesionalen arabera. Pisuaren kontrola sarreran eta pisuaren aldizkako kontrolak, dieta bereziak izatea edo janaria ahora emanez elikatzea, errazioak egiaztatzea.
6. **Eusteak**.- Zentroaren euste-kopurua, medikuaren agindua dagoen ausazko egiaztapena eta baimen informatua.
7. **Medikazioa**.- Kokapenaren segurtasuna.
8. **Banakako espedientea**.- Erabiltzailearekin kontratua izatea eta horrekin araudia entregatu dela jasota geratzea. Beharren hasierako ebaluazioa. Zainketa-plana eta BAP daudela egiaztatzea: hori egiteko epea eta berrikuspenak egiteko epea. Profesional erreferentea esleitzea.
9. **Dokumentazioa/Erregistroak eta Protokoloak**.- Iradokizunen postontzia eta erreklamazio-liburua izatea. Araudian aurreikusitako erregistroak eta protokoloak egiaztatzea (ausazkoa). Kalitatea kudeatzeko planari buruzko informazioa: adierazleak. Indarrean dauden aseguru-polizak.
10. **Langileak**.- Araudian aurreikusitako langileen existentzia eta prestakuntza. Ratioak betetzea. Zuzeneko arretarik eskatzen ez duten eginkizunak betetzeko langile bereiziak.
11. **Instalazioak**.- Oinarrizko instalazioen berrikuspena egiaztatzea (su-itzalgailuak, igogailua).
12. **Pertsonarengan oinarritutako arreta-ereduak pixkanaka ezartzeko neurri zehatzak hartzea.**
13. **Planteatutako gai eta zalantza guztiei erantzutea.**

## 1.2.2.
## ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN ONURADUN DIREN PERTSONEI ARRETA EMATEKO ZENTROETAN PLAZAK EGIAZTATZEA

2024an, jada ez da ZLPErako plazen egiaztapen espezifikorik egiten.



## 1.2.3.
## GIZARTE ZERBITZUEN FORU ERREGISTROA

2024an, Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroaren aplikazio berria abiatu da.

Kalkulu Zentroarekin elkarlanean aritu gara aplikazioa diseinatzeko, eta erakundeekin (publikoak eta pribatuak) harremanetan jarrita aplikazio berrian behar bezala erregistratzeko aholkuak eman dizkiegu.

Atal honetan xedatutakoari dagokionez, erakundeen, zentroen eta zerbitzuen 188 inskripzio izapidetu dira, honela banatuta:

| | Inskripzio berriak, haiek eskatuta |
|---|---|
| Entitateak | 117 |
| Zentroak eta zerbitzuak | 71 |
| **GUZTIRA** | **188** |

## 1.2.4.
## LAGUNTZA TXAKURREN FORU ERREGISTROA

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 9ko 35/2015 Foru Dekretuaren bidez, desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko txakurren erregistroa sortu zen.

Gaur egun, 8 txakur daude erregistratuta. 2024an, 2 baimen berri eman dira eta erretiroagatiko baja bi kudeatu dira.

## 1.2.5. BESTE JARDUERA BATZUK

**a) Administrazio-prozedurei buruzko aholkularitza, jarraibideak eta ebazpen-proposamenak.**

Zentroak eta gizarte-zerbitzuak abian jartzeko interesa zuten norbanakoei eta erakundeei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, bereziki adinekoen alorrean.

Oraindik araudi sektorialik ez duten titulartasun publikoko zentroen kasuan, Ikuskatzailetza Zerbitzuak arauak eta aholkuak eman ditu honako hauen inguruko oinarrizko betebeharren gainean: irisgarritasuna, norberaren buruaren babesa, barne-araudia, dokumentazioa eta langileak.

Gainera, ekarpenak egin zaizkio laguntza-txakurren erabilera arautzen duen Errege Dekretuaren zirriborroari, Eskubide Sozialen, Kontsumoaren eta 2030 Agendaren Ministerioak landutakoari.

**b) Ikuskatzailetza-lanetan antzemandako arau-hauste administratiboengatik abiaturiko zehapen-espedienteak bideratzea eta haien ebazpena proposatzea; halaber, zehapen-espedienteetatik eratorritako zehapenak direla-eta borondatezko epean egin beharreko ordainketak zatikatzeko ekintzak.**

5 zehapen-espediente izapidetu dira eta guztietan zehapena ezarri da.

2024an, 44 kexa jaso dira, eta horietako lauk eman diote zehapen-espedienteari, araudia ez betetzeagatik.

**c) Gizarte-zerbitzuetako zentroen araudiaren gaineko informazioa, laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea jendeari, toki-erakundeei eta elkarteei.**

2024ko ekitaldian, etengabeko arreta eman zaie sektoreko profesionalei eta egoiliarren senideei, bai aurrez aurre bai telefonoz eta online.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari aholkua eman zaio zentro eta baliabide berriei buruz (autismoaren espektroko pertsonentzako eguneko zentroa); horretarako, bisita eta dagokion txostena egin dira.

Udalei aholkuak eman zaizkie beren udalerrietan Eguneko Arretarako Landa Zentroak jartzeko eskatzen diren betekizunei buruz.

Erakunde publikoei eta pribatuei aholkuak eman zaizkie Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistro berriaren ondorioz.

Arabako Lurralde Historikoko Desgaitasuna duten Pertsonei Laguntzeko Foru Batzordea sortzea eta arautzea onartzen duen Foru Dekretuaren proposamena egin eta izapidetu da, beren gaitasun juridikoa gauzatu ahal izateko.

Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistro berria arautzeko araudi berria egiten ari da.

Gizarte Zerbitzuak Ikuskatzeko Foru Plan berria egin eta onartu da, 2024-2027 legegintzaldirako.

Berrikuntzako, Kudeaketa Sistemetako eta Ebaluazioko Zuzendaritzarekin eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Adinekoen Arloko Zuzendariordetza Teknikoarekin lankidetzan aritu gara, adierazle kualitatiboak jasotzen dituen ikuskapen-akta berria egiteko.

**d) Erakundeen arteko koordinazioa.**

Koordinazioa izan da Arabako Erakunde Sanitario Integralarekin (ESI), Osakidetzarekin, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, Epidemiologiarekin eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin.

Koordinazio Soziosanitarioko Azpibatzordean parte hartu da, non Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, Arabako ESIk eta Eusko Jaurlaritzak ere parte hartzen duten.

Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritu gara Adinekoentzako Egoitza Zentroak arautzeko trantsizio-dekretuaren proposamen berria egiteko.

**e) Hobekuntza informatikoak.**

Zerbitzua informatizatzeko eta digitalizatzeko lanean jarraitu da, Gizarte Zerbitzuen Erregistro berria diseinatuz, eta elkarreragingarritasun-zerbitzuetarako sarbidea, espediente elektronikoen barruan zerbitzuaren jarduketa batzuk txertatuta.

Kalkulu Zentroarekin lankidetzan aritu da berariazko programa bat egiteko, egindako ikuskapenetan tableta informatikoak erabiltzeko.

**f) Egoitza-zentro bati ezarritako zehapenaren zatikapena izapidetzea.**



# 2

# BERRIKUNTZA, KUDEAKETA SISTEMA ETA EBALUAZIOKO ZUZENDARITZA

Zuzendaritza hau kudeaketa-eredu eraginkorragoa eta efizienteagoa garatzeaz eta kalitate goreneko zerbitzu publikoak emateaz arduratzen da, Gizarte Politiketako diputatuari laguntzeko, Sail horri atxikitako bulego, zerbitzu eta erakundeak zuzendu, kudeatu eta koordinatzeko eginkizunean, eta honako ekintza hauek koordinatu ditu:

- Egoitza-zentro batean adimen artifiziala ikertzeko eta aplikatzeko proiektua.
- Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako bi zentro diseinatu eta gauzatzeko proiektua.
- Lakua Egoitzan jarraipena eman zaio dementzia aurreratua duten pertsonen mina antzemateko adimen artifiziala ikertzeko eta aplikatzeko proiektuari, elektroentzefalograma bidez.
- Etxean Bai proiektua bideratzen jarraitu da, 50 erabiltzailerekin eta seniderekin, eta egokitzapen-obretarako izapideak hasi dira.
- Irisgarritasun- eta hobekuntza-obren proiektua hasi da Hazaldi adingabeen larrialdietako harrera-zentroan eta jokabide-nahasmendu larriak dituzten adingabeentzako zentro batean.
- Adimen-desgaitasuna duten eta garapen-arazoak dituzten pertsonen zahartzeari buruzko ikerketa-zentroaren proiektuari hasiera emateko aholkularitza.
- Adinekoen egoitza-zentroetako kalitate-adierazleen proiektuaren jarraipena.
- Araba a Punto proiektuaren jarraipena, Arabako Lurralde Historikoan nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko estrategiarena.
- Harremanetan oinarritutako arreta-eredua, Gizarea, garatzen eta ezartzen jarraitu da, lehenengo desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza lagunduetan ezarriz.



# 3
# GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE) erakunde autonomoa da eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari atxikita dago. Nortasun juridiko propioa dauka, eta jarduteko gaitasun osoa ere bai. Foru-eskumeneko gizarte-zerbitzuak kudeatzen ditu Arabako Lurralde Historikoko eremuan, beste herri-administrazio batzuek arlo horretan dituzten eskumenak eragotzi gabe.

GOFEren xedea da Araban gizarte-zerbitzuekin eta gizarte-ongizaterako politikekin loturiko jarduerak antolatu, kudeatu, eskaini eta gauzatzea, EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuetako eginkizunak zehazteari buruzko 155/2001 Dekretuak eta EAE Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanei buruzko 17/1983 Legeak ezarritako eskumenen esparruaren arabera.

Administrazio Kontseilua eta Kudeaketako Zuzendaritza dira GOFEko zuzendaritza-organoak.

Kudeaketako Zuzendaritzak erakundearen programetan garatu beharreko funtzioen eta helburuen zuzendaritza eta antolaketa gauzatzeko eginkizunak betetzen ditu. Administrazio Kontseiluak GOFEren helburua lortzeko onartzen dituen erabakiak, planak eta programak bultzatu eta garatzen ditu, eta, horretarako, ekintzak koordinatuta egiten dira, kalitatea, parte-hartzea eta kudeaketaren autonomia irizpidetzat jota.

Erakundearen jardunerako beharrizanen arabera, Administrazio Kontseiluaren 28 bilkura deitu eta egin dira: 12 ohikoak eta 16 ezohikoak.

Erakunde barruko komunikazio horizontala eta bertikala sustatu dira, langileen inplikazioa eta motibazioa areagotzeko eta talde-lana bultzatzeko. Urte osoan, hainbat bilera egin dira aldian-aldian zuzendaritza-taldearekin. Gainera, beharrezkotzat jo diren elkarrizketak egin dira GOFEko zentro eta zerbitzuetako arduradunekin zein langileekin.

GOFEk bederatzi kudeaketa-arlo dauzka: Ekonomia eta Aurrekontu Arloa, Langileen Arloa, Antolaketa eta Informatika Arloa, Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloa, Gizartegintza Arloa, Adinekoen Arloa, Desgaitasuna duten Pertsonen Arloa, eta Adingabeen eta Familiaren Arloa. Horietako bostek zentro, zerbitzu eta programa espezializatuak kudeatzeko berariazko edukia dute, eta gainerako laurak zeharkakoak dira, erakunde autonomoaren jarduera osoari laguntzeko. Datozen orrialdeetan, arlo bakoitzaren antolaketa eta baliabideak azalduko dira, eta 2024ko ekitaldian egin dituzten ekintza nagusiak ere bai. Horretaz gain, Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloa sortu zen 2024ko abenduan, 29/2024 Foru Dekretuaren bidez.

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen antolamendu-egitura**



# 3.1. GOFEREN ZERBITZU OROKORRAK

Erakundearen zerbitzu orokorren barruan Ekonomia eta Aurrekontu Arloko zuzendariordetza teknikoa, Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloa, Langileen Arloa, eta Antolakuntza eta Informatika Arloa daude, eta beharrezko baliabideak dituzte Administrazio Kontseiluak onartutako planak eta programak gauzatzeko, bai eta ezarritako helburuak garatzeko ere. Halaber, erakundearen jarduerak sustatzen eta bultzatzen ditu, haien eraginkortasuna optimizatzen saiatzeko, zerbitzu eta prestazioen kudeaketa koordinatuz eta gainbegiratuz, langile-politika zuzena aplikatuz eta erakunde autonomoaren jarduera osoak sortzen dituen mugimendu ekonomiko-administratiboetan jardunez.

## 3.1.1. ZERBITZU OROKORREN ANTOLAMENDUA



| LANPOSTUAK, LZren ARABERA | 2024 |
|---|---|
| Zuzendaria/kudeatzailea | 1 (*) |
| Ekonomia eta Aurrekontu Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| Langileen Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| Antolaketa eta Informatika Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| Informatikako goi-mailako teknikaria | 3 |
| Hizkuntza-normalizaziorako goi-mailako teknikaria | 1 |
| Langileen Arloko goi-mailako teknikaria | 2 |
| Administrazio Bereziko goi-mailako teknikaria | 1 |
| Administrazio Orokorreko goi-mailako teknikaria | 8 |
| Kontratazioko eta Araubide Juridikoko goi-mailako teknikaria | 1 |
| Kontratazioko erdi-mailako teknikaria | 1 |
| Prebentzio-zerbitzuko arduraduna | 1 |
| Laneko medikua | 1 |
| Laneko erizaina | 1 |
| Laneko Arriskuen Prebentzioko erdi-mailako teknikaria | 1 |
| Mantentze Ataleko burua | 1 |
| Mantentze-lanetako ofiziala | 1 |
| Langileen Ataleko erdi-mailako teknikaria | 6 |
| Zuzendaritzako idazkaria | 1 |
| Informatikako teknikari laguntzailea | 3 |
| Mantentze-lanetako erdi-mailako teknikaria | 1 |
| Antolamendu-teknikaria | 1 |
| Informatikako erdi-mailako teknikaria | 1 |
| Administrariak | 17 |
| Mandataria | 1 |
| Telefonista | 1 |
| **GUZTIRA** | **59** |

***(*)** AFAko Gobernu Kontseiluak izendaturiko kargua.*

# 3.1.2. EKONOMIA ETA AURREKONTU ARLOA

Ekonomia eta Aurrekontu Arloak ekonomia- eta aurrekontu-kontroleko eginkizunak betetzen ditu. Horretarako, gastuen eta diru-sarreren agiriak fiskalizatu eta kontabilitatean erregistratu, beharrezko aurrekontu-aldaketa guztiak izapidetu eta kontrolatu, eta erakunde autonomoaren kontuak likidatzen ditu.

Hilero, aurrekontuaren gauzatze-egoerari buruzko informazioa bidaltzen die gastuak kudeatzen dituzten zentro guztiei, baita Zuzendaritzari ere, jakinaren gainean egon daitezen eta, ondorioz, dagokion bezala jardun dezaten.

GOFEko eta Aldundiko Gizarte Politiken Saileko zuzendaritza-organoei erakunde autonomoaren ekonomia- eta aurrekontu-gaiei buruzko aholkularitza ematen die.

### 3.1.2.1. Egindako jarduerak

**Aurrekontuak**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko kudeaketa-arloekin lankidetzan, 2025eko aurrekontu-proiektua egin da, eta partiden jarraipena eta kontrola; horretarako, aurrekontu-transferentziak eta beharrezko kreditu-gaikuntzak izapidetu dira, eta likidazioa ere bai.

**Kontabilitatea**

Aurrekontuak gauzatzean egindako eragiketa guztien kontabilitate-fiskalizazioa eta -erregistroa egin da, baita aurrekontu-eragiketena ere, bai aurrekontuz kanpokoena bai ondare-kontabilitatearena.

**Finantza-kudeaketa**

Diruzaintzako alferrikako saldoak ahalik eta gehien murriztu nahian, hirugarrenei ordaintzeko hileko obligazioei (zerbitzuengatik eta hornidurengatik, edo transferentzia arruntengatik edo kapital-transferentziengatik) unean-unean erantzun zaie, Aldundiko Finantza Kudeaketako Zerbitzuarekin koordinatuta, hileko funtsen horniduren bidez.

Hilero, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko informazioa bidali zaio Aldundiko Kontabilitate Zerbitzuari.

**Ondarea**

- Erakundeari atxikitako higiezinen zerrenda eguneratuta mantendu da, lursailen eta higiezinen balorazioa bereizita, eta egoera onean mantentzeko beharrezko gastu-egintzak egin dira, bai eta haietako instalazio eta ekipoen egoera egokiari eustekoak ere.
- Ondare-ondasunen segurtasunari dagokionez, eguneratuta mantendu dira larrialdi-planak, eta langileentzako prestakuntza-ikastaroak egin dira, dauden prebentzio- eta iraungitze-baliabideak erabiltzeko, simulakroak eginez eta zentroetako segurtasun-kotak handitzen saiatuz.

Edukien inbentarioaren jarraipena, amortizazioa eta eguneratzea egin da, erosketa berriak eta 2024an izandako bajak aintzat hartuta, 1.000 eurotik gorako balio unitarioa duten elementu guztietarako eta Erakundeko zerbitzuak kudeatu beharreko zentro bakoitzerako.

**Baliabideak eskuratzeko eskaeren balorazio ekonomikoa**

Balorazio ekonomikoa aztertu eta egin da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen baliabideak eskuratzea eskatzen duten pertsonen gaitasun ekonomikoa zehazteko, bai eta baliabide horiek erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioa, hobarien aplikazioa, salbuespenak eta geroratzeak zehazteko ere.

Ordainketa geroratua izan dezaketen zerbitzuetako erabiltzaileen bermeak eta zorraren aitorpenak ere izapidetu dira.

2024an, 1.908 espediente baloratu dira zerbitzu-espedienteekin lotuta, eta 423 berme izapidetu eta 36 zor-aitorpen formalizatu dira. Gainera, prezio publikoaren aldaketetarako, hobarietarako eta salbuespenetarako balorazioak egin dira.

2024an, prestazio ekonomikoen eta bestelako baliabideen espedienteekin loturiko 2.307 balorazio ekonomiko egin dira. Zehazki, 575 balorazio zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako (ZLPE) (127 berrikuspen barne); 1.134 balorazio familia-inguruneko zainketetarako (FIZPE), zeinetatik 367 berrikuspenak izan diren; 257 balorazio laguntzaile pertsonalerako prestazio ekonomikorako (LPPE), 29 berrikuspen barne. ELZko 294 espediente ere baloratu dira (zerbitzu hau berrikusteko 77 espediente barne). Eta EALZko 47 espediente ere bai (zerbitzu hau berrikusteko 6 barne).

**Erabiltzaileen administrazioa**

Alde batetik, GOFEren baliabideak erabiltzeagatiko kobrantza kudeatu da: ordainagirien igorpena, kobrantzen jarraipena eta kontrola. Bestetik, erabiltzaileei zorra erreklamatzeaz eta horrek dakarren itzulitako ordainagirien ohiko kudeaketaz gain, zor-aitorpenak kudeatu dira, erabiltzaileek zerbitzua utzitakoan. Era berean, prestazio ekonomikoen onuradunek bidegabeki jasotako zenbatekoak erreklamatu dira, eta borondatez ordaindu ez diren 42 betearazpen-espediente bideratu dira.

**Mantentze-lanak**

Ekonomia Arloak kudeatu du GOFEk bere jarduera-eremuko zerbitzuak emateko darabiltzan higiezin guztietako mantentze-lana, bai foru-titulartasunekoak direnetan bai beste administrazio publiko batzuek lagatakoetan edo errentamendu-erregimenean daudenetan egindakoa.

Gainera, eraikin horietako instalazioak kontrolatu dira: berokuntza, ur beroa, aire girotua, igogailuak, alarmak...

Arlo teknikoekin lankidetzan, GOFEren eraikin, makineria eta instalazioei atxikitako mantentze-zerbitzuak eta inbertsioak kontratatzeko espedienteen ezaugarri teknikoen agiriak prestatu dira, lizitazio publikoko sistemaren bidez.

2024an, honako hauek izan dira ekintzarik esanguratsuenak:

- Fuente de la Salud Etxeko bainuontzia kendu.
- Batzar Nagusien Etxeko galdara aldatu (APDEMA).
- San Prudentzio 30.eko bulegoen harrera itxi.
- Txagorritxu Egoitzako lehen solairuko erizaintza-gunea eraberritu.
- Txagorritxu Egoitzako harrera-mahaia.
- Etxebidea Egoitzako aparkalekuak margotu.
- Etxebidea Egoitzako zutabeak konpondu.
- Ekilore Etxeko galdara aldatu.
- Arriaga Zentro Okupazionaleko grafitiak garbitu.
- Ajuria Egoitzako kobrezko estalkia konpondu.

- Txagorritxu Egoitzako bideak eta aparkalekua asfaltatu.
- Lakua Zentro Okupazionaleko fatxada konpondu.
- Txagorritxu Egoitzako farmaziako klimatizazioa.
- Bideberria 0 eta I zentroetako margoketa.
- Kimu Zentro Okupazionaleko leihoa ireki.
- Etxebidea Egoitzako eguzki-energiaren zirkuitua berritu.
- Besarkada Etxeko igogailua eraberritu.
- Laudio Egoitzako lehen solairuko linolioa aldatu.
- Lantze Zentro Okupazionaleko sarbidea eta bideak asfaltatu.
- Txagorritxu Egoitzako igogailuak eraberritu.
- Laudio Egoitzako oheburuak kentzeko instalazio elektrikoa eraberritu.
- Besarkada Etxeko galdara aldatu.

### 3.1.2.2. GOFEren 2024ko aurrekontuaren likidazioa

**GASTUEN LABURPEN OROKORRA KAPITULUKA - GOFE**

| KAPITULUAK | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Amaierako aurrekontua | Baimendua | Erabilia | Agindua | Ordaindua |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| I. Kapitulua | 84.738.650,00 | 2.282.583,92 | 87.021.233,92 | 87.012.923,51 | 84.017.762,51 | 2.995.161,00 | (8.310,41) |
| II. Kapitulua | 110.486.294,78 | 9.587.827,40 | 120.074.122,18 | 118.888.723,58 | 109.546.210,37 | 9.342.513,21 | (1.185.398,60) |
| III. Kapitulua | 12.268,54 | 0,00 | 12.268,54 | 5.692,08 | 5.692,08 | 0,00 | (6.576,46) |
| IV. Kapitulua | 47.796.197,00 | 2.418.751,94 | 50.214.948,94 | 49.116.565,49 | 48.083.619,73 | 1.032.945,76 | (1.098.383,45) |
| VI. Kapitulua | 570.000,00 | 0,00 | 570.000,00 | 448.315,04 | 336.313,97 | 112.001,07 | (121.684,96) |
| VII. Kapitulua | 30.000,00 | 30.000,00 | 60.000,00 | 58.568,79 | 40.506,61 | 18.062,18 | (1.431,21) |
| VIII. Kapitulua | 235.310,00 | 0,00 | 235.310,00 | 99.100,00 | 99.100,00 | 0,00 | (136.210,00) |
| **GUZTIRA** | **243.868.720,32** | **14.319.163,26** | **258.187.883,58** | **255.629.888,49** | **242.129.205,27** | **13.500.683,22** | **(2.557.995,09)** |

### DIRU-SARREREN LABURPEN OROKORRA KAPITULUKA - GOFE

| KAPITULUAK | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Amaierako aurrekontua | Onartua | Kobratua |
|---|---|---|---|---|---|
| III. Kapitulua | 25.695.768,29 | 0,00 | 25.695.768,29 | 27.824.009,85 | 24.086.889,29 |
| IV. Kapitulua | 216.687.537,03 | 14.914.268,26 | 231.601.805,29 | 227.069.582,18 | 215.583.188,48 |
| V. Kapitulua | 25.000,00 | 0,00 | 25.000,00 | 110.534,58 | 91.259,57 |
| VII. Kapitulua | 600.000,00 | 30.000,00 | 630.000,00 | 506.883,83 | 0,00 |
| VIII. Kapitulua | 235.310,00 | 0,00 | 235.310,00 | 71.604,42 | 71.604,42 |
| **GUZTIRA** | **243.243.615,32** | **14.944.268,26** | **258.187.883,58** | **255.582.614,86** | **239.832.941,76** |

### AFA-REN GASTUEN, DIRU-SARREREN ETA DIRULAGUNTZEN GARAPENA (GOFE) (*)




***(*)** “Agindutako” guztizko Gastua eta Diru-sarreren eta AFAren Dirulaguntzaren batuketa “Aitortutako” guztizko Diru-sarrera da.*

# 3.1.3.
# KONTRATAZIOAREN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ARLOA

Kontratazioaren eta Araubide Juridikoaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoak GOFEk bere eskumenak eta helburuak betetzeko behar duen administrazio-kontratazioa kudeatzen du. Era berean, aholkularitza juridiko-ekonomikoa ematen die gainerako zuzendariordetza teknikoei, hainbat erakunde publiko edo pribaturekin egindako lankidetza-hitzarmenak izapidetzeko, kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko, eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzari, Gerentziako Zuzendaritzari eta Erakundeko zuzendariordetzei aholkularitza juridikoa ematen die.

### 3.1.3.1. Egindako jarduerak

**Erosketak eta kontratazioa**

- 2024ko ekitaldian, oro har, hornidura- eta zerbitzu-kontratuak esleitzeko prozedura aplikatu da, lizitazio publikoko sistemaren bidez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak eta indarrean dauden gainerako kontratazio-arauek ezartzen dutenaren arabera.
- Zerbitzu publikoak, zerbitzuak eta hornidurak kudeatzeko espedienteen luzapenak onartu dira, eta administrazio-agirietan formalizatu.
- 110 kontratazio-espediente berri izapidetu dira (57 zerbitzuenak, 4 hornidurenak, 3 obrenak eta 46 esparru-akordioen ondoriozkoak, guztiak hornidurenak).
- Kontratu txikiak izeneko espedienteen kasuan, prezioa eta kalitatea aztertzen dituzten eskaintzak ahalik eta gehien lehiatzearen irizpideari eutsi zaio. 6 kontratu txiki berri izapidetu dira (zerbitzuenak).

**Araubide juridikoa**

Hauek izan dira 2024an laguntza juridikoarekin lotuta egindako jarduera nagusiak:

- Arau-xedapenen, erabakien eta jarraibideen 4 proposamen, Foru Gobernuko Kontseiluak eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak onar ditzaten.
- Gizarte Politiketako diputatuari, Saileko eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendaritzei eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko arloei laguntza juridikoa eman (ahoz eta txosten bidez), eta ebazpen-ereduak egin.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatutako prestazio eta zerbitzuen arloan gora jotzeko 81 errekurtso, hautazko berraztertzeko errekurtsoak eta lan-jurisdikzioaren aurreko erreklamazioak aztertu eta ebazpen-proposamenak egin (familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa, kotizaziorik gabeko pentsioa, gizarte-ongizateko funtsa, mendekotasun-egoeraren aitorpena, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, zerbitzuari lotutako prestazioa, zorraren aitorpena, egoitzetako diru-sarrerak…).
- Osteko aholkularitza juridikoa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen deialdi guztietan (administrazio-errekurtsoak, ebazpen-proposamenak, ereduak…) egin.
- Avantius plataformaren bidez epaitegien jakinarazpenak jaso eta GOFEko arloetara banatu, eta arloei epaitegietara helarazi beharreko dokumentazioa Avantius plataformaren bidez bidaltzen lagundu.
- Arabako Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoari 25 demanda judizial berri defendatzeko laguntza juridikoa eman, 14 Lan Arloko jurisdikzioan eta 11 Administrazioarekiko Auzietan. 2024 baino lehen jarri ziren eta urte horretan ebatzi gabe jarraitzen zuten errekurtsoak 34 izan ziren, 22 Lan Arloko Jurisdikzioan eta 12 Administrazioarekiko Auzietan.

# 3.1.4.
# LANGILEEN ARLOA

Langileen Zuzendariordetza Teknikoak kudeatzen ditu erakunde autonomoaren giza baliabideak. 2024. urtean, esleitutako ahalmenak hainbat jarduera-arloren bidez garatu dira, besteak beste:

- Nominen kudeaketa
- Gizarte-aseguruen kudeaketa
- Langileen ordezkapenen kudeaketa
- Lan-poltsak
- Lanpostuak betetzeko sistemak
- Hautaketa-sistemak
- Epaimahai kalifikatzaileen koordinazioa
- Lanpostuen zerrenda
- Lan-baldintzak arautzen dituen akordioan jasotako egoeren kudeaketa: baimenak, lanaldi-murrizketak, eszedentziak...
- Eskumen propioaren eremuari buruzko arau-proposamenak
- Ordutegi-kontrola
- Egutegi orokorraren proposamena eta negoziazioa
- Ziurtagiriak
- Diziplina-gaien eta lan-gatazken ebazpena
- Errekurtsoen ebazpena administrazio-bidean eta auzibiderako defentsaren planteamendua
- Hauteskunde sindikalen prozesuaren kudeaketa
- Jendearentzako arreta eta informazioa
- Laneko arriskuen prebentzioa, laneko segurtasunaren eta osasunaren sustapena erakunde autonomoan, GOFE-Indesa 2010 S.L. Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuaren bidez

Erakunde autonomoaren zerbitzura dauden langileek negoziazio kolektiborako, partaidetzarako eta kontsultarako organoetan duten ordezkaritza instituzionalak berekin dakar, besteak beste, Negoziazio Mahaian, Langileen Batzordean, Lan Poltsen Batzordean, Segurtasun eta Osasun Batzordean, eta Berdintasun Batzordean parte hartzea.

**3.1.4.1. Giza Baliabideak. Lanpostuen zerrenda**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostuen zerrendak, 2023ko abenduaren 31n indarrean dagoenak, 1.107 langile ditu guztira. Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 20ko 63/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu zen eta, 2016. eta 2023. urteen artean hainbat aldaketa argitaratu ondoren, aurten Foru Gobernuko Kontseiluaren abenduaren 23ko 806/2024 Erabakiak aldatu du.

Hona hemen arlokako langileak, 2024ko abenduaren 31n:

| | |
|---|---|
| **GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARITZA** | **9** |
| Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritza | 9 |
| **ZERBITZU OROKORRAK** | **59** |
| Bulego nagusia | 59 |
| **ADINEKOEN ARLOA** | **642** |
| Zuzendariordetza Teknikoa | 19 |
| Egoitzak | 558 |
| Eguneko zentroak | 65 |
| **DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ARLOA** | **293** |
| Zuzendariordetza Teknikoa | 22 |
| Orientatzeko eta Baloratzeko Zentroa | 23 |
| Egoitzak eta Etxebizitzak | 149 |
| Enplegu Bereziko Zentroak | 8 |
| Zentro okupazionalak | 83 |
| Autonomia Pertsonaleko Zentroa | 8 |
| **GIZARTEGINTZA ARLOA** | **47** |
| Gizartegintza | 6 |
| Informazio-bulegoa eta OGZ | 41 |
| **ADINGABEEN ETA FAMILIAREN ARLOA** | **41** |
| Haurren talde teknikoa | 32 |
| Haurrentzako etxeak | 9 |
| **GIZARTERATZEAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ARLOA** | **16** |
| **GUZTIRA** | **1.107** |

**LANGILE-KOPURUAREN GARAPENA**



| LANGILEEN BILAKAERA, JARDUERA-ARLOEN ARABERA | 1992 | 1995 | 1998 | 2001 | 2004 | 2007 | 2010 | 2013 | 2016 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizarte Zerbitzuetarako Idazkaritza | 6 | 6 | 8 | 11 | 10 | 10 | 9 | 8 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 |
| Zerbitzu orokorrak | 27 | 27 | 29 | 31 | 31 | 38 | 40 | 44 | 44 | 52 | 53 | 55 | 57 | 59 | 59 |
| Adinekoak | 425 | 447 | 481 | 537 | 568 | 575 | 617 | 619 | 619 | 624 | 632 | 637 | 638 | 639 | 642 |
| Desgaitasuna duten pertsonak | 247 | 252 | 256 | 276 | 277 | 286 | 305 | 297 | 296 | 299 | 297 | 293 | 294 | 293 | 293 |
| Gizarte esku-hartzea | 14 | 21 | 24 | 30 | 31 | 33 | 37 | 40 | 40 | 56 | 58 | 60 | 61 | 62 | 47 |
| Adingabeak eta familia | 36 | 38 | 25 | 27 | 27 | 29 | 30 | 30 | 30 | 39 | 40 | 40 | 41 | 41 | 41 |
| Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloa | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | 16 |
| **GUZTIRA** | **755** | **791** | **823** | **912** | **944** | **971** | **1.038** | **1.038** | **1.038** | **1.079** | **1.089** | **1.094** | **1.100** | **1.103** | **1.107** |

2024/12/31ko lanpostuen zerrendari dagokionez, talde hauetan daude sailkatuta **(*)**:

**LANGILEEN KUALIFIKAZIOA**




**(*) Talde bakoitzean eskatzen den titulazioa:**

***A Taldea.*** *Goi-mailako titulazioa*
***B Taldea.*** *Erdi-mailako titulazioa*
***C Taldea.*** *Batxilergoa, LHko II. maila*
***D Taldea.*** *Eskola-graduatua, LHko I. maila*
***E Taldea.*** *Eskola-ziurtagiria*

| LENGILEEN DATUEN BILAKAERA | 1992 | 1995 | 1998 | 2001 | 2004 | 2007 | 2010 | 2013 | 2016 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langileen gehieneko baimena | 754 | 790 | 823 | 912 | 944 | 971 | 1.038 | 1.038 | 1.038 | 1.079 | 1.089 | 1.094 | 1.100 | 1.103 | 1.107 |
| Kontingentzien estaldura | 1.261 | 1.645 | 1.978 | 2.905 | 2.957 | 3.843 | 4.402 | 3.980 | 5.786 | 8.973 | 7.584 | 7.192 | 8.143 | 10.088 | 12.540 |
| Enplegurako deialdi publikoa (deitutako plazak) | 9 | 88 | Poltsa | - | - | - | - | - | 80 | 54 | 61 | 83 | 27 | 31 | 26 |
| Langile nominadunak hilean, batez beste | 928 | 1.029 | 1.117 | 1.246 | 1.284 | 1.394 | 1.405 | 1.571 | 1.376 | 1.872 | 1.920 | 1.783 | 1.624 | 1.695 | 1.650 |

### 3.1.4.2. GOFE-INDESA Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzu Mankomunatua

GOFE-INDESA Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzu Mankomunatuak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak eta Prebentzio Zerbitzuen Araudiari buruzko 39/1997 Errege Dekretuak esleitzen dizkioten eskumenak gauzatzen ditu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Lan Arriskuen Prebentzioaren arloko Araudia egokitzeko irizpideei buruz Eskualde Administrazioak eta sindikatuek eginiko akordioan zehaztutakoak ere.

**Prebentzio Zerbitzuaren jarduerak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean (GOFE)**

**1. Prozedurak lantzea:**

- Istripuak eta gorabeherak ikertzeko prozedura garatzea.
- Haurdun edo edoskitzaro naturalean dauden langileekin jarduteko prozedura prestatzea.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan-eremuan sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-joeragatiko jazarpena prebenitzeko eta halako kasuetan esku hartzeko protokoloaren eraketan parte hartzea.

**2. Arriskuen ebaluazioak eta jarduera-planak zentroka:**

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zentro guztietako prebentzio-jardueraren planifikazioa.
- Arrisku psikosozialen ebaluazioak.
- Lan-baldintzen ebaluazioak.
- Arriskuen ebaluazioen berrikuspenak.
- Ingurumen-baldintzen balorazioak.
- Ingurumen-kalitatearen neurketak.
- Eremu elektromagnetikoen eta karga antiestatikoen eraginpean egoteak dakarren arriskuaren ebaluazioaren jarraipena.
- Arriskuak ebaluatzeko eta lanpostuak egokitzeko txostenak.
- Lanpostuak egokitzeari buruzko txostenak.
- Lanpostuetako baldintzen egokitzapena.
- Deserosotasun akustikoa, tenperatura, CO2, argiztapena eta zarata neurtzea.

**3. Haurdunaldiagatiko arriskuari dagozkion izapideak mutualitatearekin:** 20 izapide.

**4. Autobabes- edo larrialdi-planen berrikuspena.**

**5. Simulakroak:**
Zentroetan pixkanaka prestakuntza-saioak eta simulakroak egitea, autobabes - edo larrialdi-plana ezartzeko eta haren jarraipena egiteko: 26 jarduera.

**6. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa/prestakuntza:**
Profil hauetan Prebentziorakoko eta Lesio Muskuloeskeletikoen Prebentziorako jarduera garatzea eta ezartzea:

- Lesio muskuloeskeletikoak prebenitzeko profil soziosanitarioa, batez ere erabiltzaileen karga-mobilizazioen eta jarrera behartuen eskuzko manipulazio-arriskuen eraginpean dauden langileentzat.
- Lesio muskuloeskeletikoak prebenitzeko zerbitzuen profila, batez ere zamak eskuz manipulatzeko, mugimendu errepikakorrak egiteko eta jarrera behartuak izateko arriskua duten langileentzat.
- Lesio muskuloeskeletikoak prebenitzeko profil administratiboa, batez ere datuak bistaratzeko pantailak erabiltzearen ondoriozko arriskuen eraginpean dauden langileentzat.

**a. Informazioa:**

- Arrisku biologikoa dagoenean eskularruen erabilera egokiari buruzko gomendioen dokumentuaren eraketa.

**b. Hainbat prozeduraren eta protokoloren argitalpena webgunean:**

- Zainetako zirkulazioa hobetzeko aholkuak.
- Bularreko autoazterketa egiteko aholkuak.

**7. Laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen ikerketa:**

- Prebentzio-neurrien plangintza eta jarraipena zentroetan.

**8. Enpresa-jardueren koordinazioa (EAE):**

- Hainbat zentrotako enpresa-jardueren koordinazioa.
- Dokumentuen berrikuspena lizitazioetan.

**9. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko askotariko aholkularitza teknikoa:**

- Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko kontsultak, zalantzak, arrisku-egoerak, eskaerak eta abar ebaztea, GOFEko estamentu guztietan (zuzendaritza, GOFEko langileak, alderdi soziala...).

**10. Segurtasun eta Osasun Batzordean parte hartzea**

**11. Osasunaren zaintza**

- Laneko osasun-azterketak egin dira, aldizkakoak, hasierakoak eta aurretikoak.
- Txertoak jarri dira, eta mediku- eta erizaintza-kontsultei erantzun zaie.

## 3.1.5.
## ANTOLAKETA ETA INFORMATIKA ARLOA

Arlo honen ardura da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak behar dituen antolamendu-konponbideak diseinatzea, gainerako arloekin eta dagozkien administrazio-organoekin koordinatuta, dauden baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko eta erabiltzaileei zerbitzuen prestazio eraginkorragoa eskaintzeko.

Horrez gain, erakunde autonomoan sortzen den informazioa erabiltzeko eta prozesuak kudeatzeko informatikako irtenbiderik egokienak zehazten ditu.

Sistemak hobetzeari begira, egitura-antolakuntzari, prozesuen definizioari, lan-kargen banaketari eta informatikako tresnak erabiltzeari dagokionez, honako jarduera hauek egin dira:

**a. Azpiegitura eta ekipamendua**

- Ekipamendu eramangarriak/PC zaharkituak ordeztu.
- Tximeletak zentro berrirako beharrezko ekipamendu informatikoa ezarri.
- Funtzio anitzeko inprimagailuak berritzeko proiektua amaitu.
- Kalkulu Zentroarekin koordinatuta, datu-sarean hobekuntzak egin.

**b. Zibersegurtasuna eta datuen babesa**

- WiFi sarerako sarbideak kudeatzeko atari gatibuak ezarri.
- Antibirusak eta mehatxuak detektatzeko tresnak eguneratu.
- Sarbidea kontrolatzeko eta autentifikatzeko politikak indartu.
- Segurtasun-gorabeherei erantzun.
- Prestakuntza-zerbitzuarekin koordinatuta, GOFEko langile guztiei Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoari (DBLO) buruzko ikastaroa eman (bost saio).

**c. Softwarearen eta aplikazioen garapena**

- Aplikazio berria garatu, 2024an egindako egonkortze-prozesuaren 39 deialdiren kudeaketa osoa ahalbidetzeko.
- Barne-aplikazioak Active Directory-rekin (AD) integratu.
- Dorlet bertsioaren migrazioa, etorkizunean DASSTIME ezartzeko.
- Beste administrazio batzuekin integratu, espedienteetan baja automatikoak emateko, datuak zuzentzeko, etab.
- Aplikazioen etengabeko bilakaera: menuen aplikazioa, langileen kudeaketa, etab.
- Egungo barne-aplikazioetan doikuntzak egiten jarraitu, paperezko prozesuak ezabatzeko eta administrazio-eraginkortasuna hobetzeko.
- GOFEko hainbat arloren artean Business Objects (BO) tresnaren erabilera hedatu, zeinak kanpo-eragileei jarraipena egiteko eta erantzuteko datu-berreskurapenean autonomia errazten duen. Desgaitasunaren arloan kudeaketa-txostenak garatzeko analisiari ekin zaio.

**d. Elkarreragingarritasuna**

- Desgaitasun-zerbitzu berria abian jarri, IMSERSOk Estatu-mailan eskatutako aldaketarekin bat eginda.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Txartel Sozial Digitalarekin (TSD) integratu, administrazio publikoek kudeatzen dituzten prestazio ekonomikoak aitortzeko.
- Osakidetzarekin integratzeko beharrezko zereginak egiten ari dira, mendekotasun-txostena online izapidetu ahal izateko.
- Gasteizko Udalarekin batera lanean ari gara Gizarte Zerbitzuetako datuak partekatzeko elkarreragingarritasuna errazteko.
- NISAEren bidez, GOFEk eskaintzen dituen web-zerbitzuak kontsumitzeko 204 baimen-eskaera jaso ziren.

**e. Erabiltzaileentzako laguntza eta arreta**

- Erabiltzaileei etengabeko arreta eta laguntza eman kontsulta informatikoen, instalazioen eskaeren, akats informatikoen, behar berrien, erabiltzaileen kudeaketaren eta abarren bidez.
- GOFEko hainbat arlotako 142 informazio-eskaerari, kanpoko erakundeei, jendaurreko informazio-eskaerei eta Batzar Nagusiei erantzun.
- Hodeian 28 ziurtagiri eman GOFEko profesionalentzat.
- Arloan eskaerak kudeatzeko tresna berria ezartzeko lanari ekin zaio, jasotako eskaeren jarraipena, esleipena eta ebazpena hobetzeko helburuz, lan-fluxuak optimizatuta eta zereginen kudeaketan bai trazabilitate bai eraginkortasun handiagoa ahalbidetuta.

**f. Euskara**

- Langileak euskalduntzeko prozesuaren barruan, 2024ko ekitaldiaren amaieran 438 hizkuntza-eskakizun egiaztatu dira derrigortasun-datarekin, hau da, lanpostu guztien % 39,25.
- 2023-24 ikasturtean, 40 pertsonak hartu dute parte euskalduntzean, IVAPen bidez; beste 13k, berriz, GOFEren laguntzak jaso dituzte.
- Hizkuntza-eskakizunen azterketen bi deialdietan, 207 lagunek aurkeztu dute azterketa-eskaera; azkenean, 129k egin dute azterketa. Gaindituen azken indizea % 8,5ekoa da.

**g. Proiektu estrategikoak eta eraldaketa digitala**

- Langileen Arloarekin koordinatuta, Enplegatu publikoak egonkortzeko EEP antolatu.
- Aholkularitza tekniko baten lizitazioa, GOFEren antolaketa-eredu berria ezartzeko.
- Salesforcen oinarritutako CRM irtenbidea ezarri Tximeletak zerbitzuan, sexu-erasoaren biktima diren emakumeei etengabeko laguntza bermatzeko. Tresna horri esker, kasuei buruzko informazioa zentralizatu, inplikatutako profil profesionalen esku-hartzea koordinatu, eta jarraipen arinagoa eta pertsonalizatuagoa egin daiteke.
- Gizartegintza Arloarekin batera, Etxean Bai proiektuaren lizitazioa. Proiektuaren xedea da mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzea.
- Arabako Foru Aldundiak sustaturiko PZK eredura (Prozedura eta Zerbitzuen Katalogoa) egokitzen hastea. Ekimen honen helburua da GOFEko zerbitzuak foru-erakundeak zehaztutako estandarrekin lerrokatzea, kudeaketa egituratuagoa sustatzeko, emaitzetara eta herritarren beharretara bideratua.
- GOFEren eraldaketa digitalerako aholkularitza jaso ondoren, proposatutako aukerak aztertu eta baloratu dira. Egokitzapen horiei ekiteko plegu berriak egiten hasi da.

# **3.2.** GIZARTEGINTZA ARLOA

Gizartegintza Arloak, oinarrizko eta balio anitzeko zerbitzuekin batera, pertsonen, familien eta taldeen premiei haien izaeraren eta ezaugarrien arabera erantzuteko beste zerbitzu espezifikoago batzuk biltzen ditu, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuz.

## 3.2.1. GIZARTEGINTZA ARLOAREN ANTOLAMENDUA

Balorazio eta baliabideak esleitzeko batzorde teknikoak

**ZUZENDARIORDETZA TEKNIKOA**

Arloko talde teknikoa

**Oinarrizko gizarte-zerbitzuak**

- Gizarte-informazio eta -arretarako bulegoa
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak
- Larrialdietako gizarte-zerbitzua
- Trebiñuko enklaberako hitzarmenak

**Hurbileko zerbitzuak**

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuak
- Eguneko arretarako landa-zentroak (16 zentro)*
- Garraio egokitua

**Prestazio ekonomikoak**

- Kotizazio gabeko pentsioak
- Etxebizitza-alokairuagatiko pentsio osagarria
- Gizarte-ongizaterako funtsaren pentsioak
- DPGL (LISMI) prestazioak
- Gizarte-larrialdietarako laguntzak
- Behar-egoeretarako laguntza bereziak
- Familia-inguruneko zainketetarako prestazio ekonomikoa
- Zerbitzuari lotutako aldi baterako prestazio ekonomikoa
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa
- Gizarteratzeko banakako dirulaguntza

**Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta**

- Biktimentzat arreta psikologika
- Erasotzaileentzako arreta psikologikoa
- Emakumeentzako arreta juridikoa
- Harrera etxebizitzak (3 etxe)****
- 20.000 biztanletik beherako udalekin hitzartutako etxebizitzak (2 etxe)
- Berehalako Harrera Zentroa (BHZ)
- Egonaldi ertaineko egoitza-abegiko zentroa
- Erakundeen arteko lankidetza hitzarmenak
- Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala etxean

**Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak**

- Arreta psikosoziala eta gizarte- eta hezkuntza-lana etxean
- Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroak eta okupazionalak (4 zentro)***
- Etxebizitza eta egoitza lagunduak (14 zentro)***
- Beste programa batzuk

**Gizarteratzeko zerbitzuak**

- Gizarte-bazterkeriaren balorazioa eta diagnostikoa
- Besarkada etxea egoitza**
- Etxebizitza lagunduak
- Eguneko zerbitzuak
- Sustapenerako, inklusiorako eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko programak
- Adikzioen prebentzio komunitarioa
- Gizarte-erantzunkidetasuneko beste programa batzuk

**Erakundeen laguntzak**

** Udal kudeaketa/foru finantziaketa ** Itundutako/hitzartutako kudeaketa *** Plaza itunduak/hitzartuak **** Udal-eskumena/foru kudeaketa*

| LANPOSTUAK | 2024 |
|---|---|
| Gizartegintza Arloko zuzendariordea | 1 |
| Informazio Bulegoko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako arduraduna | 1 |
| Gizarte Zerbitzuen koordinatzailea | 1 |
| Gizartean Esku Hartzeko goi-mailako teknikaria | 1 |
| Psikologoa | 2 |
| Programa Sektorialen koordinatzailea | 3 |
| Gizarte-langilea | 26 |
| Gizarte Zerbitzu Balioaniztunetako erdi-mailako teknikaria | 5 |
| Prebentzio komunitarioko teknikaria | 3 |
| Zuzendariordetza teknikoko idazkaria | 1 |
| Administraria | 17 |
| Mandataria | 1 |
| **GUZTIRA** | **62 (*)** |

**(*)** *Urte osoan memoria honetan aipatu jarduerak egiteko erabili den plantilla. Abenduaren 31n, lanpostu hauetako 15 Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloari esleitu zaizkio berriro, eta arloa 47 lanposturekin geratu da.*

## 3.2.2. GIZARTEGINTZA ARLOKO ZERBITZU OROKORRA

Programa honek Gizartegintza Arloko Zuzendariordetzari eta Zerbitzu Orokorrei dagozkien jarduerak jasotzen ditu. Haien helburu nagusia da beren ardurapeko zerbitzuak eta programak zuzentzea eta koordinatzea, eta horien antolaketaz eta kudeaketaz arduratzea.

# 3.2.3. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

### 3.2.3.1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Informaziorako eta Arretarako Bulegoa

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak titulartasun eta kudeaketa publikokoak dira, modu ez-zentralizatuan egituratuta daude, eta balio anitzeko eta jarduteko diziplina anitzeko unitate gisa eratu dira. Leihatila bakar moduan funtzionatzen dute esku hartzen duten inguruneko biztanleriaren eta Gizarte Zerbitzuen sistema publikoaren artean. Zerbitzu honek herritarren eskubideei buruzko informazioa ematen du, baita haien beharrei hobekien egokitzen zaizkien programa eta zerbitzu-zentroei buruzkoa ere, izan horiek publikoak edo pribatuak. 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten kuadrilla eta udaletan, 17 oinarrizko gizarte-zerbitzu daude, eta foru-erakunde honek kostuen % 80 finantzatzen du.

Gizarte Informaziorako eta Arretarako Bulegoak Gasteizko bizilagunek proposatutako gizarte-arreta beharrei erantzun nahi die; hau da, helburua da Foru Aldundiaren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren, eta bestelakoen eskumeneko gizarte-baliabideak eskuratzea.

**Eskaerak**

2024an, 12.147 pertsonari dagozkion oinarrizko gizarte-zerbitzuetan aurkeztutako 24.387 eskaerari erantzun zaie. Eskatzaileen % 69,1 Gasteizen bizi diren arren, biztanle-kopurua kontuan hartuta Errioxa Oiongo, Errioxa Hegoaldeko eta Errioxa Ekialdeko oinarrizko gizarte-zerbitzuei dagozkien eremuetan erregistratu da eskaeraren prebalentziarik handiena. Adierazi behar da Gasteiz, Laudio eta Amurrio udalerrien kasuan, Aldundiaren eskumenen esparruan jasotako eskaerak bakarrik aztertu direla.

Eskatzaileen sexuari dagokionez, emakumeak (% 55,5) gizonak baino apur bat gehiago izan dira.

## GIZARTE-ZERBITZUAK ESKATZEN DITUZTEN PERTSONEN KOPURUA ETA BIZTANLERIA OSOAREN GAINEKO EHUNEKOA (2024)

| OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA | SEXUA | | | Arabako biztanleriak* | Herritarren guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | | |
| Amurrio | 150 | 208 | 358 | 10.330 | 3,47 |
| Añana Ekialdea | 165 | 101 | 266 | 4.033 | 6,60 |
| Añana Mendebaldea | 43 | 54 | 97 | 2.140 | 4,53 |
| Añana Erdialdea | 61 | 72 | 133 | 3.432 | 3,88 |
| Aiara | 106 | 145 | 251 | 5.992 | 4,19 |
| Kanpezu | 56 | 84 | 140 | 3.139 | 4,46 |
| Laudio | 355 | 448 | 803 | 17.982 | 4,47 |
| Errioxa Oion | 128 | 146 | 274 | 3.413 | 8,03 |
| Errioxa Ekialdea | 42 | 37 | 79 | 1.165 | 6,78 |
| Errioxa Mendebaldea | 40 | 63 | 103 | 2.811 | 3,66 |
| Errioxa Erdialdea | 42 | 49 | 91 | 2.459 | 3,70 |
| Errioxa Hegoaldea | 41 | 56 | 97 | 1.356 | 7,15 |
| Agurain Erdialdea | 111 | 162 | 273 | 5.155 | 5,30 |
| Agurain Iparraldea | 79 | 99 | 178 | 3.404 | 5,23 |
| Agurain Hegoaldea | 78 | 99 | 177 | 4.166 | 4,25 |
| Zuia A | 94 | 130 | 224 | 5.678 | 3,95 |
| Zuia B | 97 | 113 | 210 | 4.514 | 4,65 |
| Gasteiz | 3.722 | 4.671 | 8.393 | 257.968 | 3,25 |
| **GUZTIRA** | **5.410** | **6.737** | **12.147** | **339.137** | **3,58** |

** EIN. Udal-errolda 2024ko urtarrilaren 1ean.*

## OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUETAN AURKEZTUTAKO ESKAKIZUN-MOTA

| AUTONOMIAREN/MENDEKOTASUNAREN INGURUKO ESKAERAK | 18.608 |
|---|---|
| Mendekotasunaren diagnostikoa eta balorazioa | 3.345 |
| Desgaitasunaren diagnostikoa eta balorazioa | 3.204 |
| Gaitasun ekonomikoaren balorazioa | 2.219 |
| Banakako Arreta Programa | 3.113 |
| Egoitza-unitate soziosanitariora joatea baloratzea | 158 |
| Balorazio-zentroaren tratamendua | 385 |
| Adinekoentzako egoitza-zerbitzua | 1.142 |
| Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zerbitzua | 53 |
| Gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitza-zerbitzuak | 44 |
| Adinekoentzako eguneko arreta | 16 |
| Adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroak | 83 |
| Adinekoentzako eguneko zentroak | 274 |
| Gaixotasun mentala edo desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa | 41 |
| Desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro okupazionalak | 30 |
| Autonomia pertsonaleko zentroa | 97 |
| Jantoki-zerbitzua/etxez etxeko bazkaria | 35 |
| Gaixotasun mentala duten pertsonentzako programa psiko-hezitzailea | 31 |
| Etxez etxeko laguntza zerbitzua | 468 |
| Desgaitasuna eta/edo gaixotasun mentala duten pertsonentzako egonaldi laburrak egoitzetan | 395 |
| Adinekoentzako egonaldi laburrak egoitzetan eta eguneko zentroetan | 40 |
| Telealarma | 478 |
| Autonomia pertsonala sustatzeko laguntzak | 536 |
| Senideak zaintzeko prestazio ekonomikoa | 1.012 |
| SEPAP/APSZ | 14 |
| Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa | 115 |
| Taxi-bonua eta garraio egokitua | 1.257 |
| Etxean Bai | 23 |

| ADINGABEEN BABESGABETASUNAREN ALORREKO ESKAERAK | 1.107 |
|---|---|
| Babesgabetasun-egoeraren balorazioa | 151 |
| Familia-hezitzaileak | 154 |
| Harrera eta larrialdietarako zentroa | 0 |
| Eguneko zentroak eta haurren etxeak | 5 |
| Familia-harrera/adopzioa | 43 |
| Arreta psikologikoa | 133 |
| Familia-harrera/adopziorako prestakuntza | 17 |
| Babes-betebeharrekin lotutako beste eskaera batzuk | 604 |
| **EMAKUMEZKOEN BABESGABETASUNAREN ALORREKO ESKAERAK** | **29** |
| Emakumeen aurkako indarkeria matxista | 29 |
| **GIZARTERATZEAREN ALORREKO ESKAERAK** | **3.813** |
| Laguntza ekonomikoak | 3.786 |
| Bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako ostatua | 27 |
| **BESTELAKO ESKAERAK** | **830** |
| Egoitzetako banakako laguntza | 140 |
| Aldizkako pentsioak | 263 |
| Bestelako eskaerak | 427 |
| **GUZTIRA, ORO HAR** | **24.387** |

### 3.2.3.2. Familia ugariak

Familia ugarien arretarako zerbitzua esleituta duen Gizarte Informaziorako eta Arretarako Bulegoan, 2024ko ekitaldian familia ugarien 2.192 titulu berritu eta 391 liburu berri izapidetu ziren. Guztira, 5.840 titulu daude indarrean.

| FAMILIA UGARIAK | Kategoria orokorra | Kategoria berezia | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Titulu berriak | 365 | 26 | 391 |
| Berriztatzeak | 1.501 | 691 | 2.192 |
| Indarrean dauden tituluak | 4.968 | 872 | 5.840 |

| 2024an INDARREAN DAUDEN TITULUAK | | |
|---|---|---|
| **Titulu-mota** | **Kopurua** | **Sailkapena** |
| Kategoria orokorra | 141 | Desgaitasun-ziurtagiririk gabeko umezurtzak |
| | 3.424 | Desgaitasun-ziurtagiririk gabeko seme-alabak dituztenak |
| | 589 | Desgaitasun-ziurtagiridun seme-alabak dituztenak |
| | 16 | Aurreko senidea, desgaitasuna duena |
| | 798 | 26/2015 Legea aldatzearen ondorioa |
| | 0 | Hildako aurreko bat (2007ko legeria) |
| Kategoria berezia | 486 | Errenta IPREM/OAEAP (Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa) halako 0,75 baino txikiagoa |
| | 171 | Desgaitasun-ziurtagiririk gabeko seme-alabak dituztenak |
| | 104 | Desgaitasun ziurtagiridun seme-alabak dituztenak |
| | 111 | Beste egoera batzuk |
| **GUZTIRA** | **5.840** | |

### 3.2.3.3. Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzuak

Eguneko arretarako landa-zentroak (EALZ) adinekoentzako hurbileko eta udal-eskumeneko zerbitzu komunitarioak dira, nagusiki gizarte-etxe edo -klubetan integratuak. Egunez, eguneroko bizimoduko eta aisialdiko eta astialdiko jardueretan laguntzeko hainbat zerbitzu ematen dizkiete adineko pertsonei, nork bere autonomia-maila izanik familia-egiturari edo laguntza-sare informalari eusten diotenei, hain zuzen ere, beren etxean bizi-kalitate onargarriaz bizitzen jarraitu ahal izateko eta beren sozializazioa bultzatzeko, eta, hala badagokio, balizko isolamendu-egoerak konpentsatzeko.

Arabako Lurralde Historikoan, 16 zentro, 214 plaza eta 2 jantoki daude.

Eguneko Arretarako Landa Zentroa duten udalek hitzarmena sinatu zuten 2021ean Arabako Foru Aldundiarekin, EALZko zerbitzuaren eskumenak eskuordetzeko eta garraio egokitua kudeatzeko gomendioa egiteko, 4 urteko indarraldiarekin.

Arabako Foru Aldundiak bermatzen du eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren prestazio integralaren gastuetarako ekarpena haren kostu osoaren % 80 izango dela, eta garraio egokitua emateagatiko gastuen % 100.

2024an, 221 pertsona izan dira (% 68,8 emakumeak) zentro horietako erabiltzaileak, eta urtearen amaieran 171 (% 68,4 emakumeak) zeuden bertan.

| EALZ | PLAZAK | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | G | H | GUZTIRA | G | H | GUZTIRA |
| Dulantzi | 13 | 4 | 10 | 14 | 3 | 10 | 13 |
| Amurrio | 15 | 4 | 14 | 18 | 3 | 8 | 11 |
| Aramaio | 8 | 3 | 8 | 11 | 1 | 7 | 8 |
| Artziniega | 10 | 2 | 7 | 9 | 2 | 5 | 7 |
| Asparrena | 10 (*) | 5 | 9 | 14 | 5 | 7 | 12 |
| Aiara | 10 | 4 | 6 | 10 | 4 | 4 | 8 |
| Bilar | 15 | 5 | 12 | 17 | 4 | 11 | 15 |
| Iruña Oka | 15 | 1 | 13 | 14 | 1 | 10 | 11 |
| Lagran | 15 | 2 | 5 | 7 | 1 | 5 | 6 |
| Arraia-Maeztu | 8 | 2 | 8 | 10 | 2 | 5 | 7 |
| Erriberabeitia | 17 | 4 | 11 | 15 | 3 | 6 | 9 |
| Agurain | 10 | 3 | 10 | 13 | 2 | 8 | 10 |
| Harana | 13 | 2 | 6 | 8 | 1 | 4 | 5 |
| Gaubea | 15 | 7 | 12 | 19 | 6 | 10 | 16 |
| Zigoitia | 20 | 7 | 14 | 21 | 6 | 13 | 19 |
| Zuia | 20 | 14 | 7 | 21 | 10 | 4 | 14 |
| **GUZTIRA** | **214** | **69** | **152** | **221** | **54** | **117** | **171** |

**(*)** *Bi plaza baino gehiago jantokirako.*

**EAZL-KO PLAZEN ETA ERABILTZAILEEN GARAPENA (URTEKOA, 2004-2024)**




Halaber, egokitutako garraio-zerbitzuaren programa mantendu egin da, helburu nagusia izanik beren kabuz baliatzeko arazoak dituzten pertsonak edo beste biztanleria-gune batzuetan bizi direnak gizarte-zerbitzuetako zentroetara garraiatzea.

Arabako probintzia osoan banatutako hamabi ibilbideetan, guztira 55.806 joan-etorri egin ziren Eguneko arretarako landa-zentroetara eta gizarte-zerbitzu espezializatuetara, 176 pertsona eramanda: 118 emakume eta 55 gizon eguneko arretarako landa-zentroetara, eta 2 emakume eta gizon bat zerbitzu espezializatuetara. Hamabi ibilbide horiei “Atez Ateko” ibilbidea gehitu behar zaie. Horren bidez, hainbat zerbitzu osagarri eman ziren oinarrizko gizarte-zerbitzuen eskaerei erantzuteko. Eskaerok probintzia osoan zehar banatu ziren, eta gizarte- eta osasun-izaerako lekualdaketetarako eta gainerako ibilbideei laguntzeko lekualdaketetarako izan ziren. Ibilbide horretan 286 zerbitzu egin ziren guztira: osasun-tipologiako 154 eta 132 gizarte-arlokoak.

#### 3.2.3.4. Gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzua

Zerbitzu hau urteko egun guztietan ematen da, oinarrizko gizarte-zerbitzuak zerbitzuz kanpo dauden ordutegian, eta Lurralde Historikoan sortzen diren gizarte-larrialdiko egoerei berehala erantzuten die.

Zerbitzua Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera ematen da.

#### 3.2.3.5. Beste jarduera batzuk

Jarduketa asko egin dira, eta honako hauekin koordinatuta egindakoak nabarmentzen dira:

- Trebiñuko eta Argantzungo udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin, lankidetza-hitzarmenen bidez, bertako herritarrak Arabako Foru Aldundiaren zenbait gizarte-zerbitzu espezializatuz baliatu ahal izateko. Era berean, Burgosko Foru Aldundiarekin, herritarrek beren mendeko zerbitzu espezializatuak eskura ditzaten.
- Lehen mailako osasun-arreta zerbitzuak. Koordinazio- eta lankidetza-protokoloa dago GOFEko Gizarte Informaziorako eta Arretarako Bulegoaren eta Osakidetzako Araba eskualdeko hiri-eremuko lehen mailako arretarako unitateen artean, eta Arabako Lurralde Historikoko beste eremu eta eskualde batzuekin.
- Osasun mentaleko zerbitzuak, bai bi sareetan komunak diren kasuak kudeatzeko bai baliabideak behar bezala aplikatzeko, pertsonen profilaren eta testuinguruaren arabera. Era berean, zerbitzu horiekin eta Gasteizko Udalarekin koordinatu da kasu konplexuetan esku hartzeko proposamenak aztertzeko eta egiteko.
- Gasteizko Udalarekin, mendekotasuna duten pertsonekin eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonekin esku hartzeko.
- Ertzaintza, Udaltzaingoa, Osakidetza, udalak, kuadrillak, berdintasun-zerbitzuak eta sistema judizialarekin, indarkeria matxistaren eta sexu-indarkeriaren biktimak artatzeko eta haiei begirako protokoloak lantzeko, eta Lanbiderekin eta San Prudentzio Lan Fundazioarekin emakume horiekin gizarte-inklusiorako esku-hartzeak egiteko.
- Arabako Farmazialarien Elkargoarekin, hainbat kolektiboren arreta eta bideratzea koordinatzeko.
- Eudelekin, oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko araudiak eta ekintzak egiteko.
- IMSERSOrekin eta KGPak kudeatzen dituzten beste erakunde batzuekin, jarraibideak emateko, irizpideak argitzeko eta mendekotasunaren katalogoko prestazio ekonomikoak aldatzeko.
- Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin eta EAEko udalekin, prestazio eta gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuko fitxak berrikusteko.
- Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, hainbat gaitarako (bizimodu independentea, adingabeak...).

## 3.2.4. ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA – ELZ

Etxez etxeko laguntza sorospena eta prebentzioa eskaintzeko gizarte-zerbitzua da, mendekotasun-egoeran edo mendekotasun-arriskuan dagoen erabiltzaileari bere etxean jarraitzen laguntzeko; hala, etxe barneko laguntza pertsonala eskaintzen zaio, etxean bertan moldatzea ahalbidetzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko, isolamendu-egoerak saihesteko helburuz.

Foru-erakundeak eskaintzen du, Arabako Lurralde Historiko osoan, Gasteizen salbu. Bertan, 2022ko urtarrilaren 1etik, Udala bera arduratzen da zerbitzuaz, bi erakundeen artean sinatutako lankidetza-hitzarmena aplikatuta.

2024an, ELZk 1.165 pertsona artatu ditu guztira (% 64,7 emakumeak), batez ere mendekotasuna duten pertsonak, gehienak adinekoen kolektibokoak (% 87,9). Halaber, ELZren bitartez bat-bateko 3 mendekotasun-egoera artatu dira 2015eko urrian onartutako programa baten barruan.

Mendekotasun-arriskuko egoerei, gaixotasun mentalei eta gizarte-izaerako beste arazo batzuei erantzun zaie, eta 388.846 ordu eman dira horretan.

Urteko arreta-orduen batez bestekoa 27,1ekoa izan da artatutako pertsona eta hilabete bakoitzeko.

**ERABILTZAILEAK**

| PRESTAZIO-MOTA | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/32 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| Desgaitasuna duten pertsonak (*) | 53 | 33 | 86 | 46 | 29 | 75 |
| Adinekoak (*) | 349 | 675 | 1.024 | 279 | 583 | 862 |
| Landakoa I. Gradua 40 puntu baino gutxiago | 21 | 34 | 55 | 18 | 31 | 49 |
| **GUZTIRA** | **423** | **742** | **1.165** | **343** | **643** | **986** |

*(*) Gasteiz udalerriko pertsonak ez daude zenbatuta.*

Urtearen bukaeran, ELZk 986 pertsonari ematen zien zerbitzua, horietatik % 65,2 emakumeak izanik.

**ELZ-REKIN ARTATUTAKO PERTSONA-KOPURUAREN BILAKAERA, URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31N**



# 3.2.5. PRESTAZIO EKONOMIKOAK

### 3.2.5.1. Aldizkako oinarrizko prestazioak

**a) Kotizazio gabeko pentsioak (KGP)**

GOFEk Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak kudeatzen ditu Araban, zeinak honako hauentzat diren: diru-sarrerarik ez dutenak, oso sarrera txikiak dituztenak, Gizarte Segurantzan kotizatu ez dutenak edo Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko edo Araubide Bereziko prestazioak jasotzeko kotizazio nahikorik egiaztatu ez dutenak, betiere dagokion legerian ezarritako baldintzak betetzen badituzte (adina edo ezintasun-gradua).

Kotizazio gabeko 2 pentsio-mota daude: erretiroagatikoak eta baliaezintasunagatikoak.

2024an, 1.394 pertsona izan dira erretiroagatiko KGPren onuradun (% 68,1 emakumeei dagozkie), eta 888 pertsona baliaezintasunagatiko KGPren onuradun (% 57,1 gizonei dagozkie); guztira, 2.282 lagun.

2024. urtearen amaieran, 2.052 pertsonak jasotzen zituzten prestazio horiek; horietatik 1.256 erretiroko KGPak ziren (%66,4 emakumeenak) eta 796 baliaezintasuneko KGPak (%59,7 gizonenak).

**b) Kotizazio gabeko pentsioen hartzaileentzako alokairuagatiko osagarria**

Prestazio ekonomiko hau, urtean ordainketa bakarrean jasotzen dena, kotizazio gabeko pentsioa (erretiroagatikoa nahiz baliaezintasunagatikoa) jasotzen duten, alokaturiko etxebizitza batean bizi diren eta etxebizitzaren alokairu-kontratuaren titular diren pertsonentzat da.

2024an, 181 pertsonak jaso dute etxebizitza-alokairuagatiko osagarria, zeinetatik % 53,6 gizonezkoak diren.

**c) Gizarte Ongizaterako Funtsaren pentsioak**

Prestazio ekonomiko hau, aldizkakoa, elikagaietarako ematen da. Helburua da adinagatik edo baliaezintasunagatik lan egin ezin dutenei eta bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko beste sarrerarik ere ez dutenei baliabide ekonomikoak ematea. Bi modalitate ditu: zahartasunagatiko pentsioa eta gaixotasunagatiko pentsioa.

2024an, 217 pertsonek jaso dute pentsio hau: 122k zahartasunagatikoa (% 75,4 emakumeak) eta 95ek gaixotasunagatikoa (% 67,4 gizonak).

2024ko abenduan, 204 lagunek jasotzen zituzten GOFen pentsioak: 117k zahartasunagatikoa (% 74,4 emakumeak) eta 87k gaixotasunagatikoa (% 69 gizonak).

**d) Desgaitasuna duten Pertsonentzako Gizarte eta Ekonomia Prestazioen Sistema Berezia**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere esku du Araban Desgaitasuna duten Pertsonentzako Gizarte eta Ekonomia Prestazioen Sistemaren kudeaketa. Desgaitasuna duten eta lan-jarduerarik garatzen ez dutelako Gizarte Segurantzaren sistemaren aplikazio-eremutik kanpo dauden pertsonentzat da.

2024an, gizarte-ongizateko eskumenari esleitutako babes-ekintzak honako hauek hartu ditu barne: gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sorospena (31 emakume), hirugarren pertsona baten laguntzagatiko sorospena (7 emakume), eta mugikortasunerako eta garraio-gastuengatiko konpentsaziorako sorospena (3 gizon eta emakume bat). Aipatu azken sorospena izan ezik, gainerakoak Prestazio Ez Kontributiboen Legeak indargabetu zituen.

## ERABILTZAILEAK

| PRESTAZIO-MOTA | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/32 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| **LISMI/DPGL** | **3** | **39** | **42** | **3** | **39** | **42** |
| Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko zerbitzua | 0 | 31 | 31 | 0 | 31 | 31 |
| Hirugarren pertsona baten laguntzagatiko zerbitzua | 0 | 7 | 7 | 0 | 7 | 7 |
| Mugikortasun eta konpentsaziorako zerbitzua | 3 | 1 | 4 | 3 | 1 | 4 |
| **GOF** | **94** | **123** | **217** | **90** | **114** | **204** |
| Zahartasunagatiko GOF | 30 | 92 | 122 | 30 | 87 | 117 |
| Gaixotasunagatiko GOF | 64 | 31 | 95 | 60 | 27 | 87 |
| **KGP** | **951** | **1.331** | **2.282** | **897** | **1.155** | **2.052** |
| Erretiroagatiko KPG | 444 | 950 | 1.394 | 422 | 834 | 1.256 |
| Baliaezintasunagatiko KPG | 507 | 381 | 888 | 475 | 321 | 796 |
| **GUZTIRA** | **1.048** | **1.493** | **2.541** | **990** | **1.308** | **2.298** |

## PENTSIOAK JASOTZEN DITUZTENEN GARAPENA (2000-2024)



### 3.2.5.2. Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistematik eratorritako prestazioak

**a) Gizarte Larrialdietarako Laguntzak - GLL**

Laguntza ekonomikoak dira, aldian-aldian ematen ez direnak eta dirulaguntza-erakoak, gastu espezifikoak egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonei laguntzeko. Gastuok arruntak edo ezohikoak izan daitezke, beharrezkoak gizarte-bazterkeriaren ondorioak arintzeko edo bazterkeriarik ez izateko.

Hauexek dira oinarrizko gastu espezifikoak:

- Etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeko eta hura mantentzeko gastuak (alokairu-gastuak, interesak eta amortizazioa, eta etxebizitza mantentzeko gastuak).
- Etxebizitzaren bizigarritasunerako eta oinarrizko ekipamendurako gastuak.
- Bizikidetza-unitateko pertsona batek edo gehiagok eduki ditzakeen lehen mailako beharrei lotutako gastuak.
- Adierazitako gastuengatik sortutako aldez aurretiko zorpetze-gastuak.

2024an, 1.116 laguntza izapidetu ditu GOFEk landa-ingurunean (Laudion eta Amurrion salbu). Laguntza 470 pertsonak jaso dute, % 61,2 emakumeak izanik.

**b) Behar-egoeretarako laguntza bereziak**

Behar-egoeretarako laguntza ekonomiko bereziak dira, aldizkakotasunik gabeak, bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez duten eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sisteman jasotako prestazioen onuradun izan ezin direnentzat, ez erabat ez neurri batean.

Programa honetan sartzen dira, halaber, askatasunik gabeko pertsonentzako laguntza ekonomikoak eta gazteentzako prestazio ekonomikoak, betiere AFAko Adingabeen Kontseiluaren tutoretzapean badaude eta adin-nagusitasunera heldutakoan laguntza ekonomikoa behar badute aldi batez.

2024an, Behar Egoeretarako Laguntza Berezien Programaren bidez 196 laguntza eman ziren, % 56,6 sostengurako eta % 36,8 emakumeentzat.

**ERABILTZAILEAK**

| PRESTAZIO-MOTA | Laguntza kop. | % | Pertsona-kopurua 2024 | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA |
| **Gizarte larrialdietarako laguntzak** | **1.116** | **100** | **182** | **287** | **469** |
| Landa-ingurunea | 1.116 | 100 | 182 | 287 | 469 |
| **Behar-egoetarako laguntza bereziak** | **196** | **100** | **98** | **57** | **155** |
| Sostengua | 111 | 56,6 | 32 | 43 | 75 |
| Etxebizitzaren alokairua | 3 | 1,6 | 1 | 1 | 2 |
| Lehen mailako beharrak | 82 | 41,8 | 65 | 13 | 78 |
| **GUZTIRA** | **1.312** | | **280** | **344** | **624** |

### 3.2.5.3. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeari lotutako prestazio ekonomikoak

Planteatutako arreta-beharrizanei erantzuteko, baliabide- eta prestazio-sorta handia erabili behar da, nagusiki pertsonak etxean zaintzeko eta artatzeko. Izan ere, etxean zaintzaileei laguntza ematea funtsezkoa da. Beharrezkoa denean, ordea, egoitzetan plazak ituntzen dira egonaldi laburrak egiteko.

**a) Familia-inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa (FIZPE)**

Aldizkako prestazio honen helburua da mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari laguntzarako sare soziofamiliarreko pertsona batek emandako arretak eragindako gastuei aurre egiten laguntzea, baldin eta pertsona hori ohiko zaintzaile nagusia bada eta arreta berak ematen badu zuzenean, edo berak gainbegiratzen dituen beste pertsona batzuen laguntzaz.

2024ko ekitaldian, 4.497 lagunek jaso dute FIZPE (% 51,6 emakumeak). Urtearen amaieran, 3.886 pertsona ziren prestazio ekonomiko honen onuradun, % 51 emakumeak izanik. Azpimarratu beharra dago zaintzaileen % 68,6 emakumeak direla.

Arabako 20.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntzeko zereginen artean, Zainduz programak honako hauek garatu ditu: elkarri laguntzeko talde bat, laguntza psikosoziala etxean (banakakoa, familiarra eta gizarte- eta komunitate-mailakoa) , eta inguruneko egokitzapenei eta etxean eguneroko bizimoduko jardueretarako entrenamendu-jarraibideei buruzko aholkularitza, 39 lagun artatuta.

**b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE)**

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arretaren kostua finantzatzen laguntzera bideratuta dago, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kanpo, eguneko zentroetan edo eguneko arretarako zentroetan eta egoitzetan, onuradunak ezarritako eskakizunak betetzen dituenean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioa jasotzeko eskubidea duenean, baina betiere Arabako Foru Aldundiko mendeko zerbitzu publikoen eta itunduen sarean artatu ezin denean, plazarik ez dagoelako.

2024an, 1.812 pertsonak jaso zuten laguntza hau, % 70,2 emakumeak izanik. Pertsona guztietatik 40k egoitzetako eta etxebizitza komunitarioetako eguneko arreta-zerbitzua jaso zuten; 94k, eguneko zentroetako eguneko arreta; 173k, etxebizitza komunitarioetako egonaldiak; eta 1.505k egoitzetako egonaldiak. Ekitaldiaren amaieran, aurreko urteetatik etorritako emakidak batuta, 1.211 pertsonak jaso zuten laguntza, eta horietatik % 72,1 emakumeak ziren.

**c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, atsedenaldi-modalitatean, mendekotasuna duten pertsonak sare publikokoak ez diren egoitza-zentroetan eta etxebizitza komunitarioetan aldi baterako sartzeko**

Egoitza-zentroetan eta etxebizitza komunitarioetan aldi baterako egonaldia egiteko atseden-zerbitzuarekin loturiko prestazio ekonomikoak dira, Estatuko udalerri guztietako egoitza eta etxebizitza komunitario pribatuetako aldi baterako egonaldiak sortutako gastuei aurre egiten laguntzeko. Ezarritako mendekotasun-mailaren bat duten pertsonei aitortu ahal zaie, egonaldia egiteko baldintzak betetzen badituzte. Egonaldi/gau horiek urtean 45 egunekoak izan daitezke gehienez, dela jarraian, dela urtean osoan banaturik.

Laguntzaren helburua da mendekotasuna aitortuta duen pertsona bat eskuarki zaintzen duten senideei laguntzea, atseden-egun batzuk behar dituztelako edo etxebizitza eraberritu behar dutelako edo bestelako egoera berezietan daudelako (esate baterako, zaintzailea ospitaleratzea).

2024an, 77 lagunek erabili dute baliabide hau (52 emakumek eta 25 gizonek). Batez beste egindako egonaldia pertsonako 23,4 egunekoa izan da, 40 zentrotan: 32 egoitza, 7 etxebizitza komunitario eta eguneko zentro bat).

**d) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)**

2024ko abenduaren 31n, 702 onuradun ziren (% 74,9 emakumeak), eta urte osoan 489 (% 77,9 emakumeak).

**MENDEKOTASUNAREN LEGEARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN ONURADUNAK (FIZPE, LPPE eta ZLPE)**

| PRESTAZIO-MOTA | Onuradunak 2024 | | | Onuradunak 31/12/2024 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| FIZPE | 2.178 | 2.319 | 4.497 | 1.906 | 1.980 | 3.886 |
| LPPE | 176 | 526 | 702 | 108 | 381 | 489 |
| ZLPE | 540 | 1.272 | 1.812 | 338 | 873 | 1.211 |
| **GUZTIRA** | **2.894** | **4.117** | **7.011** | **2.352** | **3.234** | **5.586** |

# 3.2.6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA

### 3.2.6.1. Indarkeria matxistan espezializatutako arretarako Hegoak Foru-zerbitzua

Hegoak foru-zerbitzuak indarkeria matxistan espezializatutako gizarte-arreta juridikoa eta psikosoziala ematen du. Zerbitzu honek modu integralean jorratzen ditu gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen, esku-hartze psikosozialaren eta, hala badagokio, esku-hartze terapeutikoaren beharrak, baita aholkularitza juridikoko premiak ere, tratu txarren egoeretatik eta sexu-askatasunaren aurkako balizko ekintzetatik eratorriak, edozein eremutan gertatu direla ere.

Bi motatako arreta ematen du:

**a) Emakumeentzako gizarte-arreta juridikoa**, prozesua hasi aurretik, familia-eskubidearekin eta indarkeria matxistarekin loturiko gaietan. Bestalde, indarkeria matxistagatik izaten diren berariazko prozesu juridikoen jarraipenenean ere arreta ematen du. Gasteizen, Laudion eta Amurrion, eta Berehalako Harrera Zentroan, aurrez aurreko arreta ematen du. Telefonoz ere eskaintzen du.

2024an, 360 emakume artatu dira. 292 kasutan, prozesu aurreko orientazio juridikoa eman zitzaien (eskaera berriak ziren denak); gainerako 68 kasuetan, indarkeria matxistagatiko prozesu espezifikoetarako orientazioa.

| INDARKERIA-TIPOLOGIA | Prozesu aurreko orientazio juridikoa jaso duten emakumeak 2024 | Indarkeria-prozesu espezifikoetan artatutako emakumeak 2024 | ARTATUTAKO EMAKUMEAK GUZTIRA 2024 | Prozesu aurreko orientazio juridikoa jaso duten emakumeen kasu berriak 2024 | Indarkeria-prozesu espezifikoetan artatutako emakumeen kasu berriak 2024 | ARTATUTAKO EMAKUME BERRIAK GUZTIRA 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bikotekidearena/ bikotekide ohiarena | 265 | 62 | 327 | 239 | 62 | 301 |
| Familia barrukoa | 27 | - | 27 | 27 | - | 27 |
| Sexuala | - | 6 | 6 | - | 6 | 6 |
| Bestelakoa | - | - | - | - | - | |
| **GUZTIRA** | **292** | **68** | **360** | **266** | **68** | **334** |

**b) Indarkeria matxistaren biktimentzako arreta** (fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa eta/edo soziala, bikotekideak, bikotekide ohiak edo inguruko gizonek egindakoa), helduentzat eta adingabeentzat, eta zeharkako biktimentzat. Helburua da sexu-askatasunaren aurkako tratu txarretatik edo ekintzak eragindako kalte traumatikotik errekuperatzea, autoestimua hobetzea, erasotzaileengandik banantzeko gaitasunak garatzea edo etorkizunean gerta litezkeen eraso-saialdiei aurre egiteko trebetasunak garatzea...

Aurrez aurreko arreta Gasteizen, Laudion, Amurrion, Agurainen, Guardian eta Oionen ematen da.

2024ko ekitaldian, 1.172 emakume eta 168 adingabe artatu dira.

Beste indarkeria-mota batzuk zenbatu gabe, 531 emakume (helduak eta adingabeak) lehen aldiz artatu ziren. 414 bikotekideak edo bikotekide ohiak egindako indarkeriaren biktimak izan ziren; 67, familia barruko indarkeriarenak; 50, sexu-indarkeriarenak % 34,1ek Espainiako nazionalitatea zuten.

| INDARKERIA-TIPOLOGIA | Kasu berriak 2024 | | | 2024en artatutakoak guztira | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | ADINGABEAK | GUZTIRA | EMAKUMEAK | ADINGABEAK | GUZTIRA |
| Bikotekidearena/bikotekide ohiarena | 400 | 14 | 414 | 914 | 20 | 934 |
| Familia barrukoa | 41 | 26 | 67 | 153 | 113 | 266 |
| Sexuala | 38 | 12 | 50 | 105 | 35 | 140 |
| Beste forma batzuk (salerosketa, emakumeen mutilazio genitala edo beharturiko ezkontza) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **479** | **52** | **531** | **1.172** | **168** | **1.340** |

Grafiko honetan, azken urteetan Hegoak foru-zerbitzura laguntza psikosozial espezializatua eskatzera jo duten biktimen kopuruaren bilakaera ageri da:



**Gizon erasotzaileentzako arreta psikosoziala**

Zerbitzu honek, modu osagarrian, arreta psikologikoa ematen die bikotekidearen aurkako jokaera oldarkorrak dituzten gizonei. Gizonok borondatez eskatzen dute laguntza hau, jakiteko zein diren tratu txarrak ematera eraman dituzten faktoreak, eta jokaera horiek aldatzeko eta etorkizunean erasoak saihesteko trebetasunak garatzeko, bai eta, hala dagokionean, familia- edo bizikidetza-nukleotik izan duten banaketa errespetatzeko.

| KASUAK 2024 | 2024an ARTATUTAKO GIZONAK | | |
|---|---|---|---|
| | GIZONAK | ADINGABEAK | GUZTIRA |
| Urte osoan artatutako kasu zaharrak | 21 | 0 | 21 |
| Lehen aldiz artatutako kasua berriak | 33 | 4 | 37 |
| **GUZTIRA** | **54** | **4** | **58** |

### 3.2.6.2. Indarkeria matxistaren biktimentzako egoitza-harrerako baliabideen sarea

Gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartzeak eta psikosozialak egiten dituzten zentroak dira, eta gizarte-laguntza ere ematen dute.

**Berehalako Harrera Zentroa (BHZ)**

Epe laburrerako zentroa da, urte osoan egunean 24 orduz dago irekita eta indarkeria matxistaren biktimei berehalako harrera egiten die; hala, baliabide egokienera bideratu aurretik haien beharrak baloratzeko behar beste denbora egoten dira bertan.

16 lagunentzako lekua du (emakumeak eta haien ardurapeko pertsonak). Hala ere, gehieneko edukiera hori gainditzen bada, beste ostatu bat erabiliko da gaua igarotzeko, non ez dagoen plaza-mugarik eta gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartzea egingo den.

2024an, zentro honetan 81 emakume eta haien ardurapeko 70 adingabe artatu ziren.

Abenduaren 31n, 11 emakume eta haien ardurapeko 5 adingabe ari ziren arreta jasotzen.

**Indarkeria matxistaren biktimentzako tarteko egonaldirako egoitza-harrerako zentroa (CARME)**

Babes- eta ostatu-eskariak betetzeko zentro bat da. Ingurune segurua, denbora eta laguntza egokiak eskaintzen ditu egokitzat jotzen diren aldaketak ezartzeko, egoerari behar bezala aurre egiteko, konfiantza pertsonala berreskuratzeko eta segurtasun-sentimenduak sustatzeko, besteak beste.

17 pertsonarentzako lekua du (emakumeak eta haien ardurapeko pertsonak). 2024an, 19 emakume eta haien ardurapeko 20 adingabe artatu ziren. Abenduaren 31n, 6 emakume eta haien ardurapeko 8 adingabe ari ziren arreta jasotzen.

**Harrera-etxebizitzak**

Ostatu hauek modu subsidiarioan erantzuten diete landa-inguruneko arreta-beharrei. Horretarako, udal-eskumeneko “Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitza” izeneko zorroaren fitxa erabiltzen da.

Aldi baterako 5 harrera-etxebizitza daude eta guztira 24 plaza dituzte, eta udal-titulartasuneko bi etxebizitza GOFErekin hitzartuta daude. Denak dira indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat eta babesgabetasun-egoera larrian dauden eta familiaren etxea utzi behar duten haien ardurapeko pertsonentzat.

2024ko ekitaldian, 20 emakume eta haien ardurapeko 29 pertsona (umeak eta nerabeak) artatu ziren. Abenduaren 31n, 10 emakume eta haien ardurapeko 17 pertsona ari ziren arreta jasotzen.

| ZENTROA | PLAZAK | 2024an ARTATUTAKO PERTSONAK | | | | 2024/12/31n ARTATUTAKO PERTSONAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | E | Ardurapeko pertsonak | | GUZTIRA | E | Ardurapeko pertsonak | | GUZTIRA |
| | | | E/Neskatoak | G/Mutikoak | | | E/Neskatoak | G/Mutikoak | |
| BHZ | 16 | 81 | 36 | 34 | 151 | 11 | 4 | 1 | 16 |
| CARME | 17 | 19 | 8 | 12 | 39 | 6 | 4 | 4 | 14 |
| 1. harrera- etxebizitza (*) | 6 | 5 | 4 | 2 | 9 | 2 | 1 | 3 | 6 |
| 2. harrera- etxebizitza (*) | 2 | 2 | 1 | 2 | 5 | 1 | 0 | 2 | 3 |
| 3. harrera- etxebizitza (*) | 6 | 3 | 2 | 5 | 12 | 2 | 1 | 2 | 5 |
| 4. harrera- etxebizitza (*) | 6 | 2 | 1 | 1 | 4 | 2 | 1 | 1 | 4 |
| 5. harrera- etxebizitza (*) | 6 | 1 | 3 | 2 | 6 | 1 | 3 | 2 | 6 |
| 6. harrera- etxebizitza (udal-titulartasuna) | 6 | 4 | 1 | 0 | 5 | 1 | 0 | 0 | 1 |
| 7. harrera- etxebizitza (udal-titulartasuna) | 5 | 3 | 3 | 2 | 8 | 1 | 1 | 0 | 2 |
| **GUZTIRA** | **70** | **120** | **59** | **60** | **239** | **27** | **15** | **15** | **57** |

**(*)** *Esku-hartze psiko-hezitzaileko eta psikosozialeko zerbitzuak eman zuen arreta (SISEP).*

### 3.2.6.3. Esku-hartze psiko-hezitzaileko eta psikosozialeko zerbitzua (SISEP)

Indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko zerbitzua da, harrera-etxebizitzetan (bertan dauden guztiek dute eskuragarri) eta norbanakoen etxean ematen dena.

2024an, 22 emakumeri eta haien ardurapeko 13 pertsonari lagundu zitzaien; horietatik 15 kasu berriak izan ziren.

| ZERBITZUAREN IZENA | 2024an ARTATUTAKO PERTSONAK (*) | | | 2024/12/31n ARTATUTAKO PERTSONAK (*) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | E | Ardurapeko pertsonak | GUZTIRA | E | Ardurapeko pertsonak | GUZTIRA |
| SISEP | 22 | 13 | 35 | 10 | 10 | 20 |

**(*)** *1., 2., 3., 4. eta 5. harrera-etxebizitzetan artatutako pertsonak barne.*

### 3.2.6.4. Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko Tximeletak zentroa

Zerbitzu publikoa eta doakoa da, sexu-indarkeria jasan eta gero bizirik atera diren emakumeei laguntza espezializatua emateko, urte osoan 24 orduz, erasoa iraganean edo gaur egun gertatu izan arren. Larrialdi- eta/edo krisi-egoeretan ere artatzen da.

2024ko apirilean irekia, urte bereko abendura arte 149 harrera, 48 esku-hartze sozial, 149 laguntza psikologiko eta 94 esku-hartze juridiko egin ziren.

Abenduaren 31n, 135 emakume ari ziren arreta jasotzen.

| ZERBITZUAREN IZENA | 2024an artatutako emakumeak | 2024/12/31n artatutako emakumeak |
|---|---|---|
| Tximeletak | 149 | 135 |

# 3.2.7. GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEAK

### 3.2.7.1. Egoitza-zentroak

Gaixotasun mental larri eta kronikoa duten pertsonak artatzeko zentro soziosanitarioak dira, pertsona horien gaitasun eta trebetasun pertsonalak eta harremanetakoak hobetzeko prestazioen bitartez, haien garapen pertsonala, ingurune-mailako integrazioa eta parte-hartzea, eta, oro har, bizi-kalitate hobea bultzatzeko.

2024an, 172 lagun artatu ziren (% 34,9 emakumeak).

Urtearen amaieran, 157 pertsonak jaso zuten laguntza egoitza-zentroetan (% 34,4 emakumeak).

| ZENTROA | PLAZAK | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| ABEGIA EGOITZA-UNITATE SOZIOSANITARIOA | 14 | OSAKIDETZAREN eta EJ-KO OSASUN SAILAREN arteko hitzarmena XILEMA FUNDAZIOArekin kontratua | 16 | 4 | 20 | 12 | 2 | 14 |
| HOGAR ALAVÉS egoitza | 30 | HOGAR ALAVÉSekin kontratua | 20 | 8 | 28 | 19 | 7 | 26 |
| SAN IGNACIO egoitza | 26 | | 17 | 10 | 27 | 17 | 9 | 26 |
| MENTALIA egoitza | 10 | MENTALIA SALUDekin kontratua | 8 | 2 | 10 | 7 | 2 | 9 |
| ERANTSI egoitza | 23 | ERANTSI ELKARTEArekin kontratua | 17 | 10 | 27 | 16 | 9 | 25 |
| ORTIZ DE ZÁRATE laguntzadun etxebizitza | 9 | | | | | | | |
| SIERVAS DE JESÚS etxebizitza lagundua | 8 | ERAIKI BIDE FUNDAZIOArekin hitzarmena | 15 | 8 | 23 | 15 | 8 | 23 |
| FLORIDA etxebizitza lagundua | 7 | | | | | | | |
| LOS HERRÁN etxebizitza lagundua | 8 | | | | | | | |
| HUNTZADAR laguntzadun etxebizitza | 11 | BETI GIZARTEAN FUNDAZIOAREKIN hitzarmena | 5 | 5 | 10 | 5 | 5 | 10 |
| ZUREKIN etxebizitza lagundua | 6 | | 0 | 4 | 4 | 0 | 4 | 4 |
| BEGIRA etxebizitza lagundua | 6 | AyGrekin kontratua | 2 | 3 | 5 | 2 | 3 | 5 |
| AUKERA etxebizitza lagundua | 3 | BETI GIZARTEAN FUNDAZIOArekin hitzarmena | 3 | 1 | 4 | 3 | 0 | 3 |
| OLAGIBEL etxebizitza lagundua | 9 | EULENekin kontratua | 7 | 3 | 10 | 6 | 3 | 9 |
| AIALA etxebizitza lagundua | 3 | ASASAMekin hitzarmena | 2 | 2 | 4 | 1 | 2 | 3 |
| GUZTIRA | 173 | | 112 | 60 | 172 | 103 | 54 | 157 |

### 3.2.7.2. Autonomia-mugetatik eratorritako beharrei erantzuteko eguneko zentroak eta gaixotasun mentala duten pertsonentzako zentro okupazionala

Eguneko zentroa antolatutako eta koordinatutako ekintzen multzoa da, kolektibo honi arreta gaitzaile integrala ematen diena, ahal den heinean pertsona horien gaitasun pertsonal eta soziala, autonomia eta gizarte-inklusioa errazteko.

Zentro okupazionalak, bizitza sozialean haien parte-hartze aktiboa ahalbidetzeaz gain, ekoizpen-jardueraren inguruan jarduteko garapen pertsonaleko programak ezartzen ditu, ahal den neurrian lana lortu ahal izatea errazteko.

2024an, 29 pertsona artatu dira eguneko zentroan (% 81,5 gizonak), eta 38 zentro okupazionaletan (% 60,5 gizonak).

2024. urtearen bukaeran, 27 pertsona artatu ziren eguneko zentroetan (% 82,8 gizonak), eta 37 zentro okupazionaletan (% 59,5 gizonak).

| ZENTROA | PLAZAK | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| **EGUNEKO ZENTROAK** | **30** | | **24** | **5** | **29** | **22** | **5** | **27** |
| ARGIBIDE eguneko zentroa | 35 (*) | ASAFESekin hitzarmena | 24 | 5 | 29 | 22 | 5 | 27 |
| **ZENTRO OKUPAZIONALAK** | **35** | | **23** | **15** | **38** | **22** | **15** | **37** |
| GASTEIZ zentro okupazionala | 10 | ASAFESekin hitzarmena | 8 | 5 | 13 | 8 | 5 | 13 |
| AIALA zentro okupazionala | 25 | ASASAMekin hitzarmena | 15 | 10 | 25 | 14 | 10 | 24 |
| **GUZTIRA** | **65** | | **47** | **20** | **67** | **44** | **20** | **64** |

**(*)** *25 plaza lanaldi osoan, 5 plaza goizeko lanaldi erdian eta 5 plaza arratsaldeko lanaldi erdian, jantokia barne edo ez.*

### 3.2.7.3. Esku-hartze psiko-hezitzaileko programa

Gaixotasun mentalaren ondorioz zenbait muga dituzten pertsonentzako laguntza-programa dinamiko eta malgua da, beren komunitatean eta bizitzako alor guztietan modu autonomoan molda daitezen eta aktiboki parte har dezaten errazteko.

Urte osoan, 88 pertsonak (% 59,1 gizonak) hartu dute parte programa psiko-hezitzailean, eta abenduaren 31n 73 zeuden (% 38,4 emakumeak).

| PROGRAMA | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| Esku-hartze psiko-hezitzailea etxean | ASAFESekin hitzarmena | 52 | 36 | 88 | 45 | 28 | 73 |
| **GUZTIRA** | | **52** | **36** | **88** | **45** | **28** | **73** |

#### 3.2.7.4. Beste jarduera batzuk

Beste programa batzuk ere badaude gaixotasun mentala duten pertsonentzat. Hauek dira nabarmenenak:

| PROGRAMA | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak/ Parte-hartzaileak 2024 | | |
|---|---|---|---|---|
| | | G | E | GUZTIRA |
| Gaixotasun mentala dutenen pertsonen prebentziorako eta haien autonomia pertsonala eta gizarte-inklusioa sustatzeko zerbitzuak | ASAFESekin hitzarmena | 262 | 192 | 454 |
| Sustapen eta parte-hartze soziala | | 221 | 367 | 588 |
| Lan-munduan lagunduta txertatzeko programa (PILA) | | 74 | 120 | 194 |
| ZAINDUZ atseden-programa | | 33 | 19 | 52 |
| Sustapen eta parte-hartze soziala Aiaran eta inguruko udalerrietan | ASASAMekin hitzarmena | 45 | 65 | 110 |
| Aiaran eta inguruko udalerrietan gaixotasun mentala dutenen pertsonen prebentziorako eta haien autonomia pertsonala eta gizarte-inklusioa sustatzeko zerbitzuak | | 75 | 63 | 138 |
| **GUZTIRA** | | **710** | **826** | **1.536** |

Gainera, GOFEk eta zenbait elkartek hitzartutako egoitza-zerbitzuetako langileei eta gizarte-informazio eta -arreta bulegoetako langileei zuzeneko kudeaketaren bidez osasun mentalarekin loturiko gaien gaineko aholkularitza psikologikoa ematen jarraitu da.

## 3.2.8. GIZARTERATZEA

#### 3.2.8.1. Gizarte-bazterkeriaren balorazioa eta diagnosia

Zerbitzu honek irizpide komunekin baloratzen ditu pertsona zaurgarrien bazterkeria-egoerak (askotariko mailak, arina, tartekoa edo larria) edo bazterkeria-egoeran izateko arriskuan daudenak. Bakoitzak behar dituen esku-hartze mailak zehaztu, eta banakako esku-hartzea planifikatzen du.

Honako hauek biltzen ditu:

- Balizko bazterkeria-egoerekin eta konponbideekin lotutako eskaerak edo beste erakunde batzuek jakinarazitako egoerak baloratzea.
- Gizarte-diagnosi espezializatuak egitea eta eskatzaileak Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuko baliabideetara bideratzea eta/edo, hala badagokio, beste arreta-sistema edo -politika batzuetara bideratzea.

2024ko ekitaldian, 64 kasu baloratu dira (40 gizonenak, 22 emakumerenak eta 2 pertsona ez-bitarrenak). Haietatik % 92,2 tarteko gizarte-bazterkeria eta gizarte-bazterkeria larria pairatzen ari ziren.

Azken 8 urteetan, 256 balorazio egin dira: 153 gizoni, 101 emakumeri eta 2 pertsona ez-bitarri. Baloratutako emakumeen % 30,7k eta gizonen % 22,9k inklusio- eta arrisku-diagnosia dute. Emakumeen % 11,9 eta gizonen % 10,5 bazterkeria-egoera arinean daude. Era berean, emakumeen % 28,7k eta gizonen % 37,3k tarteko bazterkeria-diagnosia dute, eta emakumeen gainerako % 28,7 eta gizonen % 29,4 bazterkeria-egoera larrian daude.

| URTEA | Inklusioa | | Bazterkeria-egoera | | Bazterkeria arina | | Tarteko bazterkeria | | | Bazterkeria larria | | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | G | E | G | E | G | E | Ez bitarra | G | E | Ez bitarra | |
| 2017 | 0 | 0 | 3 | 0 | 1 | 1 | 2 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 10 |
| 2018 | 0 | 1 | 5 | 0 | 3 | 2 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 15 |
| 2019 | 2 | 7 | 12 | 16 | 4 | 4 | 4 | 5 | 0 | 0 | 1 | 0 | 55 |
| 2020 | 2 | 1 | 3 | 1 | 2 | 1 | 8 | 0 | 0 | 2 | 1 | 0 | 21 |
| 2021 | 0 | 0 | 0 | 2 | 1 | 1 | 4 | 3 | 0 | 5 | 0 | 0 | 16 |
| 2022 | 0 | 0 | 2 | 1 | 3 | 2 | 14 | 2 | 0 | 10 | 5 | 0 | 39 |
| 2023 | 1 | 0 | 2 | 1 | 1 | 1 | 7 | 8 | 0 | 6 | 9 | 0 | 36 |
| 2024 | 0 | 0 | 3 | 1 | 1 | 0 | 14 | 8 | 1 | 22 | 13 | 1 | 64 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **5** | **9** | **30** | **22** | **16** | **12** | **57** | **29** | **1** | **45** | **29** | **1** | **256** |
| **GUZTIRA** | **14** | | **37** | | **25** | | **87** | | | **75** | | | **256** |

2024an baloratutako pertsonen batez besteko adina 49 urtekoa izan da emakumeen artean, 48koa gizonen artean eta 45ekoa ez-bitarren artean. Halaber, baloratutako pertsonen % 48,44k % 33tik gorako desgaitasuna dute.

### 3.2.8.2. Bazterkeria- eta marjinazio-egoeran bizi diren pertsonentzako egoitzak

Bizikidetza-zentroak dira, bazterkeria-egoeran dauden eta narriadura pertsonal, sozial eta harremanetarako arazo larriak dituzten pertsonei ostatu-zerbitzua emateko, non tarteko mailako edo maila handiko laguntzak emanez haien gizarte-inklusiorako esku-hartzeak egiten diren.

#### Egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitza-zentroa

Egoera kronifikatuan dauden eta narriadura pertsonala duten pertsonentzako epe luzerako zerbitzua da, gizarte-inklusioaren ikuspegia esku hartzeko erritmo motelarekin uztartzen duena.

Guztira, 14 plaza ditu. 2024an, 22 gun artatu dira, horietatik % 68,2 gizonak izanik. Abenduaren 31n, 13 lagun zeuden, % 38,5 emakumeak.

#### Gizarte-inklusiorako etxebizitza lagunduak

Tarteko mailako laguntza psikosozialeko zerbitzua, Housing First (lehenbiziko gauza, etxea) metodologia darabilena, errekuperazio pertsonaleko edo inklusioko prozesuetan laguntza indibidualizatua emanez komunitatean bizitzea ahalbidetzeko, emakumeentzat zein gizonentzat.

Ireki zenetik, 3 emakume eta 2 gizon artatu dira. Abenduaren 31n, 4 lagun ari ziren arreta jasotzen, % 50 emakumeak izanik. Gizarte-bazterkeria larrian dauden beste 12 pertsonari ere (10 gizon eta 2 emakume) lagundu zaie.

| ZENTROA | PLAZAK | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| BESARKADA ETXEA egoitza | 14 | HIESAREN AURKAKO HERRI BATZORDEArekin hitzarmena | 15 | 7 | 22 | 8 | 5 | 13 |
| Gizonentzako Housing First etxebizitza lagundua | 2 | IRSErekin kontratua | 2 | 0 | 2 | 2 | 0 | 2 |
| Emakumeentzako Housing First etxebizitza lagundua | 2 | | 0 | 3 | 3 | 0 | 2 | 2 |
| **GUZTIRA** | **18** | | **17** | **10** | **27** | **10** | **7** | **17** |

### 3.2.8.3. Gizarte-bazterkeriaren ondoriozko beharrizanei erantzuteko zerbitzua

Oinez eguneko zerbitzuak hurbiltasuneko ekipamenduak dira, malguak, landa-eremuan banatuak eta pertsona oinarrizko alorretan gaitzeko helburua dutenak, hala nola alfabetatzean, digitalizazioan, jardun balioaniztunean edo lanbideetan, besteak beste. Lurraldearen ezaugarrietara eta pertsonen behar espezifikoetara egokitutako prestakuntza-jarduerak garatzen ditu, eta laguntzako gizarte-prestazio osagarria ezartzen du.

2024an, 350 emakume eta 128 gizon artatu dira, eta urtearen bukaeran 94 gizon eta 235 emakume zeuden oraindik.

| OINEZ LANDA-INGURUNEKO EGUNEKO ZERBITZUAK | Kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| AIARA | 8 | SARTUrekin kontratua | 10 | 75 | 85 | 8 | 72 | 80 |
| ARABAKO IPAR-EKIALDEA | | IRSErekin kontratua | 54 | 143 | 197 | 34 | 56 | 99 |
| ARABAKO HEGOALDEA | | IRSErekin kontratua | 64 | 132 | 200 | 52 | 107 | 159 |
| **GUZTIRA** | **8** | | **128** | **350** | **482** | **94** | **235** | **338** |

Berrikuntza gisa, abenduaren 12an gizarte-bazterkeriako egoeran edo hori jasateko arriskuan dauden emakumeek, erakunde publikoek eta hirugarren sektoreko erakundeek beren ezagutzak trukatzeko eta guztiak elkartzeko lehen laborategia egin zen, esku hartzeko beharren eta metodologien gainean hausnartzeko xedez, eta bertan ALHko landa-inguruneko 110 emakumek hartu zuten parte.

### 3.2.8.4. Gizarteratzea sustatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko programak

Ekintzetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioak garatzen dira (orientazioa, arreta pertsonala, hezkuntza-arloko esku-hartzea, esku-hartze okupazionala, esku-hartze psikosoziala, etab.) eta egoera zailetan dauden pertsonei eta prestazioak ematen dituzten erakundeen esku hartzeko filosofiari egokituta egoten dira.

| PROGRAMA | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | G | E | EZ BITARRA | GUZTIRA |
| Droga menpekotasuna zuten pertsonen integrazioa | JEIKI FUNDAZIOArekin hitzarmena | 172 | 37 | 0 | 209 |
| Nahikari: prostituzioaren arloko arreta integrala | HIESAREN AURKAKO HERRI BATZORDEArekin hitzarmena | 0 | 759 | 119 | 878 |
| Ijitoen kolektiboarentzako jarduerak eta arreta integrala | GAO LACHO DROM ELKARTEArekin hitzarmena | 427 | 532 | 0 | 969 |
| Ijito toxikomanoak eta toxikomano ohiak gizarteratzeko, errehabilitatzeko eta prebentziorako programa | GAO LACHO DROM ELKARTEArekin hitzarmena | 128 | 56 | 0 | 184 |
| Gazte, emakume eta familia ijitoen aurreprestakuntza eta gizarte-inklusioa | GAO LACHO DROM ELKARTEArekin hitzarmena | 110 | 113 | 0 | 223 |
| Gizarte-inklusioa lanean hasi aurreko tailerren, baratze-tailerren eta tailer okupazionalen bidez | GASTEIZKO ELIZBARRUTIKO CÁRITASekin hitzarmena | 211 | 45 | 0 | 256 |
| SENDOTU ALDI BEREAN proiektua, lan-merkatutik baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden emakume eta gizonen enplegagarritasuna, gizarte-inklusioa eta haien arteko berdintasuna sustatzeko | SENDOTU ALDI BEREAN ELKARTEArekin hitzarmena | 10 | 20 | 0 | 30 |
| **GUZTIRA** | | **1.058** | **1.562** | **119** | **2.749** |

### 3.2.8.5. Gizarte-erantzunkidetasuneko beste programa batzuk

Zeharkako jarduketak dira, honako hauek lortzera bideratuak:

- Pertsonei eta familiei zaurgarritasun-egoerak sortzen dizkieten substantzia eta portaera adiktiboen erabilera murriztea eta/edo saihestea (prebentzio orokorra, selektiboa eta egokia).
- Hauskortasun-egoeran dauden eta beren ardurapeko adingabeak eta mendekotasuna duten adinekoak zaintzeko laguntza behar duten pertsonen laneko bizitzaren, familiakoaren eta pertsonalaren kontziliazioa erraztea.
- Gizarteratze-ibilbideak egiteko, hirira joatea erraztea.
- Lurralde-oreka sustatzea.
- Gizarte-boluntariotza suspertzea.

| PROGRAMA | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | |
|---|---|---|---|---|
| | | G | E | GUZTIRA |
| HAZGARRI: nerabe, gazte eta/edo familientzako arreta eta laguntza | JEIKI FUNDAZIOArekin hitzarmena | 60 | 54 | 114 |
| Ludopatiaren gaineko informazioa, prebentzioa eta orientazioa. Prebentzio egokitua | ASAJER ERREHABILITATZEN ARI DIREN JOKALARIEN ARABAKO ELKARTEArekin hitzarmena | 297 | 212 | 509 |
| ETXEZAIN: kudeaketa- eta zerbitzu-irtenbideak landa-eremuko emakumeen inklusiorako | ARABAKO LANDA-INGURUNEKO EMAKUMEEN SAREArekin hitzarmena | 0 | 151 | 151 |
| Landa-eremuko gizarte-ekintzen koordinazioa | GASTEIZKO ELIZBARRUTIKO CÁRITASekin hitzarmena | 198 | 344 | 542 |
| Landa-eremuko gizarte-ekintzen koordinazioa | ARABAKO GURUTZE GORRIArekin hitzarmena | 505 | 352 | 857 |

Zeharkako kudeaketako jarduketez gain, GOFEk prebentzio komunitarioko lantaldea du landa-ingurunean, zeinak herritarren arrisku-faktoreen aurrean babes-faktoreak sustatzen dituen adikzioak eta bazterkeria prebenitzeko. 2024an, Adikzioak Prebenitzeko Tokiko Planeko jarduera hauek egin dira, besteren artean:

| LAN-ARDATZA | PROGRAMA | PROGRAMA KOPURUA | SAIO KOPURUA | E | G | PARTE-HARTZEA, GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GAIKUNTZA-PROGRAMA | Aurrez-aurreko prestakuntza | 16 | 51 | 690 | 108 | 798 |
| | Online prestakuntza | 1 | 6 | 68 | 13 | 81 |
| | Irrati-podcasta | 1 | 17 | - | - | 2.627 deskarga |
| | Eskualdeko topaketa | 1 | 1 | 64 | 20 | 84 |
| | Gasteizko era Arabako eskolen arteko topaketa | 1 | 1 | - | - | 450 (*) |
| AHALDUNTZE PROGRAMA | Preben-Familia | 11 | 31 | 415 | 108 | 523 |
| **GUZTIRA** | | **31** | **107** | | | **1.936 parte-hartzaile eta 2.627 deskarga** |

*(*) Sexuaren araberako jasoketarik ez.*

**PREBENTZIO UNIBERTSALA ETA SELEKTIBOA**

**HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA**

| LAN-ARDATZA | PROGRAMA | LANDUTAKO GAIAK | Udalerria k. (*) | Ikastetxeak (*) | Saioak (*) | Partaideak (*) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA | Adikzioa eragiten duten substantziei buruzko prebentzio-tailerrak | Tabakoaren prebentzioa | 7 | 7 | 14 | 337 |
| | | Kerik Gabeko Gazteak | 3 | 3 | | 81 |
| | Jokabide-adikzioei buruzko prebentzio-tailerrak | Ongizate digitala: kudeaketa teknologikoa, sare sozialak... | 7 | 7 | 38 | 301 |
| | Gizarte-trebetasunei eta kudeaketa emozionalari buruzko prestakuntza-tailerrak | Bizikidetza, gatazken konponbidea, talde-kohesioa | 10 | 10 | 116 | 800 |
| | | Frustrazioarekiko tolerantzia eta emozioen kudeaketa | 5 | 5 | 32 | 225 |
| | | Eskola-jazarpena/ bullyinga | 5 | 6 | 6 | 450 |
| | | Sexu- eta afektibitate-hezkuntza | 13 | 15 | 177 | 963 |
| **GUZTIRA** | | | **50** | **53** | **383** | **3.157** |

*(*) Udalerriren, ikastetxeren edo partaideren bat errepikatuta egon daiteke.*

## PREBENTZIO UNIBERTSALA ETA SELEKTIBOA

### BIGARREN HEZKUNTZA, BATXILERGOA, LANBIDE-HEZIKETA

| LAN-ARDATZA | PROGRAMA | LANDUTAKO GAIAK | Udalerria k. (*) | Ikastetxeak (*) | Saioak (*) | Partaideak (*) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA | Adikzioa eragiten duten substantziei buruzko prebentzio-tailerrak | Alkohola, tabakoa eta kalamua | 3 | 4 | 38 | 628 |
| | | Plazeren eta arriskuen kudeaketa | 2 | 2 | 3 | 92 |
| | | Kerik Gabeko Gazteak | 3 | 3 | | 107 |
| | Jokabide-adikzioei buruzko prebentzio-tailerrak | Ongizate digitala: kudeaketa teknologikoa, sare sozialak... | 4 | 5 | 55 | 821 |
| | | Ludopatia, apustuak eta ausazko jokoak | 3 | 3 | 10 | 268 |
| | | Mendekotasun-jokabideak arte eszenikoen bidez | 3 | 3 | 4 | 106 |
| | Gizarte-trebetasunei eta kudeaketa emozionalari buruzko prestakuntza-tailerrak | Bizikidetza, gatazken konponbidea, talde-kohesioa eta bullyingaren prebentzioa | 6 | 7 | 31 | 612 |
| | | Ongizate emozionala eta osasun mentala | 8 | 9 | 35 | 446 |
| | | Sexu- eta afektibitate-hezkuntza | 5 | 6 | 164 | 744 |
| **GUZTIRA** | | | **37** | **42** | **340** | **3.824** |

*(*) Udalerriren, ikastetxeren edo partaideren bat errepikatuta egon daiteke.*

| MOTA | LAN-ARDATZA | PROGRAMA | MOTA | Udalerriak (*) | Partaideak (*) |
|---|---|---|---|---|---|
| PREBENTZIO UNIBERTSALA | 1. ARDATZA. GIZARTE-BITARTEKARITZAKO AGENTEENTZAKO GAIKUNTZA | Prestakuntza | Adikzioen prebentzioari buruzko prestakuntza | 2 | 17 |
| PREBENTZIO SELEKTIBOA | 1. ARDATZA. BERDINEN ARTEKO TREBAKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOA | Trebakuntza- eta prestakuntza-programa | Scape Room | 12 | 277 |
| | 2. ARDATZA. PLAZEREN ETA ARRISKUEN KUDEAKETA | Lonjetan eta ingurune irekian esku hartzeko programa | Lonja-Laket | 1 | 9 |
| | | | Ingurune irekiko esku-hartzea | 1 | 40 |
| | | Prebentzio- eta informazio-programak jai-inguruneetan | Preben-Jaia | 4 | 888 |
| | | | Preben-Gazte | 17 | 2.180 |
| | 3. ARDATZA. EDARI ALKOHOLDUNAK ARDURAZ BANATZEKO PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZARAKO ESKU-HARTZEA | Edari alkoholdunak modu arduratsuan banatzeko DRA/ABA programa | Preben-Gazte | 5 | 45 |
| | | | Preben Uda Splash | 11 | 16 gune |
| PREBENTZIO EGOKIA | 1. ARDATZA. SUBSTANTZIEN KONTSUMOARI LOTUTAKO ARRISKUEN MURRIZKETA | Info-Drogak programa | Testing Drogak | 3 | 302 |
| **GUZTIRA** | | | | **56** | **3.758** |

*(*) Udalerriren, ikastetxeren edo partaideren bat errepikatuta egon daiteke.*

# 3.2.9. ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZAK

Laguntzen deialdia eta dirulaguntzen banaketa gizarte-ongizaterako ekintza orokorraren esparruan daude, irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuak herritarrei gizarte-zerbitzu egokiak ematen lagun dezan, Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoak direnen osagarri gisa.

Hauek dira helburu orokorrak:

- Arabako landa-eremuan gizarte-ongizatea sustatzea.
- Herritarren elkartasuna eta parte-hartzea areagotzea, gizarte-zerbitzuen jardueraren xede nagusi diren pertsonen eta gizataldeen gizarte-sustapena bultzatzeko.
- Kolektibo behartsuen edo bazterkeria-arriskuan daudenen ahalik eta gizarteratzerik handiena bultzatzea, eta gizarte-zerbitzuen ekintzetan lehentasuna duten pertsonen parte-hartzea eta gizarte-inklusioa sustatzeko jarduerak egitea, pertsona horiek baliabide komunitario arruntetara bideratzeko, ez espezifikoetara.

Erakundeentzako laguntzen esparruan, 3 deialdi egin eta ebatzi ziren, hauxe lortzeko:

- Gizarte-zerbitzuetako elkarteak eta fundazioak mantentzen laguntzea.
- Arabako Lurralde Historikoko gizarte-zerbitzuen alorreko programak eta jarduerak garatzea.
- Arabako hirugarren sektore sozialeko erakundeen jarduerak eta/edo programak garatzeko gizarte-lokalak birgatzea eta egokitzea, bai eta beharrezko ekipamenduaz hornitzea ere.

2024ko ekitaldian, 202 laguntza eman zitzaien 127 elkarteri. Taula honetan, horien xehetasunak bildu dira, xedearen arabera.

| DIRULAGUNTZEN XEDEA | Biztanleria-sektorea | Elkarteak/ Fundazioak |
|---|---|---|
| Programak eta jarduerak | Desgaitasuna duten pertsonak | 19 |
| | Adinekoak | 26 |
| | Gaixotasun mentala | 1 |
| | Adingabeak eta familia | 5 |
| | Gizartean esku hartzea eta gizarteratzea | 8 |
| | **GUZTIZKO PARTZIALA** | **59** |
| Hirugarren sektoreko erakundeen mantentzea | Desgaitasuna duten pertsonak | 24 |
| | Adinekoak | 2 |
| | Gaixotasun mentala | 1 |
| | Adingabeak eta familia | 4 |
| | Gizartean esku hartzea eta gizarteratzea | 6 |
| | **GUZTIZKO PARTZIALA** | **37** |
| Elkarteen lokalen birgaikuntza eta ekipamendua | Desgaitasuna duten pertsonak | 8 |
| | Adinekoak | 13 |
| | Gaixotasun mentala | 1 |
| | Adingabeak eta familia | 1 |
| | Gizartean esku hartzea eta gizarteratzea | 8 |
| | **GUZTIZKO PARTZIALA** | **31** |
| | **GUZTIRA** | **127** |

**EMANDAKO LAGUNTZAK BIZTANLERIA-SEKTOREEN ARABERA (2024)**



# 3.3. ADINEKOEN ARLOA

Adinekoen Arloan sartzen eta garatzen den zerbitzu- eta programa-sortaren helburu orokorra da Arabako adinekoen bizi-kalitateari eustea eta ahalik eta gehien hobetzea. Baliabideak dira, nagusiki, mendekotasun-graduagatik edo autonomiarik ezagatik beren oinarrizko beharrak hirugarren pertsona baten laguntzarik gabe ase ezin dituzten pertsonentzat.

## 3.3.1. ADINEKOEN ARLOAREN ANTOLAMENDUA




** Kudeaketa itundua/hitzartua*
*** Udal-kudeaketa/foru-finantzaketa*

| ZERBITZUA | Lanpostua | 2024 |
|---|---|---|
| Arloko zuzendaritzaordetza teknikoa | Adinekoen Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| | Zentroko arduraduna | 1 |
| | Gizarte-koordinatzailea | 1 |
| | Zuzendariordetza teknikoko idazkaria | 1 |
| | Gizarte-langilea | 1 |
| | Programetako erdi-mailako teknikaria | 1 |
| | Erizaintzako koordinatzailea | 1 |
| | Egoitzako medikua | 7 |
| | Errehabilitazioko medikua | 1 |
| | Psikiatra | 1 |
| | Psikologoa | 3 |
| | **Guztira Zuzendariordetza Teknikoan** | **19** |
| Egoitzak | A egoitzako zuzendaria | 3 |
| | B egoitzako zuzendaria | 3 |
| | Egoitzako zuzendaria | 3 |
| | Erizain gainbegiralea | 7 |
| | Erizaina | 75 |
| | Fisioterapeuta | 6 |
| | Terapeuta okupazionala | 2 |
| | Gizarte-langilea | 9 |
| | Mandataria | 2 |
| | Egoitzako sukaldaria | 7 |
| | Administraria | 6 |
| | Erizaintzako laguntzailea | 358 |
| | Aisialdi eta denbora libreko begiralea | 3 |
| | Sukaldeko laguntzailea | 32 |
| | Mantentze-lanetako ofiziala | 6 |
| | Telefonista harreragilea | 8 |
| | Zerbitzuetako laguntzailea | 28 |
| | **Guztira egoitzetan** | **558** |
| Eguneko zentroak | Eguneko zentroko erizain arduraduna | 8 |
| | Gizarte-langilea | 3 |
| | Erizaintzako laguntzailea | 54 |
| | **Guztira eguneko zentroetan** | **65** |
| | **ADINEKOEN ARLOKO LANGILEAK GUZTIRA** | **642** |

## 3.3.2.
## ADINEKOEN ARLOKO ZERBITZU OROKORRA

Programa honen barruan, Adinekoen Arloko Zuzendariordetzari eta Zerbitzu Komun edo Orokorrei dagokien zuzkidura dago. Helburu nagusia da bere ardurapeko zerbitzuak eta programak koordinatzea, horien antolaketaz, kudeaketaz eta jarritako helburuak betearazteaz arduratzea, eta zerbitzu-eskaria eta dagozkion baliabideen esleipena ebaluatzea.

## 3.3.3.
## EGOITZAK, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK ETA EGUNEKO ZENTROAK

Egoitzek, etxebizitza komunitarioek eta eguneko zentroek adinekoei bizikidetza-giroa eskaintzea dute helburu, pertsona horien ohiko bizitokiaren ordezko edo osagarri gisa. Horrela, haien ongizateari eusten eta ahalik eta gehien hobetzen lagundu nahi da, eta bizitza komunitarioan parte hartzen dutela sustatu. 2024ko ekitaldian, arreta iraunkorreko 1.650 plaza izan dira Arloaren zentroetan, bai zuzenean kudeatzen dituenetan bai zeharkako edo itundutako kudeaketa dutenetan (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, eguneko zentroak, asteburuetarako eguneko zentroak eta eguneko arreta).

Urte osoan, egoitza-zerbitzuetan eta eguneko zentroetan plazak esleitu dira, betiere Foru Aldundiaren zentroetako aukerek aukera eman badute. Urtearen amaieran, 1.187 lagunek zuten plaza bat zentro pribatuetan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko batekin, eta 952 pertsona baliabideak berresleitzeko programan zeuden; haietatik % 49 borondatezko geroratze egoeran, eta % 51 eguneko ostatu edo zerbitzu bateko plaza baten zain.

**ITXARON-ZERRENDA**

Egoitza-plazarik, eguneko zentrorik edo zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorik gabeko pertsonak 485 izan dira guztira (% 68,3 emakumeak eta % 31,7 gizonak), eta horien artean:

- 297 pertsona egoitza-zerbitzu batean sartzeko plazaren zain daude (130 egoitza lagundurako eta 167 egoitza psikogeriatrikorako).
- 188 pertsona eguneko zentro batean sartzeko eta eguneko arreta jasotzeko zain daude: 48 eguneko zentro lagundurako; 83 eguneko zentro psikogeriatrikorako; 52 asteburuetarako eguneko zentrorako, atseden hartzeko eta familiari laguntzeko; eta 5 eguneko arretarako landa-zentrorako.

**ITXARON-ZERRENDAREN GARAPENA / BALIABIDEEN BERRESLEIPENA (2010-2024)**




### 3.3.3.1. Egoitzak

Ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkor gisa erabiltzeko zentroak dira, eta, hala badagokio, aldi baterako, betiere II. eta III. graduko mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzat (eta, salbuespen gisa, I. gradua dutenentzat ere bai), baldin eta beren premiak ezin badituzte beren etxean edo familiarenean edo ostatu-aukera arinagoetan ase, maila handiagoko laguntzak behar dituztelako. Orduan, zentro hauetan artapen integral eta jarraitua eskaintzen zaie.

Helburuak hauek dira:

a) Erabiltzaileei eguneroko bizimoduko jarduerak egiteko beharrezko zainketak eta laguntza pertsonala bermatzea, betiere autonomia pertsonalari eusteko ahalegina eginda.
b) Erabiltzaileei laguntza ematea ingurune komunitarioarekiko harremanari eusteko eta bertan parte hartzera bideratutako jarduerak garatzeko, betiere beharrezko sorospena eskainita.
c) Erabiltzaileek familiarekiko, egoitzako beste pertsona batzuekiko eta/edo egoitzatik kanpoko pertsonekiko harremanei eusteko eta horiek areagotzeko ahaleginak egitea, baita, ahal den neurrian, zentroko bizitzan parte hartzera bultzatzea ere.
d) Segurtasun-sentimendua handitzea.

Zentroa edo bertako unitateetako bat edo hainbat osasun- eta gizarte-arreta trinko, aldi baterako, koordinatu eta egonkorra behar duten adinekoentzat erabiltzen denean, zentroak edo unitateak izaera soziosanitarioa izango du.

**a) Plaza propioak**

2024an, 1.012 erabiltzaile egon dira GOFEren egoitza-zentroetan. Samaniego Egoitza itxita egon da, bertako instalazioak berritzeko eta egokitzeko lanen ondorioz.

| ZUZENEKO KUDEAKETAKO EGOITZAK | | Plaza-kop. | Kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| AJURIA | Lagundua<br>Psikogeriatrikoa | 58<br>50 | GOFE | 31 | 102 | 133 | 22 | 79 | 101 |
| LAKUA | Psikogeriatrikoa | 50 | GOFE | 17 | 48 | 65 | 9 | 37 | 46 |
| NUESTRA S[ra]<br>DE LAS VIÑAS | Lagundua | 30 | GOFE | 10 | 29 | 39 | 7 | 20 | 27 |
| SALLURTEGI | Lagundua<br>Psikogeriatrikoa | 25<br>25 | GOFE | 21 | 41 | 62 | 15 | 31 | 46 |
| SAMANIEGO | Lagundua | 0 | GOFE | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| SAN ANTON ARMURU | Lagundua | 39 | GOFE | 15 | 26 | 41 | 11 | 19 | 30 |
| SAN ROQUE | Lagundua<br>Psikogeriatrikoa | 25<br>25 | GOFE | 21 | 44 | 65 | 15 | 32 | 47 |
| TXAGORRITXU | Lagundua<br>Psikogeriatrikoa | 72<br>72 | GOFE | 45 | 135 | 180 | 29 | 99 | 128 |
| ZADORRA | Lagundua<br>Psikogeriatrikoa | 50<br>50 | GOFE | 35 | 88 | 123 | 26 | 62 | 88 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | | **571** | | **195** | **513** | **708** | **134** | **379** | **513** |
| **ZEHARKAKO KUDEAKETAKO EGOITZAK** | | **Plaza-kop.** | **Kudeaketa** | **Erabiltzaileak 2024** | | | **Erabiltzaileak 2024/12/31** | | |
| | | | | **G** | **E** | **GUZTIRA** | **G** | **E** | **GUZTIRA** |
| ARIZNABARRA | Lagundua<br>Psikogeriatrikoa | 110<br>30 | DOMUSVIrekin kontratua | 56 | 121 | 177 | 40 | 93 | 133 |
| ARABARREN | Psikogeriatrikoa | 50 | ARABARREN S. COOP.ekin hitzarmena | 11 | 48 | 59 | 7 | 39 | 46 |
| | Gaixotasun mental zahartua | 25 | | 19 | 8 | 27 | 18 | 7 | 25 |
| | Adimen desgaitasun zahartua | 25 | | 15 | 10 | 25 | 14 | 10 | 24 |
| PABLO NERUDA | Psikogeriatrikoa | 14 | GRUPO 5ekin kontratua | 4 | 12 | 16 | 3 | 11 | 14 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | | **254** | | **105** | **199** | **304** | **82** | **160** | **242** |
| **GUZTIRA** | | **825** | | **300** | **712** | **1.012** | **216** | **539** | **755** |

**b) Plaza itunduak / hitzartuak**

Egoitza-programak, halaber, GOFEk beste erakunde batzuekin hitzartuta dituen egonaldi luzeko plaza batzuk biltzen ditu. Horien artean, San Prudentzio Egoitzako 20 plazak daude, Gasteizko Udalarekin eginiko hitzarmenaren arabera, non San Prudentzio AAZIn egoitza-eredu forala pixkanaka baztertzea jasotzen den.

2023ko abenduaren 31n Gasteizen adinekoentzako egoitza-arretarako plazak dituzten enpresa edo zentroen erakunde titularrak homologatzeko I. Esparru Akordioa amaitu ondoren, 2023ko azaroaren 16an GOFEko Administrazio Kontseiluak II. Esparru Akordioa esleitzea erabaki zuen, eta lehentasun-hurrenkera duten zentroen enpresa edo erakunde titularrak honako zentro hauekin homologatzea onartu: Sanitas Mayores Euskadi, Caser Residencial Alto del Prado, Colisée Miñano eta Igurco Araba. Aipatu esparru-akordioak 4 urteko indarraldia du, 2023ko abenduaren 21etik 2027ko abenduaren 20ra arte.

Gainera (*), I Esparru Akordioaren ondorioz, Albertia egoitza-zentroan 5 erabiltzaile artatzen jarraitzen zen urtearen amaieran. Sanitas egoitzan, berriz, 30 plaza hitzartu dira gaixotasun mentala eta adimen-desgaitasuna duten adinekoentzat.

Era berean, itundutako plazak jarri dira beste zentro pribatu batzuetan: 25 plaza Caser Residencialeko Egoitza Unitate Soziosanitarioa (EUSS) izenekoan, 18 plaza Bernedoko Nuestra Señora de Okón Egoitzan, 4 plaza Aretxabaleta Egoitzan. Baita hitzartutako plazak ere: 8 Murgiako Purísima Concepción Egoitzan eta 6 Alday Fundazioarekin.

Oro har, urte osoan 519 lagunek erabili dituzte itundutako/hitzartutako 311 plaza horiek.

| EGOITZA | Plaza-kop. | Kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| COLISÉE MIÑANO | 45 | LA SALETArekin kontratua | 14 | 42 | 56 | 9 | 35 | 44 |
| ALBERTIA CAMPUS / ALBERTIA CENTRO | -* | ALBERTIA CAMPUS eta ALBERTIA CENTROS GERONTOLÓGICOSekin kontratua | 3 | 6 | 9 | 2 | 3 | 5 |
| SAN MARTÍN | 74 | SANITASekin kontratua | 31 | 59 | 90 | 12 | 36 | 48 |
| ALTO DEL PRADO | 66 | CASER RESIDENCIALekin kontratua | 33 | 65 | 98 | 18 | 42 | 60 |
| IGURCO | 45 | Igurco Araba | 15 | 40 | 55 | 6 | 29 | 35 |
| EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOA – EUSS | 25 | CASER RESIDENCIALekin kontratua | 80 | 58 | 138 | 13 | 10 | 23 |
| ARETXABALETA | 4 | GSRrekin kontratua | 1 | 4 | 5 | 0 | 4 | 4 |
| NUESTRA S^ra^ DE OKON | 18 | GSRrekin kontratua | 6 | 14 | 20 | 6 | 11 | 17 |
| SAN PRUDENCIO | 20 | GASTEIZKO UDALArekin hitzarmena | 7 | 23 | 30 | 5 | 13 | 18 |
| PURÍSIMA CONCEPCIÓN | 8 | HIJAS DE LA CARIDADekin hitzarmena | 3 | 8 | 11 | 2 | 6 | 8 |
| ALDAY | 6 | ALDAY FUNDAZIOArekin hitzarmena | 2 | 5 | 7 | 1 | 4 | 5 |
| **GUZTIRA** | **311** | | **195** | **324** | **519** | **74** | **193** | **267** |

*(*) Albertia egoitza-zentroekin itundutako plazak I. Esparru Akordiokoak ziren. Hura amaituta, ez da plaza hutsik sortu.*

**EGOITZAZKO PLAZEN GARAPENA (2010-2024)**



**c) Eguneko arreta egoitzetan eta etxebizitzetan**

Landa-ingurunean egoitzak eta etxebizitza komunitarioak eskaintzen dituen zerbitzua da, adinekoei egunez arreta emateko, eguneko zentrorik ez dagoen lekuetan, hain zuzen ere. 2024. urtean, 10 lagunek erabili dute baliabide hau.

| EGUNEKO ARRETA | Plaza-kop. | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| NUESTRA Sra DE LAS VIÑAS egoitza | 4 | 2 | 3 | 5 | 1 | 2 | 3 |
| SAMANIEGOko egoitza (*) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| SAN ANTÓN DE ARMURU egoitza | 4 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 |
| KANPEZU etxebizitza komunitarioa | 4 | 2 | 1 | 3 | 2 | 1 | 3 |
| ESPEJO etxebizitza komunitarioa | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| LA BARBACANA etxebizitza komunitarioa | 4 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 |
| **GUZTIRA** | **19** | **4** | **6** | **10** | **3** | **5** | **8** |

** 2024an itxita, obrengatik.*

### 3.3.3.2. Etxebizitza komunitarioak

Egonaldi luze edo iraunkorrerako –edo, salbuespen gisa, aldi baterako– ostatu-zerbitzua dira, mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzat (I. gradua). Langileen laguntza dute zaintza, bitartekaritza, gizarte-sorospen eta ikuskapeneko zereginak betetzeko, eta, hala badagokio, artapen pertsonala edo etxekoa eskaintzeko ere bai.

Helburuak hauek dira:

- Erabiltzaileen egonaldia ingurune komunitarioan erraztea.
- Haien autonomia pertsonalaren maila hobetzea, hari eustea eta/edo modu autonomoan jardutea ahalbidetzeko trebetasun eta gaitasunen galera prebenitzea.
- Isolamendu-egoerak saihestea.
- Segurtasun-sentimendua areagotzea.

5 etxebizitza komunitario daude, udal hauekin hitzartuak: Amurrio, Asparrena, Gaubea, Guardia eta Kanpezu.

| ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| SAN MAMÉS etxebizitza komunitarioa | 8 | AMURRIOKO UDALArekin hitzarmena | 4 | 5 | 9 | 2 | 3 | 5 |
| ASPARRENA etxebizitza komunitarioa | 12 | ASPARRENEKO UDALArekin hitzarmena | 5 | 8 | 13 | 2 | 6 | 8 |
| KANPEZU etxebizitza komunitarioa | 14 | KANPEZUKO UDALArekin hitzarmena | 3 | 11 | 14 | 4 | 5 | 9 |
| ESPEJO etxebizitza komunitarioa | 10 | GAUBEAKO UDALArekin hitzarmena | 6 | 2 | 8 | 4 | 2 | 6 |
| LA BARBACANA etxebizitza komunitarioa | 14 | GUARDIAKO UDALArekin hitzarmena | 15 | 2 | 17 | 10 | 2 | 12 |
| **GUZTIRA** | **58** | | **33** | **28** | **61** | **22** | **18** | **40** |

### 3.3.3.3. Eguneko zentroak

Eguneko arreta-zentroek artapen indibidualizatu eta integrala eskaintzen diete egunez, aldi batez edo iraunkorki, mendekotasun-egoera dauden eta beren beharrak ohiko ingurunean egokiro ase ezin dituzten adinekoei. Izan ere, muga fisiko eta/edo psikiko handiak izan ditzakete eguneroko bizimoduko jarduerak egiteko eta baliabide honek laguntza gisa balia dezaketen familia-ingurunean mantentzen ditu, ohiko ingurunean luzaroago segitzea ahalbidetuta.

Zerbitzuaren xedea da autonomia pertsonalaren maila hobetzea edo hari eustea, muga funtzionalak orekatzea eta ohiko zaintzaileei laguntza ematea, autonomia pertsonalari eusteko eta ingurune komunitarioan parte hartzeko gaitasunak bereganatzera eta garatzera bideratutako prebentzio-, trebakuntza- eta laguntza-prestazioen bidez. 2024an, 527 pertsona izan dira baliabide-mota honen erabiltzaile (% 31 gizonak eta % 69 emakumeak).

Ariznabarra (60 plaza) eta Arabarren (25 plaza) eguneko zentroen, Bizia eguneko zentro psikogeriatrikoaren (35 plaza) eta asteburuetarako Bizia eguneko zentro psikogeriatrikoaren (30 plaza) kudeaketaren administrazio-esleipenari eutsi zaio. Aretxabaletako Egoitzarekin hitzartu da (eguneko arretarako 2 plaza, 4ra hedagarriak).

Arabako Gizarte Zerbitzuen Zorroari eta Mapari buruzko Dekretuarekin bat etorrita, 2017ko urtarriletik aurrera asteburuetarako eguneko zentroko egonaldiak, lagunduak eta psikogeriatrikoak aurreikusten dira, familiari laguntzeko eta atseden hartzeko zerbitzu gisa. 2024ko ekitaldian, 41 pertsona artatu dira zeharkako kudeaketako Bizia eguneko zentro psikogeriatrikoko 30 plazetan. Gainera, urtearen bukaeran, 6 lagun (4 emakume eta 2 gizon) Gasteizko Udalarekin hitzartutako San Prudentzio eguneko zentroko (asteburuetarako) erabiltzaile ziren. 2024/12/31n amaitu zen hitzarmena.

Egoitzetan bezala, eguneko zentroetan ere ematen da aldi laburrez bertaratzeko aukera. Zerbitzu hori normalean adinekoak zaintzen dituzten eta ospitaleratzeagatik edo beste arrazoiren batengatik atsedenaldia behar duten familiei laguntzeko eskaintzen da.

| PLAZA PROPIOAK | Plaza-kop. | Kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| SALLURTEGI eguneko zentro mistoa | 25 | GOFE | 3 | 18 | 21 | 3 | 10 | 13 |
| SAN ROQUE eguneko zentro mistoa | 30 | GOFE | 6 | 36 | 42 | 5 | 23 | 28 |
| TXAGORRITXU eguneko zentro lagundua | 40 | GOFE | 14 | 29 | 43 | 9 | 27 | 36 |
| ZADORRA eguneko zentro lagundua | 30 | GOFE | 20 | 25 | 45 | 11 | 18 | 29 |
| AJURIA eguneko zentro lagundua | 28 | GOFE | 11 | 23 | 34 | 7 | 16 | 23 |
| TXAGORRITXU eguneko zentro psikogeriatrikoa | 33 | GOFE | 10 | 34 | 44 | 6 | 24 | 30 |
| ZADORRA eguneko zentro psikogeriatrikoa | 30 | GOFE | 16 | 29 | 45 | 11 | 19 | 30 |
| AJURIA eguneko zentro psikogeriatrikoa | 12 | GOFE | 5 | 9 | 14 | 3 | 8 | 11 |
| LAKUA eguneko zentro psikogeriatriko | 25 | GOFE | 12 | 16 | 28 | 10 | 15 | 25 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **253** | | **97** | **219** | **316** | **65** | **160** | **225** |
| **ZEHARKAKO KUDEAKETAKO PLAZAK** | **Plaza-kop.** | **Kudeaketa** | **Erabiltzaileak 2024** | | | **Erabiltzaileak 2024/12/31** | | |
| | | | **G** | **E** | **GUZTIRA** | **G** | **E** | **GUZTIRA** |
| ARABARREN eguneko zentro lagundua | 25 | ARABARREN S. COOP.ekin hitzarmena | 10 | 26 | 36 | 5 | 20 | 25 |
| ARIZNABARRA eguneko zentro lagundua | 30 | DOMUSVIrekin kontratua | 9 | 31 | 40 | 6 | 25 | 31 |
| ARIZNABARRA eguneko zentro psikogeriatrikoa | 30 | DOMUSVIrekin kontratua | 19 | 24 | 43 | 12 | 21 | 33 |
| BIZIA eguneko zentro psikogeriatrikoa | 35 | LAGUNDUZ EABErekin kontratua | 15 | 28 | 43 | 12 | 23 | 35 |
| Familiarentzako atseden- eta laguntza-zerbitzua BIZIA eguneko zentro psikogeriatrikoa (asteburuetarako) | 30 | LAGUNDUZ EABErekin kontratua | 12 | 29 | 41 | 8 | 22 | 30 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **150** | | **65** | **138** | **203** | **43** | **111** | **154** |
| **HITZARTUTAKO PLAZAK** | **Plaza-kop.** | **Kudeaketa** | **Erabiltzaileak 2024** | | | **Erabiltzaileak 2024/12/31** | | |
| | | | **G** | **E** | **GUZTIRA** | **G** | **E** | **GUZTIRA** |
| Atseden hartzeko zerbitzua eta familiei laguntzeko SAN PRUDENTZIO lagundutako eguneko zentroa (asteburuetan) | 30 | GASTEIZKO UDALArekin hitzarmena | 17 | 31 | 48 | 2 | 4 | 6 |
| ARETXABALETA eguneko zentroa | 4 | GSRrekin kontratua | 0 | 2 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | **34** | | **17** | **33** | **50** | **2** | **4** | **6** |
| **GUZTIRA** | **437** | | **179** | **390** | **569** | **110** | **275** | **385** |

**PLAZA-KOPURUAREN GARAPENA EGUNEKO ZENTROETAN (2010-2024)**



# 3.3.4. PROGRAMAK

### 3.3.4.1. Lankidetza hitzarmenak

Zentroak kudeatzeko hainbat erakunderekin sinatutako lankidetza-hitzarmenen jarraipen-batzordeetan parte hartzeaz gain, adinekoentzako jarduerekin lotutako hainbat hitzarmen luzatu dira:

- AFARABA alzheimerraren eta beste dementzia batzuen elkartearekin, elkartearen jardueretarako eta funtzionamendurako. 2024an ere, elkarteak psikoestimulazio-programa garatzen jarraitu du.
- Las Cuatro Torres elkartearekin, elkartearen jardueretarako eta funtzionamendurako, bai eta boluntariotza sustatzeko eta garatzeko ere.
- Gasteizko Elizbarrutiko Gotzaindegiarekin, Ajuria, Lakua, Txagorritxu, Zadorra eta landa-eremuko egoitzetan laguntza erlijioso katolikoa emateko.
- Era berean, lankidetza-hitzarmen bat dago San Juan de Dios ospitalearekin, La Caixa Gizarte Ekintzak lagunduta, GOFEren mendeko adinekoen egoitza-zentroetan arreta emozional, soziala eta espirituala emateko programa garatzeko, helburua izanik gaixotasun-prozesu aurreratuan dauden pertsonen, haien familien eta zentroetako profesionalen bizi-kalitatea hobetzea.

### 3.3.4.2. Boluntariotza

Adineko Pertsonen Arloak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egoitzetan laguntzen duen boluntariotzari aitorpena, prestakuntza eta laguntza emanez lan egiten du.

- 2024. urtean, 7 prestakuntza-topaketa egin dira (5 Gasteizen eta 2 Amurrion), tailer/ikastaro bakoitzean batez beste 12 parte-hartzaile bilduta.
- 2024an, 75 boluntariok hartu dute parte GOFEren egoitzetan bizi diren adinekoentzako banakako eta/edo taldeko laguntza-jardueretan.
- Halaber, boluntariotza asoziatiboa sustatzeko zeharkako ekintzak egin dira, Las Cuatro Torres elkartearekin, Nagusilan elkartearekin eta Vivir con Voz Propia elkartearekin boluntariotza garatzeko lankidetza-hitzarmenekin jarraituz.

### 3.3.4.3. Mantentze kognitiboa eta funtzionala lantzeko tailerrak

2024ko ekitaldian, eta Afaraba elkartearekin lankidetzan, mantentze kognitibo eta funtzionalerako psikoestimulazio-programak garatzen jarraitu dugu, dementzia diagnostikatuta duten pertsonen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzeko. Guztira, 139 pertsonak hartu dute parte garaturiko programetakoren batean (Haize Berri, Banoa, Montesori eta Dale al On). Orobat, familiei aholku emateko 2.116 esku-hartze egin dira, bai eta familientzako laguntza-taldeak ere, non 61 pertsonak hartu duten parte. Landa-ingurunean sentsibilizatzeko Aupa programaren barruan, informazio-hitzaldiak egin dira landa-eremuko hainbat kuadrillatan (Arabako Lautada, Gorbeialdea, Añana eta Arabako Mendialdea) garaiz detektatzeko eta antzemateko tailerrak egiteko, 53 lagun bilduta.

# 3.3.5.
# ERIZAINTZA-KOORDINAZIOA

2024an egindako jardueren artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

**Laguntza eta kudeaketa:**

- Koordinazioa Adinekoen Arloko lantaldearekin, Arabako eguneko zentroetako eta adinekoentzako egoitza publikoetako arduradunekin eta erizaintzako lantaldeekin, bai eta itundutako egoitza-plazen ikuskatzaileekin ere, erizaintzarekin eta erabiltzaileen zaintzarekin lotutako gaietan.
- Koordinazioa GOFEko arloetako eta itunpeko zentroetako profesionalekin, erizaintzako zainketen arloan aholku emateko.
- RESIPLUS eta OSABIDE kudeaketa klinikorako tresna informatikoen jarraipena, hobetzeko proposamenak eta kolektiboentzako prestakuntza.
- Osasun-materialei eta laguntza-produktuei buruzko aholkularitza, balorazioa eta proposamena, zentroek GOFEko hainbat arlotan eta itunpeko zentroetan dituzten premien arabera.
- Zerrendan sartu aurretik baliabideak eskatzen dituzten pertsonen espedienteen balorazioa eta sailkapena.
- Koordinazioa Arabako Farmazialarien Elkargoarekin, zuzeneko arretako foru-zentroetan sendagaiak kudeatzeko sistemaren funtzionamenduaren eta hitzarmenaren jarraipena egiteko.
- Koordinazioa Osasun Sailarekin, Prestazio Farmazeutikoen Zerbitzuarekin, koordainketa-sistemari dagokionez, OTI eskaera, diru-sarrerei buruzko informazioa.
- Koordinazioa Osasun eta Farmazia Sailarekin, farmazia-dekretua ezartzeko, egoitzetan sendagaiak gordetzeko baimenari, eremu soziosanitarioko farmazia-arretarako proiektuari eta Farmabide programari dagokienez.
- Koordinazioa Osakidetzarekin, GOFEren zentroetan historia klinikoaren programa informatikoaren jarraipena eta ezarpena egiteko, gripearen txertaketa-kanpaina.
- Koordinazioa Osakidetzarekin, osasun-materiala kudeatzeko eta eskatzeko, Eskabideren bidez.
- Lantaldeen koordinazioa eta bertako parte-hartzea, protokoloak eta jarduketa-gidak eguneratzeko eta egiteko.
- Koordinazioa adinekoekin zerikusia duten gaietan Gizarte eta Osasun Zerbitzuetako koordinatzaile soziosanitarioekin.
- Parte-hartzea Arabako Batzorde Soziosanitarioan.
- Zentroei osasun-zentro gisa baimentzeko eskatzen zaien dokumentazioaren tramitazioa.
- Parte-hartzea Egoitza Unitate Soziosanitarioaren (EUSS) balorazioan, jarraipenean eta esleipen-proposamenean.

**Ikerketa eta irakaskuntza**

Familiako erizaintzako espezialitatean eta praktiketako irakaskuntza-programetan Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolarekin lankidetzan aritu gara sinatutako hitzarmen bati esker.

Erizaintzako zainketa osagarrietako teknikarien eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta ematen duten teknikarien prestakuntza-eskolekin lankidetza praktiketako pretakuntza eskaintzeko.

# 3.3.6. GIZARTE-KOORDINAZIOA

2024an egindako jardueren artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

**Laguntza eta kudeaketa:**

- Banakako Arreta Programen kudeaketa.
- Baliabideak Berresleitzeko Programaren balorazioa eta kudeaketa, zuzeneko zein zeharkako kudeaketako (hitzartuak eta itunduak) zentroetan.
- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren balorazioa eta ebazpena.
- Parte-hartzea Egoitza Unitate Soziosanitarioko (EUSS) Balorazio Batzordean, eskaeren balorazioa eta ebazpena, MEEen tramitazioa, prezio publikoen hobarien ebazpena.
- Premiazko eta/edo salbuespenezko irizpideak aplikatzea eskatzen duten egoera soziosanitario berezietan, baliabideak esleitzeko proposamen eta ebazpenen balorazioa eta lanketa.
- GOFEko arloen arteko batzordeetan aztertutako kasuen balorazioa, tramitazioa eta ebazpena.
- Koordinazioa egoitza-zentroetako eta eguneko zentroetako, etxebizitza komunitarioetako eta eguneko arretarako gizarte-laneko profesionalekin, zentro propioetan zein itunduetan. Informazioa eta aholkularitza, prestakuntza eta esku hartzeko jarraibide bateratuak ematen dira.
- Koordinazioa Arloko teknikariekin garatzen diren programetan eta zereginetan: boluntariotza, prestakuntza, asoziazionismoa eta abar, hitzartutako plazen jarraipen teknikoa.
- Koordinazioa Gasteizko Udaleko Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuarekin, beste udal-erakunde batzuekin eta Osakidetzarekin.
- Parte-hartzea Erabiltzailearen Arretarako Unitatean (EAU) eta iritsitako kexei eta/edo iradokizunei erantzutea.
- Aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoei buruzko txosten teknikoak.
- Parte-hartzea Adinekoen Kontseilu Sektorialean.
- Etxebizitza komunitarioek inplikatutako udalekin dituzten hitzarmenen kudeaketa, txosten teknikoak, eta hileko eta urteko likidazio ekonomikoak.
- Ofizioz lekualdatzeko ebazpenen koordinazioa, balorazioa, jakinarazpena eta lanketa, bai zentro propioenak bai itunpekoenak/hitzartuenak.
- Koordinazioa Udalarekin eta San Prudencio AAZIrekin, zentro horretan itundutako plaza publikoak dituzten pertsonak lekualdatzeko, hitzarmena amaitu egin delako.

**Zerbitzu hitzartu/itunduetan eta laguntza eta hitzarmenetan esku-hartzea eta jarraipena:**

- Egoitzak: San Prudencio AAZI, Purísima Concepción, Colisée Miñano -La Saleta-, Alto del Prado -Caser-, Igurco Araba, Albertia Campus, Albertia Centro eta San Martín -Sanitas-, Ariznabarra, Nuestra Señora de Okon, Aretxabaleta, Alday Fundazioa eta Pablo Neruda.
- Etxebizitza komunitarioak: Kanpezu, Asparrena, Amurrio, Gaubea, Guardia.
- Eguneko zentroak: Ariznabarra, Bizia eta Aita Menni , asteburuetarako eguneko zentroak.
- Adinekoen elkarteentzako laguntzen eta hitzarmenen jarraipena: AFARABA, Las Cuatro Torres.

**Ikerketa eta irakaskuntza:**

- Gasteizko Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola eta Elkargo Profesionalarekin lanean aritu gara profesional berrien prestakuntzan eta/edo ohiko profesionalak eguneratzen.

## 3.3.7. ZENTROETAKO ARDURADUNA

2021ean, adinekoen zentroetako arduradunaren lanpostua sortu zen, eta 2024an egindako jardueren artean honako hauek nabarmentzen dira:

- Koordinazioa zentroetako zuzendariekin, Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ezarritako jarraibideei jarraikiz.
- Arloa osatzen duten zuzeneko kudeaketako zentroen eta zerbitzuen funtzionamendua gainbegiratzea, eta jarduteko irizpideen, epeen eta jarraibideen ezarpena.
- Medikuen Antolamenduaren kudeaketa, lantokia eta guardiak esleituz eta horretarako aplikazioan erregistro informatikoa eginez, eta zuzendaritzei eta ikuskapenei informazioa emanez, Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ezarritako jarraibideen arabera.
- Zuzeneko kudeaketako adinekoen egoitzetako menu bateratuen proiektuaren koordinazioa, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioa.
- Erosketen kudeaketa eta produktuen kontratazioa, zentroen arteko irizpideak bateratuta eta kostuen konparazio-taulen ezarpena ahalbidetuta.
- Lankidetza Arloko Zuzendariordetza Teknikoarekin eta Antolakuntza eta Informatika Zuzendariordetzarekin zentroen funtzionamendua hobetzeko prozesuetan (prozesuen diseinua, lan-kargaren azterketak, zentroetako langileen zehaztapena...).
- Lankidetza Arloko Zuzendariordetza Teknikoarekin eta Kontratazioaren Arloarekin zuzeneko kudeaketako zentroetarako ekipamendu, altzari eta material ez-sanitarioaren lizitazio-pleguak prestatzeko.
- Esleitutako enpresaren zuzeneko arretako eguneko zentroetan garraio egokituaren aplikazioaren jarraipena, eta zentroetatik bertatik ibilbideei eta erabiltzaileei buruz jakinarazitako gorabeherak gainbegiratzea, kudeatzeko edo dagokion sailera bideratzeko.
- INDESAren jarraipena, ikuskapena eta kontrola garbitegiari dagokionez.
- Proiektu eta taldeen kudeaketa eta koordinazioa, Antolakuntza eta Informatika Arloarekin lankidetzan, Kontratazioaren Arloarekin eta INDESArekin (sukaldea, garraioa, garbitegia) batera, Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ezarritako jarraibideei jarraikiz, eta garatu beharreko lehentasunak eta jarduerak araututa.
-

## 3.3.8. PARTE-HARTZEA HAINBAT FORO ETA BATZORDETAN

Adinekoen Arloak hainbat batzordetan parte hartu du, gehienak arlo soziosanitariokoak izanik:

- Arabako Egoitza Unitate Soziosanitarioan (EUSS) sartzeko balorazio-batzordea.
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren, eta Osakidetzaren arteko lankidetza-hitzarmenaren batzordea, arreta soziosanitarioa hobetzeko.
- Arabako Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua, Adinekoen Arloaren ordezkari gisa, eta Adinekoen Kontseilu Sektorialean.
- Adinekoen Kontseilu Sektoriala.
- Euskadiko Etika Batzordeen Batzorde Soziosanitarioa.
- Berdintasun Batzordea. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2023-2026 epealdirako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Barne Planaren garapenaren barruan, Batzordean eta "Genero-hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa" lantaldean parte hartu da.
- Adinekoentzako egoitza-zentroetako kalitate-adierazleen proiektua.
- GOFEko Erabiltzailearentzako Arreta Unitatea (EAU).
- GOFEko arloen arteko batzordeak.

# 3.4.
# DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ARLOA

Desgaitasuna duten Pertsonen Arloan zenbait zerbitzu, programa eta prestazio sartzen eta garatzen dira, desgaitasun- edo mendekotasun-motaren bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, hazkunde pertsonala, banako autonomia, bizitza independentea eta komunitateko parte-hartze aktibo eta osoa bermatuz. Pertsona horien artean daude desgaitasun fisikoa dutenak, adimen-desgaitasuna eta/edo sentsoriala dutenak, gaixotasun fisikoa eta/edo mentala dutenak, betiere gaixotasun mentalarekin batera beste desgaitasun bat izanez gero (fisikoa, intelektuala edo sentsoriala).

## 3.4.1.
## DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ARLOAREN ANTOLAMENDUA

Arloari laguntzeko talde teknikoa

**ZUZENDARIORDETZA TEKNIKOA**

Baliabideak esleitzeko batzorde teknikoa

**Orientazio- eta Balorazio-Unitatea**

- Balorazio Unitate Teknikoa
- Ezintasuna Mendekotasuna
- Arreta goiztiarra
- Autonomia sustapena

**Eguneko zentroak**

- Autonomia Pertsonaleko
- Zentroa
- Etxebidea
- Goizalde EZ*
- Ehari EZ*
- Zabalgana EZ*
- Landaberde EZ*
- Orhy Atala*
- Roncesvalles Atala*

**Zentro okupazionala**

- Salburua ZO
- Helios ZO
- Lakua ZO
- Arbulo ZO
- Arriaga ZO
- Kimu ZO
- Adurza ZO
- Lantze ZO
- Ariznavarra ZO
- Puerto Rico ZO

**Egoitzak eta etxebizitza lagunduak**

- Etxebidea E.
- Arabarren E.*
- Pedro Asúa EL
- Basoa EL
- Portal de Castilla EL
- Zaldiaran EL
- Goizalde E.*
- Donostia EL*
- Olaguibel EL
- Cruz Blanca EL
- Beato Tomás de Zumárraga EL
- Laguntzadun etxebizitzak (11)*
- Atseden-etxebizitzak*

**Programak**

- Autonomiaren sustapena
- Garraio egokitua
- Aisia eta denbora librea
- Mugimendu asoziatiboarentzako laguntza
- Egonaldi laburrak zentroetan
- Eguneko arreta egoitzan

**Laguntza-neurrien unitatea**

** Kudeaketa itundua/ hitzartua*

| | LANPOSTUAK | 2024 |
|---|---|---|
| Arloko zuzendaritzaordetza teknikoa | Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| | Zentroen arduraduna | 1 |
| | Goi-mailako teknikaria | 1 |
| | Desgaitasuneko teknikaria/goi-mailako teknikaria eta laguntza-neurriak | 1 |
| | Arloko gizarte-koordinatzailea | 1 |
| | Zuzendariordetza Teknikoko idazkaria | 1 |
| | Psikologoa | 1 |
| | Pedagogoa | 5 |
| | Gizarte-langilea | 5 |
| | Enplegu bereziko tailerreko arduraduna – Arbulu | 4 |
| | Administraria | 1 |
| | **GUZTIRA \| Arloko zuzendaritzaordetza teknikoa** | **22** |
| Egoitzak | A Egoitzako zuzendaria | 1 |
| | Egoitzako medikua | 1 |
| | Taldeko psikologo arduraduna | 1 |
| | Egoitzen unitateko arduraduna | 1 |
| | Erizain gainbegiralea | 1 |
| | Erizaina | 8 |
| | Fisioterapeuta | 2 |
| | Etxebizitzetako hezitzailea | 2 |
| | Gizarte-langilea | 1 |
| | Mandataria | 1 |
| | Egoitzetako hezitzailea | 5 |
| | Administraria | 1 |
| | Erizaintzako laguntzailea | 69 |
| | Egoitzetako begiralea | 34 |
| | Sukaldeko laguntzailea | 4 |
| | Mantentze-lanetako ofiziala | 2 |
| | Telefonista | 1 |
| | Garbiketa – Office | 3 |
| | Zerbitzuetako laguntzailea | 11 |
| | **GUZTIRA \| Egoitzak** | **149** |
| Autonomia pertsonaleko zentroa | APZko arduraduna – Irisgarritasun-teknikaria | 1 |
| | Terapeuta okupazionala | 2 |
| | Begiralea | 5 |
| | **GUZTIRA \| Autonomia pertsonaleko zentroa** | **8** |

| | | |
|---|---|---|
| **Orientazio- eta Balorazio-Unitatea** | BUTeko arduraduna | 1 |
| | Mediku errehabilitatzailea | 3 |
| | Gizarte-langilea | 4 |
| | Psikologoa | 3 |
| | Mendekotasuna baloratzeko teknikaria | 7 |
| | Enplegu-teknikaria | 1 |
| | Administraria | 3 |
| | Mandataria | 1 |
| | **GUZTIRA \| Orientazio- eta balorazio- zentroa** | **23** |
| **Zentro okupazionalak** | Zentro okupazionaleko arduraduna | 9 |
| | Monitorea | 70 |
| | Garbiketa-Office | 4 |
| | **GUZTIRA \| Zentro okupazionalak** | **83** |
| **Enplegu bereziko tailerrak - INDESA** | Nekazaritza Uztiategiko burua | 1 |
| | B enplegu-teknikaria | 2 |
| | Sukalde Zerbitzuko burua | 1 |
| | Enplegu zentro bereziko arduraduna | 4 |
| | **GUZTIRA \| Enplegu bereziko tailerrak - INDESA** | **8** |
| | **GUZTIRA \| DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ARLOAN** | **293** |

## 3.4.2. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ARLOKO ZERBITZU OROKORRA

Programa honek GOFEko Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko Zuzendariordetzari eta zerbitzu komun edo orokorrei dagokien zuzkidura hartzen du, helburu nagusia izanik bere ardurapeko zerbitzuak eta programak koordinatzea, eta horien antolaketaz eta kudeaketaz arduratzea.

## 3.4.3. INFORMAZIO-, DIAGNOSTIKO- ETA ORIENTAZIO-ZERBITZUA

Ibiltaria eta lurralde-eremukoa da, eta orientazio-, diagnostiko-, balorazio- eta jarraipen-zerbitzuak ematen ditu, baita tratamendua ere haurrentzako arretaren kasuan. Zerbitzuak identifikazioa bideratzen du, eta, hala badagokio, mendekotasun- eta desgaitasun-egoeren graduazioa ere.

Horren xede nagusia da desgaitasuna duenari edo mendekotasun-egoeran dagoenari eta bere senideei erantzun kualifikatua eta orokorra ematea; horretarako, komunitateak herritar horientzat dituen baliabideak aztertu, eta baliabideok eskuratzea ahalbidetzen da. 2024ko ekitaldian, zerbitzuak bi jardun-arlotako eskariari erantzun zion:

**Honako hauen balorazioa eta orientazioa:**

- Desgaitasun-gradua onartzeko eskaerak.
- Mendekotasun-gradua onartzeko eskaerak.
- Atzerapena duten edo izan dezaketen haurrentzako arreta goiztiarra.
- Mugikortasun murriztua.
- Autonomia pertsonala sustatzeko laguntza-produktuak.

**Errehabilitazio-ekintzak** 6 urtetik beherako haurrekin: heltzeko garapenaren estimulazio orokorra eta fisioterapia.

### 3.4.3.1. Desgaitasun-graduaren balorazioa

Zerbitzuak eskaerak baloratu eta bideratzen ditu, bai desgaitasuna duen pertsona legez aitortzeko bai eskatutako prestazioen egokitasun teknikoa zehazteko. 2024ko ekitaldian, espedientea abiatzeko 2.318 balorazio egin ziren, eta urte osoan 4.129 aitorpen. 2024an, 1.955 laguni aitortu zaie desgaitasun-graduren bat; horietatik % 47,34k % 33tik % 65era bitarteko desgaitasun-gradua edo ehunekoa lortu dute, 537 pertsonak (% 13,01) % 66tik gorakoa, eta gainerakoek (% 39,65) % 33tik beherakoa.

| GRADUA | G | E | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|
| < 33% | 819 | 818 | 1.637 | 39,65 |
| 33% - 65% | 1.062 | 893 | 1.955 | 47,34 |
| > 65% | 264 | 273 | 537 | 13,01 |
| **GUZTIRA** | **2.145** | **1.984** | **4.129** | **100** |

### 3.4.3.2. Mendekotasun-graduaren balorazioa

Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendetasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzeko Legea indarrean sartu zenetik, 2007tik aurrera Balorazio Zentroan mendekotasun-egoeraren balorazioak ere egiten dira.

2024. urtean, 2.772 espediente berri abiatu ziren.

Kasu berrien eta aldez aurreko balorazioen berrazterketen artean, 6.075 balorazio egin ziren guztira.

| BALORAZIOAK | G | E | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|
| 2024an baloratutako kasuak | 1.220 | 1.552 | 2.772 | 45,6 |
| Aldez aurreko balorazioen berrazterketak | 1.236 | 2.067 | 3.303 | 54,4 |
| **GUZTIRA** | **2.456** | **3.619** | **6.075** | **100** |

Egindako 2.772 balorazio berriei dagokienez, mendekotasun-gradu hauek onartu ziren:

| GRADUA | G | E | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|
| 0 | 419 | 573 | 992 | 35,79 |
| I | 497 | 632 | 1.129 | 40,73 |
| II | 212 | 229 | 441 | 15,91 |
| III | 91 | 119 | 210 | 7,57 |
| **GUZTIRA** | **1.219** | **1.553** | **2.772** | **100** |

2024ko abenduaren 31rako baloratutako pertsona guztiak kontuan hartuta (espediente aktiboak), honela banatzen dira beren mendekotasun-graduaren arabera:

| GRADUA | G | E | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| I gradua | 2.660 | 3.608 | 6.268 |
| II gradua | 1.776 | 2.617 | 4.393 |
| III gradua | 1.103 | 2.365 | 3.468 |
| **GUZTIRA** | **5.539** | **8.590** | **14.129** |

**ESPEDIENTE AKTIBOAK (%) GRADUAREN ARABERA**




Baloratuak izan arren mendekotasun-gradurik lortu ez zuten 5.101 pertsonak bazter utzita (0 gradua), 2024ko abenduan 14.129 pertsona zeuden Araban mendekotasuna duen pertsona gisa baloraturik, gradu eta maila guztiak kontuan hartuta; hots, Arabako biztanleria osoaren % 4,1.

Horrez gain, zerbitzuak desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko ziurtagiriak ematen ditu.

## 3.4.4.
## ESKU HARTZEKO ZERBITZUA ARRETA GOIZTIARREAN

Arreta goiztiarra 6 urtetik beherakoekin, familiekin eta ingurunean esku hartzeko ekintza-sorta batean gauzatzen da, garapenean nahasmenduak dituzten haurren premia iragankor edo iraunkorrei ahalik eta azkarren erantzuteko helburuz.

Xede nagusia haurren gaitasunak eta ongizatea indartzea da, bai haien autonomia pertsonala bai familia-, eskola- eta gizarte-ingurunean integra daitezen ahalbidetzeko.

Beraz, gizarte-zerbitzuek, osasun-sistemak eta hezkuntza-sistemak egindako ekintzak biltzen ditu.

GOFEk umearen beharren balorazioa egiten du, eta Osasunarekin (Osakidetza) eta Hezkuntzarekin koordinatuta Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea (AGBT) eratzen da, Esku Hartzeko Plana proposatzeko.

GOFEk programa indibidualizatuak egiten ditu, eta familiek eta profesionalek aktiboki laguntzen dute adingabeek praktikara eraman ditzaten.

Programa horiek honako jarduera hauek hartzen dituzte barne: estimulazio orokorra, fisioterapia, logopedia, garapenaren aldizkako jarraipena, esku-hartzea eta gizarte-jarraipena.

Arreta goiztiarreko zerbitzuaren kudeaketa APDEMA erakundearekin izenpeturiko lankidetza-hitzarmenaren bidez egiten da.

2024an, 6 urtetik beherako 1.212 adingabe egon ziren Arreta Goiztiarreko Programan, eta guztira 48.171 saio agindu ziren, AGBTk egindako Esku Hartzeko Planaren bidez. Programako adingabeen artean, % 34,8 neskak eta % 65,2 mutilak ziren.

Guztira, 825 adingabek (577 haur eta 248 neska) jaso zuten tratamendua Arreta Goiztiarreko Esku Hartzeko Zentroaren bidez edo logopedia-zentroetan, 41.686 saiotan; batez beste, 50 saio jasotzen ditu urtean adingabe bakoitzak.

Saio- eta artatutako adingabe-kopurua, arreta-modalitatearen arabera:

| MODALITATEA | SAIOAK | G | E | ARTATUTAKO ADINDABEAK* |
|---|---|---|---|---|
| FISIOTERAPIA | 4.917 | 77 | 63 | 140 |
| ESTIMULAZIOA | 22.285 | 389 | 153 | 542 |
| LOGOPEDIA | 14.484 | 336 | 152 | 488 |

** Adingabe batzuek arreta-modalitate batean baino gehiagotan jasotzen dute tratamendua.*

Gasteiztik urrunen dauden Lurralde Historikoko eremu batzuetan, hurbiltasun-printzipioa kontuan hartuta, AGBTk agindutako tratamendu-saioak bulego pribatuetan kontrata daitezke; kasu horietan, GOFEk bere gain hartzen du kostu osoa, bai eta, hala badagokio, garraio-gastuen kostua ere. Kontratazio horiek ordaintzeko, 202 laguntza eman ziren lurralde osoan, guztizko onuradunak 100 izanik.

| UDALERRIA | EMAKIDAK |
|---|---|
| AMURRIO | 29 |
| ARAMAIO | 1 |
| ARTZINIEGA | 2 |
| AIARA | 18 |
| BASTIDA | 2 |
| LANTZIEGO | 4 |
| LAPUEBLA DE LABARCA | 2 |
| LAUDIO | 124 |
| MOREDA ARABA | 2 |
| OKONDO | 4 |
| OION | 12 |
| ESKUERNAGA | 2 |
| **GUZTIRA** | **202** |

# 3.4.5. LAGUNTZA NEURRIEN UNITATEA (LNU)

Unitate hau, lehen tutoretzako foru-taldea zena, koordinatzaile batek eta bi erreferentek osatzen dute. Bizitzako esparru batzuetan edo guztietan gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza behar duten helduentzat da, epai judizial bidez edo borondatezko neurriak ezarriz eskuratua.

Gainera, Usoa eta Beroa fundazioekin egindako hitzarmenen jarraipena egiten du.

2024an, 48 kasu artatu dira Laguntza Neurrien Unitatean (16 emakume eta 32 gizon), karguak hauexek izanik:

- Kuradoretza adierazgarriak 45: (15 emakume eta 30 gizon).
- Laguntza-kuradoretzak 3: (emakume 1 eta 2 gizon).

Horrez gain, 198 prozedura judizialen jarraipena egin da gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza-neurriak ezartzeko (LNUn artatu gabeko pertsonak dira, eta epaitegiaren txostena eskatu da haientzat).

Bestalde, laguntza hori handitu egin da fundazio-erakundeen esku-hartzearekin.

Araban laguntza-neurriak dituzten pertsonen kopurua:

| Kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| Beroa Fundazioa | 159 | 93 | 252 | 148 | 86 | 234 |
| Usoa Fundazioa | 88 | 81 | 169 | 81 | 75 | 156 |
| LNU | 32 | 16 | 48 | 3 | 3 | 6 |
| **GUZTIRA** | **279** | **190** | **469** | **232** | **164** | **396** |

# 3.4.6. AUTONOMIA-MUGEN ONDORIOZKO BEHARREI ERANTZUTEKO EGUNEKO ZENTROAK

Eguneko zentroek aldi batez edo modu iraunkorrean artapen indibidualizatua eskaintzen diete, egunez, desgaitasuna duten pertsonei; zerbitzuaren xedea da autonomia pertsonalaren maila hobetzea edo hari eustea, muga funtzionalak orekatzea eta ohiko zaintzaileei laguntza ematea, autonomia pertsonalari eusteko eta ingurune komunitarioan parte hartzeko, gaitasunak eskuratzera eta garatzera bideratutako prebentzio-, trebakuntza- eta laguntza-prestazioen bidez.

#### 3.4.6.1. Autonomia Pertsonaleko Zentroa (APZ)

Autonomia pertsonala sustatzeko eguneko zentroan, mugitzeko ezintasun larriak dituztelako profesionalen laguntza berezia behar duten 18-65 urte bitarteko helduak zaintzen dira, egunez. Kasu batzuetan, zerbitzuak aldi batez bakarrik artatzen ditu erabiltzaileak, errehabilitazioa eta gero sareko baliabide orokorrei heltzeko moduan izaten baitira.

Zerbitzuak elkarrekin bizitzeko giroa sortzen du, eta zentroetan lan-, hezkuntza-, kultura- eta garapen-jarduerak egiten dira artatuen autonomia pertsonal eta soziala sendotzeko.

Gainera, arlo askotako profesionalek banakako arreta ematen diete zentrora hurbiltzen diren pertsonei, eta laguntza-produktu jakinetan eta eguneroko bizimoduko jardueretan trebatzeko programa laburrak egiten dira, onuradunen ezaugarrietara eta beharrizanetara egokituak, haien autonomia eta gizartean parte har dezaten bultzatzeko.

2024ko ekitaldian, 30 lagun artatu dira, proportzioa hauxe izanik: % 50 emakumeak (15) eta % 50 gizonak (15); eta batez besteko adina, 48 urtekoa.

Autonomia Pertsonalerako Zentroko eguneko arreta-zerbitzura jo zutenen programa indibidualizatuak egin ziren. Esku Hartzeko Plan Orokorraren barruan garatutako jarduerak eremu hauetan garatu ziren

- Osasuna eta segurtasuna
- Giza garapena eta ikaskuntza
- Trebetasunak etxean
- Bizitza komunitatean

Laguntza-produktuei dagokienez, zerbitzuan informazioa ematen da, eta aholkularitza eta laguntza teknikoak edo ingurune fisikora egokitzeko produktuak. 2024an, jarduera hauek egin ziren:

| MODALITATEA | G | E | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Laguntza- eta irisgarritasun-produktuei buruzko informazio-eskaerak | 262 | 224 | 486 |
| Aztertzeko/baloratzeko bisitak etxeetan | 0 | 4 | 4 |
| Laguntzen deialdirako txosten teknikoak (ATM) | 77 | 73 | 150 |
| Laguntza-produktuen lagapenak | 11 | 9 | 20 |

#### 3.4.6.2. Etxebidea eguneko zentroa

Etxebidea eguneko zentroa behar adina autonomiarik ez duten, baina familian laguntza nahikoa dutelako egoitza batean egon beharrean ez dauden pertsonentzat da; alegia, adimen-desgaitasuna izatearen ondorioz laguntza orokorra behar duten pertsonak artatzen dira, egunez.

Xede nagusia da desgaitasuna dutenei elkarbizitza-giro egokia eskaintzea, beren garapen pertsonala hobetzeko, beren egoera fisiko, psikiko eta sozialari eusten laguntzeko, eta komunitateko bizimoduan parte hartzea eta integratzea sustatzeko.

2024an, zentroan 45 pertsona artatu ziren (30 gizon eta 15 emakume), batez besteko adina 36 urtekoa izanik. Eguneko zentroan, gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa izan zen, % 66,6 eta % 33,3, hurrenez hurren.

### 3.4.6.3. Ehari eguneko zentroa

Askotariko koadro klinikoen ondorioz desgaitasun fisiko larriak, baina nahasmendu psikiko garrantzitsuak ez dituzten eta garapen pertsonal eta sozial ahalik eta handiena lortzeko laguntza behar duten pertsonei arreta integrala emateko zerbitzua da, eguneko zentroko erregimenean, Zentroaren kudeaketa zeharkakoa da, eta Asesoramiento y Gestión Asistencial S.L. erakundearen bidez egiten da.

Ehari eguneko zentroaren funtsezko helburua erabiltzaileen bizi-kalitatea sustatzea da, eta, horretarako, behar duten laguntza ematea, beren gaitasunei eusteko edo gaitasunok ahalik eta gehien garatzeko, horrela beren autonomia funtzionala eta gizarte-mailako parte-hartzea etengabe hobetuko baita.

2024. urtean, eguneko zentroak 25 plaza izan zituen eta 26 pertsona izan ziren onuradun, 7 emakume eta 19 gizon, batez besteko adina 49 urtekoa izanik. Zentroan artatutako emakumeen proportzioa % 27koa izan zen.

### 3.4.6.4. Landaberde eguneko zentroa

Garapenaren erabateko nahasmenduak dituzten 18 urtetik gorako pertsonak artatzeko zentroa da, zeinaren kudeaketa Autismo Araba elkartearekin (Autismoaren Espektroaren Nahasteen Arabako Elkartea) hitzartuta dagoen.

Helduentzako zentroa eta zerbitzua da. Heldu horiek, eskolako etapa amaitu ondoren, laguntza behar dute beren garapen pertsonal eta sozialerako, garapenaren nahasmendu orokorren ondorioz. Zentroak, ahal den heinean, ikaskuntza-programen garapena erraztu nahi du, ingurune komunitario barneratzailean. Erlazionatutako bi atal daude: Orhi atala, autismoaren espektroaren nahasteak dituzten pertsonentzako goi-mailako errendimenduko baliabide gisa, eta Orreaga atala; batak eta besteak 6 plaza dituzte.

Guztira, 42 pertsonarentzako lekua du, eta 2024an 42 lagun artatu ziren (35 gizon eta 7 emakume). Haien batez besteko adina 35 urtekoa izan zen. Emakumeak % 17 izan ziren. Hortaz, eguneko zentroen artean emakume gutxien artatu zuen zentroa da. 2024ko abenduaren 31n, 42 pertsonak jarraitzen zuten baliabidean.

### 3.4.6.5. Goizalde eguneko arretarako zerbitzua

Goizalde eguneko arretarako zerbitzua izen bereko egoitzan dago kokaturik eta, egoitza bezalaxe, AyG Asistencial enpresak kudeatzen du. Erabiltzaileak desgaitasun fisiko larriak dituzten pertsonak dira, sartzen direnean 18 eta 64 urte bitarteko adina dutenak. Bertan, beharrezkoa duten arreta jasotzen dute, egunez zentroan egoten diren gainerako erabiltzaileek egoitza-arretako zerbitzua darabilten baldintza beretan. Kasu hauetan, zerbitzuaren barruan bazkaria eta garraioa daude. Gehienez ere 6 pertsonak balia ditzakete zerbitzuok, eta 2024an 2 gizon artatu ziren, emakumerik ez.

### 3.4.6.6. Zabalgana eguneko zentroa

2024an, Zabalgana eguneko zentro berria jarri zen martxan, Autismoaren Espektroaren Nahastea (AEN) duten pertsona helduei arreta espezializatua emateko. Zentroak AEN duten pertsonei bizi-kalitatea, autonomia eta gizarte-inklusioa sustatzeko laguntza pertsonalizatuak eta egituratutako inguruneak eskaintzeko beharrari erantzuten dio.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| ETXEBIDEA eguneko zentroa | 40 | GOFE | 30 | 15 | 45 | 28 | 13 | 41 |
| AUTONOMIA PERTSONALEKO ZENTROA | 20* | GOFE | 15 | 15 | 30 | 14 | 14 | 28 |
| EHARI eguneko zentroa | 25 | AyG ASISTENCIAL | 19 | 7 | 26 | 18 | 7 | 25 |
| LANDABERDE eguneko zentroa | 30 | AUTISMO ARABA ELKARTEA | 24 | 6 | 30 | 24 | 6 | 30 |
| ORHI atala (Landaberde EZ) | 6 | AUTISMO ARABA ELKARTEA | 6 | 0 | 6 | 6 | 0 | 6 |
| RONCESVALLES Atala (Landaberde EZ) | 6 | AUTISMO ARABA ELKARTEA | 5 | 1 | 6 | 5 | 1 | 6 |
| GOIZALDE eguneko zentroa | 6 | AyG ASISTENCIAL | 2 | 0 | 2 | 2 | 0 | 2 |
| ZABALGANA eguneko zentroa | 20 | AUTISMO ARABA ELKARTEA | 17 | 3 | 20 | 17 | 3 | 20 |
| **GUZTIRA** | **153** | | **118** | **47** | **165** | **114** | **44** | **158** |

** Aldibereko arretan.*

**PLAZA-KOPURUAREN ETA ERABILTZAILEEN GARAPENA EGUNEKO ZENTROETAN (1990-2024)**



# 3.4.7. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZA-ZENTROAK

Elkarbizitzarako zerbitzuak dira, ohiko etxebizitza edo etxebizitza iraunkor gisa erabil daitezkeenak, edo, hala badagokio, aldi baterako; desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonek erabiltzen dituzte, beren beharrak ezin badituzte nork bere etxean edo familiarenean asebete.

Egoitzek, gainera, ahal duten neurrian, egonaldi laburrak eskaintzen dituzte desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat eta/edo haien senideentzat.

Etxebizitza lagunduak egoitza-zerbitzuetatik bereizten dira, eskainitako laguntzen intentsitatea txikiagoa delako; hala, autonomia-maila txikiagoa duten pertsonei eskaintzen zaizkie.

2024. urtean, 290 pertsona izan ziren egoitza-mota ezberdinetan, egonaldi iraunkorraren modalitatean.

Oinarrizko egoitza-, mantenu- eta zainketa-zerbitzuak ematen dituen beste etxebizitza bat eskaintzeaz gain, egoitzen eta etxebizitzen xedea da hezkuntza-zentro eta zentro okupazionalekin batera desgaitasuna duenaren garapen pertsonala sustatzea eta bizitza autonomoagoa lortzen laguntzea.

Zentro hauetako erabiltzaileen erdiak baino gutxiago (% 39,3) emakumeak izan dira, eta Amurrio, Gurutze Zuria, Beato Tomás de Zumárraga eta Las Losas etxebizitza lagunduetan, baita Goizalde Egoitzan ere, emakumezko erabiltzaileen proportzioa gizonezkoena baino handiagoa izan da.

### 3.4.7.1. Zuzeneko kudeaketako egoitzak eta etxebizitza lagunduak

2024an, guztira 129 pertsonak (81 gizon eta 48 emakume) erabili zituzten GOFEk zuzenean kudeatzen dituen egoitzak eta etxebizitza lagunduak.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| ETXEBIDEA egoitza | 75* | GOFE | 46 | 26 | 72 | 43 | 23 | 66 |
| BASOA etxebizitza lagundua | 12* | GOFE | 8 | 4 | 12 | 6 | 4 | 10 |
| ZALDIARAN etxebizitza lagundua | 9* | GOFE | 5 | 4 | 9 | 5 | 4 | 9 |
| GAZTELAKO ATEA etxebizitza lagundua | 13* | GOFE | 7 | 6 | 13 | 6 | 5 | 11 |
| PEDRO ASÚA etxebizitza lagundua | 10* | GOFE | 8 | 2 | 10 | 8 | 2 | 10 |
| OLAGIBEL etxebizitza lagundua | 5 | GOFE | 5 | 1 | 6 | 4 | 1 | 5 |
| GURUTZE ZURIA etxebizitza lagundua | 3 | GOFE | 1 | 2 | 3 | 1 | 2 | 3 |
| BEATO TOMÁS DE ZUMÁRRAGA etxebizitza lagundua | 4 | GOFE | 1 | 3 | 4 | 1 | 3 | 4 |
| **GUZTIRA** | **131** | | **81** | **48** | **129** | **74** | **44** | **118** |

** Egonaldi laburretarako plaza bat barne*

### 3.4.7.2. Zeharkako kudeaketako egoitzak eta etxebizitza lagunduak

Zuzeneko kudeaketako zentroez gain, GOFEk beste 11 etxebizitza lagundu izan zituen 2024an APDEMA elkartearekin hitzartutako kudeaketa-erregimenean.

Desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako egoitza-baliabideei dagokienez, esan beharra dago Goizalde Egoitzak, AyG Asistencial zerbitzuen elkarteari esleitutako zeharkako kudeaketako baliabide publikoak, 27 plaza dituela (egonaldi laburrerako plaza bat barne) eta ekitaldiaren amaieran 24 plaza zeudela beteta.

AyG Asistencial zerbitzuen elkarteak, halaber, desgaitasuna (bereziki sentsoriala) duten pertsonentzako Donostia etxebizitza lagundua kudeatzen du, 8 plaza dituena (gehi beste bat egonaldi laburretarako).

2023an, Arabarren Egoitzako desgaitasun-modulua abiatu zen, desgaitasun fisiko larrirako 25 plazarekin. 2024an, 27 lagun izan dira bertan, 16 gizon eta 11 emakume.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| **ADIMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEAK** | | | | | | | | |
| OION etxebizitza lagundua | 12* | APDEMArekin hitzarmena | 6 | 2 | 8 | 6 | 2 | 8 |
| LAUDIO etxebizitza lagundua | 10* | APDEMArekin hitzarmena | 6 | 3 | 9 | 6 | 3 | 9 |
| MARTÍN SARACIBAR etxebizitza lagundua | 10 | APDEMArekin hitzarmena | 8 | 5 | 13 | 6 | 5 | 11 |
| FORONDA etxebizitza lagundua | 10* | APDEMArekin hitzarmena | 5 | 4 | 9 | 5 | 4 | 9 |
| AMURRIO etxebizitza lagundua | 3* | APDEMArekin hitzarmena | 0 | 4 | 4 | 0 | 4 | 4 |
| SIERRA DE URBASA etxebizitza lagundua | 10 | APDEMArekin hitzarmena | 10 | 0 | 10 | 10 | 0 | 10 |
| EASO etxebizitza lagundua | 10* | APDEMArekin hitzarmena | 5 | 5 | 10 | 5 | 5 | 10 |
| LAS LOSAS etxebizitza lagundua | 4 | APDEMArekin hitzarmena | 0 | 4 | 4 | 0 | 4 | 4 |
| ZAPARDIEL etxebizitza lagundua | 9 | APDEMArekin hitzarmena | 4 | 5 | 9 | 4 | 5 | 9 |
| JUNTAS GENERALES etxebizitza lagundua | 8 | APDEMArekin hitzarmena | 6 | 3 | 9 | 5 | 3 | 8 |
| MARITURRI etxebizitza lagundua | 10 | APDEMArekin hitzarmena | 5 | 5 | 10 | 5 | 5 | 10 |
| **DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEAK** | | | | | | | | |
| ARABARREN egoitza | 25 | ARABARREN S. COOP. ekin hitzarmena | 16 | 11 | 27 | 12 | 12 | 24 |
| GOIZALDE egoitza | 27* | AyG ASISTENCIALekin kontratua | 14 | 15 | 29 | 12 | 12 | 24 |
| **DESGAITASUN SENTSORIALA DUTEN PERTSONENTZAKO BALIABIDEAK** | | | | | | | | |
| DONOSTIA I etxebizitza lagundua | 9* | AyG ASISTENCIALekin kontratua | 7 | 1 | 8 | 6 | 1 | 7 |
| Beste egoitza batzuk [1] | 7 | Kontratua | 5 | 2 | 7 | 5 | 2 | 7 |
| **GUZTIRA** | **184** | | **97** | **69** | **166** | **87** | **67** | **154** |

** Egonaldi laburretarako plaza bat barne | [1] Arabatik kanpo*

Halaber, Aita Mennirekin bi plaza daude kontratatuta, Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko bi erabiltzaile artatzeko. Baita beste bina plaza ere Don Orione zentroan (Asturias) eta San Juan de Dios zentroan (Palentzia). Kasu guztietan, plazak pertsona jakin batzuen arretarekin lotuta daude, haien ezaugarri pertsonalek eta jokabide-nahasmenduek beren premietara eta eskatutako laguntza-mailara egokitutako arreta integrala eskatzen zutelako.

2024an hitzartutako etxebizitzetan eta egoitzetan zerbitzua jaso zutenetatik erdiak baino gehiago (% 59) gizonak izan ziren.

**EGOITZA-PLAZEN ETA ERABILTZAILEEN GARAPENA (1989-2024)**




2024an, zuzenean nahiz zeharka kudeatutako egoitza-zentro eta etxebizitza lagundu guztietan bizi-kalitatean oinarrituriko arreta-eredua modu progresiboan ezartzen jarraitu da, eta azpimarratu beharra dago, duen garrantziagatik, erabiltzaile bakoitzaren Bizimoduaren Baloraziorako eta Funtsezko Plangintzarako Prozedura (BEFP) finkatu egin dela.



# 3.4.8.
# ATSEDEN-ZERBITZUAK

### 3.4.8.1. Desgaitasuna duten helduentzako atseden-zerbitzua

Egoitza-zentroetako atsedenaldi-zerbitzuan, eskari osoari erantzun zaio 2024an. Halako egonaldiak familiaren atsedena ahalbidetzeko, bidaietarako, senideen osasun-egonaldietarako eta antzeko helburuetarako egiten dira. Izan ere, arrazoi horien ondorioz, egonaldiak eskatzen dituzten pertsonak ezin dira desgaitasuna duten pertsonez arduratu denbora-tarte laburrean.

Zentroetako egonaldi laburren programako erabiltzaileak 85 izan dira 2024ko ekitaldian, eta guztira 2.214 egun.

| EGONALDI LABURRAK | G | E | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| ARABARREN egoitza | 3 | 3 | 6 |
| ETXEBIDEA egoitza | 24 | 32 | 56 |
| GOIZALDE egoitza | 6 | 7 | 13 |
| PEDRO ASÚA etxebizitza lagundua | 0 | 8 | 8 |
| PORTAL DE CASTILLA etxebizitza lagundua | 6 | 6 | 12 |
| BASOA etxebizitza lagundua | 15 | 4 | 19 |
| DONOSTI etxebizitza lagundua | 0 | 3 | 3 |
| LLODIO etxebizitza lagundua | 8 | 4 | 12 |
| OYÓN etxebizitza lagundua | 6 | 10 | 16 |
| SIERRA DE URBASA etxebizitza lagundua | 1 | 0 | 1 |
| VALENTIN DE FORONDA etxebizitza lagundua | 17 | 10 | 27 |
| ZALDIARAN etxebizitza lagundua | 17 | 2 | 19 |
| **GUZTIRA** | **103** | **89** | **192** |

### 3.4.8.2. Desgaitasuna duten umeentzako atseden-zerbitzua itunpeko kudeaketako etxebizitza propioetan

Zuzeneko kudeaketako etxebizitzetan eskaintzen den atseden-zerbitzuaz gainera, Arloak familia-laguntzarako programa ere badu (atsedena), APDEMAk kudeatua, desgaitasuna duten seme-alaben familiei asteburuetan eta oporraldietan atseden hartzea ahalbidetzeko.

Programan, aisialdiko jarduerak garatzen dira nagusiki.

Zerbitzua asteburuero eskaintzen da, urte osoan, ostiral arratsaldetik astelehen goizera. Gainera, 5 eguneko egonaldia eskaintzen die familia guztiei.

2024an, programak 8 neska eta 15 mutil artatu ditu, guztiak 10 eta 20 urte bitartekoak.

# 3.4.9. BALIABIDE OKUPAZIONALAK

Zentro okupazionalak bizitza sozialean desgaitasunak dituzten pertsonen parte-hartze aktiboa errazteko zerbitzuak dira; horretarako, garapen pertsonaleko programak abiatzen dira.

GOFEren zentro okupazionalen xedea da adimen-desgaitasuna duten 18 eta 64 urte bitarteko pertsonen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzeko bidean aurrera egitea. Bizi-kalitatea ongizate pertsonaleko egoera gisa ulertzen da, honako eremu hauek barne hartuta: garapen pertsonala, autodeterminazioa, pertsonen arteko harremanak, inklusioa, eskubideak, eta ongizate emozional, fisiko eta materiala.

Zentro okupazionaletan, funtsean, ikaskuntza- eta trebakuntza-jarduerak egiten dira, desgaitasuna dutenen garapen iraunkorreko beharrei erantzuten dietenak. Halaber, laneko jarduerak garatzen dira, pertsona horiek autonomia pertsonaleko, egokitzapeneko eta komunitatean parte hartzeko maila handiagoetara iristea lortzeko baliabide gisa.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| SALBURUA zentro okupazionala | 40 | GOFE | 16 | 23 | 39 | 15 | 21 | 36 |
| HELIOS zentro okupazionala | 40 | GOFE | 28 | 12 | 40 | 27 | 12 | 39 |
| PUERTO RICO zentro okupazionala | 50 | GOFE | 28 | 22 | 50 | 26 | 22 | 48 |
| LANTZE zentro okupazionala | 50 | GOFE | 25 | 23 | 48 | 22 | 21 | 43 |
| KIMU zentro okupazionala | 30 | GOFE | 10 | 16 | 26 | 10 | 16 | 26 |
| ARBULU zentro okupazionala | 8 | GOFE | 8 | 1 | 9 | 6 | 1 | 7 |
| ADURTZA zentro okupazionala | 40 | GOFE | 19 | 20 | 39 | 19 | 20 | 39 |
| ARIZNABARRA zentro okupazionala | 40 | GOFE | 13 | 27 | 40 | 10 | 27 | 37 |
| LAKUA zentro okupazionala | 56 | GOFE | 35 | 24 | 59 | 32 | 23 | 55 |
| ARRIAGA zentro okupazionala | 56 | GOFE | 30 | 24 | 54 | 27 | 22 | 49 |
| **GUZTIRA** | **410** | | **212** | **192** | **404** | **194** | **185** | **379** |

2024an, GOFEren 10 zentro okupazionalek 404 erabiltzaile izan dituzte. Zentroetatik zazpi Gasteizen egon dira, bat Oionen, beste bat Laudion, eta hamargarrena Arbulun.

Zentroetako erabiltzaileetatik ia erdiak emakumeak izan ziren, beste erdiak gizonak. 2024ko abenduaren 31n, ez zegoen inor itxaron-zerrenda errealeko egoeran.

Zenbait zentro okupazionalek informatikari lotutako jarduueretan parte hartzen dute, Gasteizko KZ Guneen sarearekin lankidetzan.

Lantze LZren eta Laudioko Udalaren artean lankidetza-hitzarmena egin da, kanpoaldean egiten diren jardueren zati bat garatzeko: KZ Gunea, igerilekua, kiroldegia, zinema. Udalak kostu osoa hartu du bere gain.

## 3.4.10. GARRAIO EGOKITUKO ZERBITZUA

Urtero, mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzako laguntzen deialdia egiten da, taxi-zerbitzua garraiobide alternatibo gisa erabil dezaten. 2024an, 1.048 lagunek jaso zituzten laguntza horiek, kuadrillaka honela banatuta:

| KUADRILLA | G | E | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| AÑANA | 10 | 13 | 23 |
| AIARA | 74 | 98 | 172 |
| GORBEIALDEA | 14 | 16 | 30 |
| ARABAKO LAUTADA | 35 | 57 | 92 |
| MENDIALDEA | 1 | 0 | 1 |
| ARABAKO ERRIOXA | 9 | 6 | 15 |
| GASTEIZ | 295 | 420 | 715 |
| **GUZTIRA** | **438** | **610** | **1.048** |

**PLAZA KOPURUA ETA ERBAILTZAILEEN GARAPENA (2017-2024)**

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Erabiltzaileak** | 516 | 527 | 547 | 511 | 564 | 648 | 728 | 1.048 |

# 3.4.11. PROGRAMAK

### 3.4.11.1. Aisia eta astialdia

2024an, desgaitasunaren arloko hainbat erakunderekin lankidetza-hitzarmenak izenpetu ziren, hala nola APDEMA, ASPACE, ATECE eta Autismo Arabarekin. Horien bidez, desgaitasuna duten pertsonek aisia-, kirol- eta astialdi-programez gozatu ahal izan dute.

GOFEk aisialdi-programa garatzen jarraitu zuen Talur enpresarekin, adimen-desgaitasuna duten 30 pertsonak (22 gizon eta 8 emakume) Barriako aterpetxeko udalekuetan parte hartzea ahalbidetu zuena.

### 3.4.11.2. Mugimendu asoziatiboarekin lankidetza

2024an, zenbait hitzarmen izenpetu (edo luzatu) dira hirugarren sektoreko elkarteekin, foru-eskumeneko gizarte-zerbitzuetako jarduera osagarriak aurrera eraman ahal izateko:

- **Lankidetza-hitzarmena ATECE elkartearekin (hartutako kalte zerebralaren Arabako elkartea)**, kalte zerebrala duten pertsonentzako eta haien senideentzako jarduerak garatzeko, eta elkarteak berak funtzionatzen jarraitzeko. Hiru eremutan egiten du lan: etxera itzultzeko harrera- eta prestakuntza-programa, gizarte-sentsibilizazioa eta errehabilitazio-prozesuan laguntzea.

  2024an, eta isolamendu-aldia gainditu ondoren, diruz lagundutako jarduerek aukera eman zuten hainbat programa egiteko: aisialdikoak, profesionalen prestakuntzakoak, fisioterapiakoak, gizarte-arretako zerbitzukoak, logopediakoak, psikologiakoak, terapia okupazionalekoak, kiroletakoak, familietakoak eta askotariko lantegietakoak.
- **Lankidetza-hitzarmena AEMAR elkartearekin (esklerosi anizkoitzaren Arabako elkartea)**, jarduerak garatzeko. 2024an, honako hauek egin dira: informazioa eta aholkularitza, fisioterapia, hidroterapia, terapia okupazionala, laguntza psikologikoa, logopedia, arteterapia, garraio egokitua, aisialdia eta denbora librea, argazki-tailerra eta jarduera fisikoaren sustapena.
- **Lankidetza-hitzarmenak Arabako Gorrak elkartearekin (Arabako gorren elkartea)**, elkartearen jarduerei eusteko eta gauzatzeko; eta elkarte horrekin eta Gasteizko Udalarekin erakunde arteko lankidetza-hitzarmena, zeinu-hizkuntzaren interprete-zerbitzua emateko hainbat izapide eta zerbitzu ezartzeko.
- **Lankidetza-hitzarmena Vicente Abreu Federazioarekin, lokalak mantentzeko**. 2024an, desgaitasuna duten pertsonen eta adinekoen 21 elkarteren egoitza izan da, eta hitzarmenaren helburua da bai langile-gastuak (atezainak eta administrari laguntzaileak) bai federazioaren lokalak mantentzeko gastuak ordaintzea.
- **Lankidetza-hitzarmenak ASPANAFOA elkartearekin (Arabako haur onkohematologikoen gurasoen elkartea)**, tratamendu onkologikoa jasotzen ari diren adingabeak dituzten eta 2024an beste hiri batzuetara lekualdatu diren 44 familiari (horietako 10ek laguntza psikologikoa jasotzen dute) laguntza psikosoziala emateko programa egiteko.
- **Lankidetza-hitzarmena desgaitasun fisikoa duten pertsonen Arabako Eginaren Eginez elkartearekin**, elkartearen funtzionamendurako eta haren jarduerak garatzeko. Eskainitako zerbitzu eta programen artean, gizarte-lana, aholkularitza juridikoa eta laguntza teknikoen mailegua aipa daitezke.

  2024ko programak eta jarduerak: bizitza independentea, emakumea eta aniztasuna, hezkuntza, haurrak eta gazteak, gizarte-komunikazioa, irisgarritasunaren sustapena, Lanari Ekiten, Herriz Herri, harremanak kolektiboarekin, gizarte-proaktibazioa eta sareko lana.
- **Lankidetza-hitzarmenak ASPACE elkartearekin (garuneko paralisia eta antzeko gaitzak dituztenen aldeko Arabako elkartea)**, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako, pertsonarengan ardazturiko plangintza hartzen da abiapuntutzat, programen barruko jardueren bidez.

- **Lankidetza-hitzarmena ASPASOR elkartearekin (Arabako pertsona gorren guraso eta adiskideen elkartea)**, elkartearen jardueren funtzionamendurako eta garapenerako. 2024an, programa hauek egin ziren: mugimendu asoziatiboaren sustapena, autonomia eta bizimodu independentea, familientzako laguntza eta enplegu lagundua.
- **Lankidetza-hitzarmena APDEMA elkartearekin (adimen-desgaitasuna duten pertsonen aldeko Arabako elkartea)**. Elkarteak familiak orientatzeko eta haiekin esku hartzeko jarduerak egiten ditu, lege-gaietan laguntzeaz eta baliabideei buruzko informazioa emateaz gain. Gainera, batzordeak eta lantaldeak osatu dira gai interesgarriei buruz. Honako hauek dira nabarmendu beharreko programak (batzuk beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan egin dira): Jarduerak komunitatean (aisialdia asteburuetan), Bidaiak (oporretako irteerak Pazko-astean), Ahots propioa duten emakumeak (autonomiaren sustapena), Zahartze aktiboa (45 urtetik gorakoentzako aisialdia), Dis-kultura modo on (nahi gabeko bakardadeen aurkako kultur inklusioa), Kirola (kirol-jarduerak), EPE (enplegu publikorako prestakuntza) irisgarriak, Prestakuntza eta enplegua (Ereiten) (lan-munduan txertatzeko) eta Dis-kultura gazteak modo on (adimen-desgaitasuna duten gazteen kultur inklusioa udalaren kultur eskaintzan).
- **Lankidetza-hitzarmena Itxaropena elkartearekin (ikusmen-urritasuna duten pertsonen Arabako elkartea).** 2024an, ebaluazio-, informazio- eta orientazio-zerbitzuak eman dira hainbat alorretan (enplegurako laguntza, laguntza psikosoziala, gizarte-aholkularitza eta teknologia berrien gainekoa), baita gizarte-sentsibilizazioko zerbitzuak ere. Aisia-, kultura-, kirol-, osasun- eta prestakuntza-jarduerak, eta hainbat zerbitzu espezifiko ere bai (laguntza, ikusmenaren errehabilitazioa eta aholkularitza juridikoa).
- **Lankidetza-hitzarmena Autismo Araba elkartearekin (autismoaren espektroaren nahastearen Arabako elkartea).** 2024an, bizitza komunitarioan erabat integratzen eta parte hartzen laguntzeko hainbat programa egin dira: gaikuntza psikosozialeko programa, familiari laguntzeko programa, aisialdi-programa, kirol-programa eta osasun-arretako programa.
- **Lankidetza-hitzarmena Isabel Orberekin, Down Araba Elkartea**, elkartearen funtzionamendua eta jarduerak garatzeko, “Enebizia” eta “Autonomia pertsonalaren eta bizimodu independentearen sustapena” programen bidez.

## 3.4.12.
## OHIKO ETXEBIZITZAN ETA NORBANAKOEN IBILGAILUETAN EGOKITZAPENAK EGITEKO ETA PRODUKTU BERRESKURAEZINAK ESKURATZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Desgaitasunen bat onartuta duten pertsonei banakako laguntzak emateko deialdi publikoa dago. Laguntza horien xedeak dira onuradunen bizi-kalitatea hobetzea, desgaitasunak sortzen dizkien beharrak asetzea, eta beren autonomia, garapen pertsonala eta gizarte-inklusioa sustatzea. Horretarako, prestazio ekonomiko bat emango zaie edo horren erabilera lagako da, osorik edo partzialki, desgaitasunagatik egin behar dituzten gastuak konpentsatzeko, dela ekintzaren baterako, dela laguntza-produkturen bat eskuratzeko, dela beharrezkoa duten zerbitzuren bat jasotzeko.

2024an, 296 eskaera jaso dira, eta horietatik 147 laguntza eman zaizkie guztira 92 pertsonari, honela banatuta:

| LAGUNTZAREN KONTZEPTUA | Guzt. | % |
|---|---|---|
| Etxebizitzaren irisgarritasuna | 21 | 14,38 |
| Etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak | 21 | 14,38 |
| Zainketetan eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak | 10 | 6,85 |
| Komunikazioan eta informazioan laguntzeko produktuak | 27 | 18,49 |
| Mugikortasuna bultzatzeko eta lekualdatzeko gaitasuna handitzeko | 68 | 45,89 |
| **GUZTIRA** | **147** | **100** |

## 3.4.13. BESTELAKO JARDUERAK

- Zentro okupazionaletan esperientzia berritzaileak finkatu dira, hala nola Irakurketa Errazeko Taldeak, Baratze Ekologikoen Proiektua Arbulun, Ingurumen Sailarekin “ikusten duzuna baino askoz gehiago dago” proiektuaren garapena eta “Besarkadak Desiratzen” proiektua Maiatzeko Poeten esparruan.
- Diziplina anitzeko 5 lantalde eratu dira protokoloak, jarduera izarrak, lantegi-eremua, enplegu-zentroak eta okupazionalak, eta genero-berdintasuna berrikusteko, funtzionamendua eguneratzeko, lan-aldaketak sustatzeko eta lanerako alternatibak bilatzeko zentro okupazionaletako erabiltzaileentzat.
- Desgaitasuna baloratzeko tresna berri bat abiatu da, urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuan oinarrituta, zeinak desgaitasun-maila aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen.
- 3 informazio-jardunaldi egin dira desgaitasunaren alorreko erakundeentzat, udaletako gizarte-langileentzat, osasun mentaleko sarearentzat, Osakidetzarentzat... balorazio-tresna berria ezagutarazteko.
- APZko profesionalek EHUko Erizaintzako Unibertsitate Eskolarekin lankidetzan jarraitu du “Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta” moduluan, ikasleei arlo hauetako oinarrizko ezagutzen berri emateko: irisgarritasun eta erabilgarritasun unibertsala, laguntza-produktu eta -teknologiak (bereziki, mugikortasunerako produktuen alderdi ergonomikoak kontuan hartuta), komunikazio-sistema areagotzaileak eta alternatiboak, IKTetako gailuen eskuragarritasuna, HGP (haurren garun-paralisia) diagnostikoa duten pertsonen ezaugarriak eta antzeko beste batzuk, betiere arretaren ikuspegitik.
- Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan GIZAREA zaintzako arreta-eredua aplikatzen hasi gara.
- Jardunbide egokien gidak erabilidira Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko zentro eta zerbitzuetan.
- Adimen-desgaitasuna duten pertsona zahartuentzako 2 bizikidetza-unitate jarri dira martxan, 15 eta 25 plazakoak Sanitas eta Arabarren zaintza-zentroetan, hurrenez hurren.
- Kalte fisiko larria duten pertsonentzako 25 plaza berri sortu dira Arabarren zaintza-zentroko “Desgaitasun Fisikoa” moduluan.
- Lakondoa Arreta Integraleko Zentroaren eraberritze integrala egin da, adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroko 25 plaza eta 12 egoitza-plaza sortzeko laster.
- Araban Bizimodu Independentearen Bulegoa (BIB) ezartzeko gune bat eraberritzeko izapideak egin, eta eraberritzeari ekin zaio.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu gara berriro, Arloaren zentro okupazionaletan Zereginen Ikaskuntzako ikasleek praktikak egin zitzaten. Gainera, praktika horiek arautzen dituen bi erakundeen arteko lankidetza-hitzarmena berrikusi egingo da.
- Etxebidea egoitza hobetzeko eta handitzeko hobekuntza-lanen zerrenda sustatu da.
- Aiarako Haranean 2 baliabide berriren eraikuntza sustatu da: 15 plazako eguneko zentro bat eta 8 plazako 2 etxebizitza lagundu.

# 3.5. ADINGABEEN ETA FAMILIAREN ARLOA

Adingabeen eta Familiaren Arloaren eginkizuna da haurrak eta nerabeak babesteko Foru Aldundiari dagozkion eskumenak gauzatzea, lurralde-zerbitzu espezializatu gisa. Hala, zeregin hori garatzeko zerbitzuak eta programak kudeatzen ditu, bai familiarentzako nahiz komunitaterako jarduketen mailan bai adingabekoentzako jarduketen mailan.

## 3.5.1. ADINGABEEN ETA FAMILIAREN ARLOAREN ANTOLAMENDUA

**ZUZENDARIORDETZA TEKNIKOA**

### Harrera eta Balorazio Unitatea

**Larrialdietarako harrera-programa**

- Ibaia zentroa*
- Hazaldi zentroa*
- Bideberria zentroa (0, I)*

**Babesgabeen ikerketa- eta balorazio-programak**

### Familia Zaintzeko Unitatea

**Familian esku hartzeko programak**

- Familiako hezkuntzako esku-hartzea
- Familiako hezkuntzako esku-hartzea adingabe ijitoekin eta haien familiekin
- Esku-hartze terapeutikoa

**Amentzako egoitza-zentroa**

- Castillo de Portilla etxea*

**Bisiten Unitatea**

**Gizarte- eta hezkuntza-alorreko programak. Eguneko zentroak**

- Llodio EZ**
- CET Gasteiz EZ*
- Gao Lacho Drom EZ*
- Vicente Aleixandre EZ*
- Egunean-Egunean EZ*

### Egoitza Harrerako Unitatea

**Oinarrizko arreta-programa**

- Geroa etxea
- Hazten etxea*
- Sendoa etxea*
- Paula Montal etxea*
- Hazibide etxea*
- Fuente de la Salud etxea*
- Pablo Uranga etxea*
- Txalaparta etxea*

**Emantzipaziorako prestatzeko zentroak eta emantzipaziorako zentroak**

- Ekilore etxebizitza*
- Xabier etxebizitza*
- Bideberria zentroa (II, III)*

**Nerabeak artatzeko programa espezializatua**

- CET Gasteiz etxea*
- Etxabarri Zentroa*

**Beste egoitza-programa espezializatu batzuk*****

### Familia Harrera eta Adopzio Unitatea

**Programak**

- Estatuko eta nazioarteko adopzioak
- Familia-harrera
- Adingabe atzerritarren aldi baterako lekualdatzea

** Kudeaketa hitzartua/itundua*
*** Udal-kudeaketa/foru-finantzaketa*
**** Plaza itunduak*

| LANPOSTUAK | 2024 |
|---|---|
| Adingabeen eta Familiaren Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| Harrera- eta balorazio-unitateko burua | 1 |
| Egoitza-harrera unitateko burua | 1 |
| Familia-harreraren eta adopzioen unitateko burua | 1 |
| Familia babesteko unitateko burua | 1 |
| Administrazio orokorreko goi-mailako teknikaria | 10 |
| Psikologoa | 1 |
| Haurren hezitzaileak | 14 |
| Gizarte-langilea | 6 |
| Administraria | 4 |
| Etxeko andreak edo gizonak | 1 |
| **GUZTIRA** | **41** |

## 3.5.2. ADINGABEEN ETA FAMILIAREN ARLOKO ZERBITZU OROKORRA

Programa honen barruan, GOFEko Adingabeen eta Familiaren Arloko Zuzendariordetzari eta Zerbitzu Komun edo Orokorrei dagokien zuzkidura dago. Helburu nagusia da bere ardurapeko zerbitzuak eta programak koordinatzea, eta horien antolaketaz eta kudeaketaz arduratzea.

## 3.5.3. ADINGABEEN BABESGABETASUNA IKERTZEA ETA BALORATZEA

Zerbitzu honetan, haurren babesgabetasun-maila zehazten da (arriskua edo babesgabetasuna), eta detektatutako beharrei erantzuteko baliabiderik edo laguntzarik egokienetara bideratzen dira. Kasu bakoitzak eskatzen dituen babes-neurriak ere proposatzen dira, bai eta larrialdi-egoerak ikertzen ere. Adingabe bat babesgabetasun-egoeran dagoela uste duten erakundeek, profesionalek, elkarteek eta abarrek egindako jakinarazpenak jaso ondoren hasten da.

Babesgabetasun-egoera da adingabeen zaintzarako legez ezarritako babes-eginbeharrak ez betetzeagatik edo ezin betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik sortzen den egoera, adingabeak beharrezko laguntza moral edo materialik gabe daudenean.

**Babesgabetasun-egoerei buruzko jakinarazpenak**

Babesgabetasun-egoeren gaineko 304 jakinarazpen jaso dira, Arabako Lurralde Historikoko hainbat udalerritako oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik, epaitegietatik, Fiskaltzatik, beste autonomia-erkidego batzuetatik, nazioarteko gizarte-zerbitzuetatik, osasun-zerbitzuetatik eta abarretatik. Jakinarazpenak honako hauei buruzkoak izan dira: arduragabekeria, tratu txar fisiko eta/edo emozionala, gurasoek ezin kasu egitea, abandonua eta, gehien errepikatu dena, gurasoen desgaitasuna seme-alaben jokabidea kontrolatzeko, baita gurasoen arteko gatazka-egoeretan dauden adingabeen manipulazioa ere.

**Espedientearen hasiera**

2024ko ekitaldian, 208 espediente berri hasi dira, babesgabetasun larriarekin lotuak, eta horiekin Adingabeen eta Familiaren Arloak hasierako kasuen plana prestatu du, 20.000 biztanletik beherako udalerrietako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan abiaturiko espedienteez gain, neurrizko babesgabetasuna edo babesgabetasun arina duten adingabeekin lotuak. Halaber, bakarrik dauden eta artatu diren adingabe atzerritarrei dagozkien 78 espediente hasi dira.

**Ikerketa eta balorazio psikosoziala**

2024an, ikerketa eta/edo balorazio psikosozialeko prozesuetan esku hartu da (ikerketa, balorazio psikosoziala, esku-hartzearen balorazioa eta berrikuspena) 78 familiatan (154 adingabe), Babesten Gipuzkoa S.L. enpresa esleipendunaren laguntzarekin.

78 familia horietatik, 50 Adingabeen eta Familiaren Arloan artatu dira, eta beste 28ak 20.000 biztanletik beherako udalerrietako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan.

**Tutoretzak eta zaintzak**

2024. urtean, 464 adingabe izan dira Adingabeen Kontseiluaren tutoretzapean, eta 77 zaintza-neurriarekin.

| EGOERA JURIDIKOA | ADINGABEAK 2024 | | | ADINGABEAK 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| TUTORETZA | 310 | 154 | 464 | 187 | 118 | 305 |
| ZAINTZA | 67 | 10 | 77 | 38 | 3 | 41 |

## 3.5.4.
## FAMILIAN ESKU-HARTZEKO PROGRAMAK

Familia- edo bizikidetza-unitateei gizarte-eta hezkuntza-laguntza eta/edo psikosoziala emateko programak dira, beren ardurapeko adingabeen bizikidetza eta/edo zaintza egokia ahalbidetzeko eta, hala badagokio, gurasoen, familiaren eta bizikidetzako eginkizunak eta erantzukizunak behar bezala betetzea zailtzen duten kontuak aldatzeko.

**Familian hezkuntza-alorrean esku hartzeko programa**

2024an, 364 familiatan esku hartu da, non 548 adingabe izan diren (251 neska eta 297 mutil); familia horietatik 245 babesgabetasun larrian egon dira (Adingabeen eta Familiaren Arloaren mende), eta 119 babesgabetasun neurrizkoan eta arinean (20.000 biztanletik beherako udalerrietako oinarrizko gizarte-zerbitzuen mende).

**Familian hezkuntza-alorrean esku hartzeko programa adingabe ijitoekin eta haien familiekin**

Familia ijitoetakoak diren eta babesgabetasun-egoera larrian dauden adingabeekin esku hartzeko programa honen helburua kulturarteko hurbilketa egitea da. Gao Lacho Drom Ijitoen Elkartearekin izenpeturiko lankidetza-hitzarmenaren bidez gauzatzen da.

2024an, familian hezkuntza-alorrean esku hartzeko programan 9 familiak hartu dute parte (7 neskato eta 12 mutiko), babesgabetasun-egoera larrian zeudenak.

**Gizarte- eta hezkuntza-programa eguneko zentroetan**

Eskolaz kanpoko eguneko arreta-zerbitzuak dira, bai familiei bai haur eta nerabeei laguntza emateko, helburua izanik adingabeen gizarte- eta eskola-integrazio egokia lortzea, gaitasunak berenganatuz eta babesgabetasun-egoeraren ondorioak murriztuz.

- **Laudioko EZko gizarte- eta hezkuntza-programak** 6 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeak artatzen ditu. 7 mutiko eta 2 neskatori eman zaie arreta 2024an, eta, abenduaren 31n, 3 mutiko eta 2 neskato zeuden programan.

  Eguneko zentro honetan artatutako kasuak babesgabetasun arinekoak eta ertainekoak izan dira, hau da, ez da babesgabetasun larriko kasurik artatu.
- **Gao Lacho Drom EZko gizarte- eta hezkuntza-programak** 6 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabeak artatzen ditu (adin-tarte handiagoa ere onar daiteke, neba-arreba taldeentzat). 12 plaza daude, eta 2024an 8 mutil eta 7 neska egon dira bertan; 2024ko abenduaren 31n, 6 mutil eta 5 neska zeuden bertan.
- **CET Gasteiz EZko gizarte- eta hezkuntza-programak** desegituraketa pertsonala duten eta/edo portaera-arazoak dituzten 12 eta 18 urte bitarteko nerabeak artatzen ditu. Guztira, urte osoan, 10 mutil eta neska bat artatu dira, eta abenduaren 31n 2 mutil zeuden zentroan.
- **Vicente Aleixandre EZko gizarte- eta hezkuntza-programak** babesgabetasun-egoera larrian dauden 3 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak artatzen ditu. 12 plaza ditu. Urte osoan, 18 adingabe artatu ditu (13 mutil eta 5 neska), eta urtearen amaieran 6 mutil eta 4 neska zeuden bertan.
- **Egunean-Egunean EZko gizarte- eta hezkuntza-programak** babesgabetasun-egoera larrian dauden 3 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak artatzen ditu. 12 plaza ditu. Urte osoan, 18 adingabe artatu ditu (9 mutil eta 9 neska), eta urtearen amaieran 5 mutil eta 4 neska zeuden bertan.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| LLODIO eguneko zentroa | 12 | LAUDIOKO UDALA (finantzaketaren % 80) | 7 | 2 | 9 | 3 | 2 | 5 |
| GAO LACHO DROM eguneko zentroa | 12 | GAO LACHO DROM elkartearekin hitzarmena | 8 | 7 | 15 | 6 | 5 | 11 |
| CET GASTEIZ eguneko zentroa | 4 | BABESTEN GIPUZKOA SLrekin kontratua | 10 | 1 | 11 | 2 | 0 | 2 |
| VICENTE ALEIXANDRE eguneko zentroa | 12 | BABESTEN GIPUZKOA SLrekin kontratua | 13 | 5 | 18 | 6 | 4 | 10 |
| EGUNEAN-EGUNEAN eguneko zentroa | 12 | BABESTEN GIPUZKOA SLrekin kontratua | 9 | 9 | 18 | 5 | 4 | 9 |
| **GUZTIRA** | **52** | | **47** | **24** | **71** | **22** | **15** | **37** |

**Esku-hartze terapeutikorako programa espezializatua**

Haur eta nerabe batzuek arreta pertsonal profesional espezializatua behar dutenez, Arloaren arreta-programetan ematen dena, urtean zehar pertsona batzuk banakako tratamendu psikopedagogikora, banako eta taldeko tratamendu terapeutikora, tratamendu logopedikora eta familia-terapiara bideratzen dira. Halaber, programak gurasoak, tutoreak eta/edo zaintzaileak ere artatzen ditu, hala badagokio.

Ediren Cooperativa de Salud enpresari esleitutako kontratuaren bidez kudeatuko da programa.

Guztira, 277 pertsona artatu dira, 157 emakume eta 118 gizon, eta bi lagun ez dira identifikatzen ez emakumeen ez gizonen sexuarekin. Kasu horietatik guztietatik 207 adingabeak dira, eta 70 helduak. 252 babesgabetasun larriko kasuak eta 25 babesgabetasun arineko edo neurrizko kasuak.

**Bisiten Unitatean familian esku hartzeko programa espezializatua**

Adingabeen eta Familiaren Arloko programetan parte hartzen duten adingabeen eta beren gurasoen edo senideen arteko bisitak eta topaketak egiteko, berrikusteko eta jarraitzeko lekua da.

Helburua da adingabeek familiekin eta familiek adingabeekin harremanak izateko duten eskubidea ez ezik, harremanok arreta- eta segurtasun-baldintza egokietan garatzeko eskubidea ere bermatzea, batez ere elkarrekintzek garapen fisiko, psikiko, afektibo eta emozionalerako ondorio kaltegarriak izan ditzaketen kasuetan.

2024ko ekitaldian, guztira 151 adingabek (89 neska eta 62 mutil) erabili zuten baliabide hau.

| BISITAK, BALIABIDE-MOTAREN ARABERA | MUTILAK | NESKAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Familia-harrera | 27 | 19 | 46 |
| Egoitza-harrera | 50 | 36 | 86 |
| Beste egoera batzuk | 12 | 7 | 19 |

** Badaude urtean zehar baliabidez aldatu diren eta kategoria batean baino gehiagotan zenbatzen dituzten adingabeak.*

# 3.5.5. FAMILIA-HARRERARAKO SUSTAPEN ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA

Familia-harrerako programak umeei familia bat ematea du helburu, denbora jakin batez haurraren zaintza bermatzeko gai izango dena eta bai hura zaintzeko bai hezteko betebeharra beteko duena, ondoren bere familiara bueltatzeko edo bere familia-bizitza osatuko duen beste familia batean integratzeko eta bere kalte emozionala konpontzeko.

Programa hau komunitatearen lankidetzan oinarrituta dago, zeinak, beharrezko legezko babesekin eta instituzionalekin, bere gain hartu behar duen adingabeak eta beren familiak zaintzeko eta babesteko ardura.

2024an, 24 harrera berri egin dira. 2024 osoan, 115 adingabe egon dira familia-harreran, eta urtearen bukaeran 94 adingabek jarraitzen zuten egoera horretan.

| FAMILIA-HARRERA | G | E | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Berriak | 13 | 11 | 24 |
| 2024 | 58 | 57 | 115 |
| 2024/12/31 | 45 | 49 | 94 |

**Familia-harreraren modalitatea, adingabeak pertsona edo familia hartzailearekin eman beharreko denboraren eta harekiko loturaren arabera**

- Urte osoan, aldi baterako 43 harrera, behin betiko 70 eta 2 urgente izan dira. Adingabeen arteko 65 beren familia zabalak hartuta egon dira, eta 50 beren familiatik kanpoko harreran.
- Urtearen amaieran, aldi baterako 34 harrera, 59 harrera iraunkor eta urgente bat zeuden. Horien artean, 54 adingabek familia zabalak hartuta eta 40k beren familiatik kanpoko harreran jarraitu dute.

**HARRERAN DUTEN ADINGABEAK**

| | 2024 | | | 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **HARRERA:** | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| Aldi baterakoa | 19 | 24 | 43 | 15 | 19 | 34 |
| Iraunkorra | 36 | 34 | 70 | 29 | 30 | 59 |
| Urgentea | 2 | 0 | 2 | 1 | 0 | 1 |
| **GUZTIRA** | **57** | **58** | **115** | **45** | **49** | **94** |
| **FAMILIAN:** | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| Zabala | 28 | 37 | 65 | 28 | 26 | 54 |
| Norberaren familiatik kanpo | 29 | 21 | 50 | 17 | 23 | 40 |
| **GUZTIRA** | **57** | **58** | **115** | **45** | **49** | **94** |

2024an, guztira, 97 familiak hartu dituzte adingabeak beren etxean, eta urtearen amaieran 83 familia hartzaile zeuden Arabako Lurralde Historikoan.

**FAMILIA HARTZAILEAK**

| | 2024 | 2024/12/31 |
|---|---|---|
| Besteren familiak | 41 | 32 |
| Familia zabalak | 56 | 51 |
| **GUZTIRA** | **97** | **83** |

2024an, 10 gaztek (5 mutil eta 5 neska) familia hartzailearekin bizitzen jarraitu dute adin-nagusitasunaren ondoren, eta familia-harrera osteko laguntza-programan artatu dituzte. Abenduaren 31n, 5 mutilek eta 4 neskak jarraitzen zuten programa horretan.

Familia-harreraren eta familia-harrera osteko laguntzaren ondoriozko ezohiko gastuetarako prestazio arruntak eta laguntza ekonomikoak kudeatu dira, eta ohiko 81 prestazio, familia-harrera osteko 10 prestazio eta aparteko gastuetarako 101 laguntza izapidetu dira (3 familia-laguntzarako, 11 optika-gastuetarako, 9 odontologia-gastuetarako, 43 jolas-hezkuntzako jarduerarako, 3 tratamendu medikoetarako, 21 eskola-laguntzarako eta 11 bestelako gastuetarako).

Familia harrerarako eta familia-harrera osteko jarraipenerako aparteko laguntza ekonomikoen 2024ko deialdia argitaratzeko gestioak egin dira.

**Adingabe atzerritarren aldi baterako lekualdaketa**

Adingabeen eta Familiaren Arloak, atzerriko adingabeen aldi baterako egonaldiak sustatzen dituzten erakundeek eskatuta, txostenak izapidetu ditu, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Egikaritze Araubidea onesten duen uztailaren 20ko 864/2001 Errege Dekretuaren 63. artikuluaren arabera; 4/2000 Lege Organikoa abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren eta adingabe atzerritarrak Euskal Autonomia Erkidegora aldi baterako lekualdatzeko programa humanitarioei buruzko abenduaren 26ko 188/2018 Dekretuaren bidez aldatu zen.

2024. urtean, 5 adingaberen oporrengatiko aldi baterako egonaldiari buruzko espedienteak baloratu dira, eta beste 3 ikasketetarako.

# 3.5.6.
# ADOPZIORAKO SUSTAPEN ETA LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA

Adopzio-programa aplikatzen da haurrak edo gazteak bere jatorrizko familian geratzerik edo bertara itzultzerik ez duen kasuetan, familia egonkor alternatiboa izan dezan, bertako helduek guraso-zeregina erabat eta behin betiko hartuko duten beren gain.

Adopzioa ez da familientzako zerbitzua, haur eta gazteentzat pentsatutakoa baizik; haur eta gazteen interesa lehenesten da bertan, haurrentzako gizarte-zerbitzuetako jarduera guztietan bezala.

Adopzio nazionalak eta nazioartekoak egiteko programak garatu dira. Nazioarteko adopziorako 4 eskaera eta adopzio nazionalerako 10 jaso dira. 2024an, 5 adopzio nazional eratu dira (4 mutiko), eta atzerrian beste 3 formalizatu.

2024an, 5 adopzio nazional eratu dira (4 mutiko), eta atzerrian beste 3 formalizatu.
Adopziorako eta adopzio osteko aldirako laguntza-programan, jarduera hauek egin dira:

- Adopzioari buruzko prestakuntza-tailerrak, 12 pertsona bertaratuta.
- Adopzio osteko programako hitzaldiak ez dira antolatu.
- Adopzio osteko orientabiderako ez da familiarik artatu.
- Adoptatutako pertsonen jatorriaren bilaketarako 5 eskaera artatu dira.
- 4 adopzio nazionalen osteko jarraipena egin da, nazioarteko adopzio osteko jarraipenean 22 kasu artatu dira, eta adoptatu aurreko zaintza-kasu baten jarraipena egin da.

**ADOPZIOEN ETA FAMILIA-HARREREN BILAKAERA 2005-2024**



# 3.5.7. EGOITZA-HARRERA

## 3.5.7.1. Programa orokorrak

### 3.5.7.1.1. Kasu urgenteetarako harrera-programa

**Hazaldi harrera- eta larrialdi-zentroa**

Babesgabetasun-egoera larrian egonik laguntzaren bat jaso arte edo familia ordezkatzeko neurriren bat hartu bitartean, beren etxebizitzatik kanpo egon behar duten adingabeek egonaldi laburrak egiteko zerbitzua da. Ama-harrerako zerbitzu bat du abandonatuta edo babesik gabe dauden hiru urtetik beherako haurrak artatzeko.

Zentroak 22 plaza ditu.

2024an, 50 adingabe (21 neska eta 29 mutil) egon dira bertan, eta urtearen bukaeran 24 zeuden (14 neska eta 10 mutil).

**Ibaia Harrerarako eta Larrialdietarako Zentroa**

Zentro honek laguntza osoa ematen die 12 eta 18 urte bitarteko adingabeei, baldin eta gizarte- eta familia-babesgabetasuneko egoeraren ondorioz premiazko esku-hartzea behar badute. 15 plaza ditu, eta 2024an 43 nerabe (24 neska eta 19 mutil) izan dira zentroan; urtearen amaieran, 16 adingabe (5 neska eta 11 mutil) zeuden.

**Bideberria larrialdietarako eta baloraziorako harrera-zentroa bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzat**

Bakarrik dauden 12 eta 18 urte bitarteko adingabe atzerritarrentzako baliabidea da. Helburu nagusia da gazte horien gizarte-, prestakuntza- eta lan-integrazioa bultzatzea, bai eta familia berriro biltzea sustatzea ere, horretarako baldintza egokiak egonez gero. 42 plazara arteko bi harrera-modulu ditu:

- Bideberria 0 larrialdietarako harrera-zentroa: 27 plaza, gehienez.
- Bideberria I baloraziorako zentroa: 15 plaza.

2024an, 200 mutil eta neska bat egon dira bertan, adingabeak, atzerritarrak eta bakarrik zeudenak; abenduaren 31n, lagundu gabeko 46 adingabe atzerritar ari ziren artatzen zentroan.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| HAZALDI | 22 | HIJAS DE LA CARIDAD hitzarmena | 29 | 21 | 50 | 15 | 7 | 22 |
| IBAIA | 15 | ITA CONSULTING kontratua | 19 | 24 | 43 | 11 | 5 | 16 |
| BIDEBERRIA 0 | 27 | URGATZI hitzarmena | 137 | 1 | 138 | 31 | 0 | 31 |
| BIDEBERRIA I | 15 | URGATZI hitzarmena | 63 | 0 | 63 | 15 | 0 | 15 |
| **GUZTIRA** | **79** | | **248** | **46** | **294** | **72** | **12** | **84** |

**HARRERARAKO ETA LARRIALDIETARAKO ZENTROETAKO PLAZA- ETA ERABILTZAILE-KOPURUAREN BILAKAERA (1994-2024)**




### 3.5.7.1.2. Oinarrizko programa

Programaren helburua da arreta osoa ematea denboraldi batez familia barruan beren behar material, afektibo eta hezkuntzakoak bete ezin dituzten 4 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeei. Guztira, 8 etxe daude, eta 72 plaza. Urtean osoan, 93 adingabe artatu dira bertan (47 neska eta 46 mutil), eta abenduaren 31n 70 adingabe (35 mutil eta 35 neska) bizi ziren zentro hauetan.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zuzeneko/zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| GEROA | 9 + 1* | GOFE | 5 | 10 | 15 | 3 | 7 | 10 |
| HAZTEN | 7 | BETI GIZARTEANekin hitzarmena | 6 | 3 | 9 | 5 | 2 | 7 |
| HAZIBIDE | 8 + 2* | NUEVO FUTURObrekin hitzarmena | 4 | 8 | 12 | 3 | 5 | 8 |
| PAULA MONTAL | 7 | | 7 | 4 | 11 | 4 | 3 | 7 |
| SENDOA | 8 | | 4 | 4 | 8 | 4 | 4 | 8 |
| FUENTE DE LA SALUD | 10 | IRSErekin kontratua | 5 | 7 | 12 | 5 | 5 | 10 |
| PABLO URANGA | 10 | | 8 | 5 | 13 | 7 | 3 | 10 |
| TXALAPARTA | 10 | | 8 | 5 | 13 | 4 | 6 | 10 |
| **GUZTIRA** | **72** | | **47** | **46** | **93** | **35** | **35** | **70** |

** Beste plaza bat du larrialdi-egoeretarako.*

**ETXEETAKO PLAZA- ETA ERABILTZAILE-KOPURUAREN BILAKAERA (2010-2024)**




### 3.5.7.1.3. Emantzipaziorako prestatzeko programa eta emantzipatzeko programa

**Emantzipaziorako Aukera programa**

**a. Emantzipaziorako prestatzeko Ekilore zentroa**
Zerbitzu hau 14 urtetik 18 urtera bitarteko nerabeak artatzeko da, eta kasu indibidualaren planean bizitza autonomorako prestakuntza jasotzen da. 12 plaza ditu.
2024ko ekitaldian, 9 mutilek eta 10 neskak jaso dute arreta, eta 2024ko abenduaren 31n 6 mutilek eta 6 neskak jarraitzen zuten bertan.

**b. Emantzipaziorako Xabier etxebizitza**
16 eta 18 urte bitarteko gazteei ematen zaie arreta, arretaren azken fasean. 5 plaza ditu.
Urte osoan, 8 neska eta mutil 1 artatu dira, eta abenduaren 31n 5 neska zeuden zentroan.

**Adingabe atzerritarrak emantzipatzeko Bideberria programa**

**a. Bideberria II emantzipaziorako prestatzeko zentroa**
Baliabide hau familiarik gabeko adingabe atzerritarrak prestatzeko da, 14 urtetik aurrera, autonomiarako eta gizarte-inklusiorako trantsizioan. 15 plaza ditu. 2024an, 34 mutil eta 3 neska egon dira bertan, eta abenduaren 31n 15 mutil zeuden (neskarik ez).

**b. Bideberria III emantzipaziorako etxebizitza**
Emantzipaziorako bi etxebizitza daude, unitate bakarra eratzen dutenak, gehienez 12 plazarekin. 16 urtetik gorako nerabeentzat da. 2024an, 33 mutili eta neska bati eman zaie zerbitzua, eta abenduaren 31n 14 mutil zeuden bertan.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| EKILORE emantzipaziorako prestatzeko zentroa | 12 | NUEVO FUTUROrekin kontratua | 9 | 10 | 19 | 6 | 6 | 12 |
| XABIER emantzipaziorako etxebizitza | 5 | | 1 | 8 | 9 | 0 | 5 | 5 |
| BIDEBERRIA II emantzipaziorako prestatzeko zentroa | 15 | URGATZI ELKARTEArekin hitzarmena | 34 | 3 | 37 | 15 | 0 | 15 |
| BIDEBERRIA III emantzipaziorako etxebizitza | 12 | | 33 | 1 | 34 | 14 | 0 | 14 |
| **GUZTIRA** | **44** | | **77** | **22** | **99** | **35** | **11** | **46** |

**EMANTZIPAZIORAKO FORU-ZENTRO ETA -ETXEBIZITZETAKO PLAZA- ETA ERABILTZAILE-KOPURUAREN BILAKAERA (2010-2024)**




### 3.5.7.2. Programa espezializatuak

#### 3.5.7.2.1. Jokabide-arazoak dituzten nerabeak artatzeko programa

13 eta 18 urte bitarteko nerabeentzako baliabideak dira, bereziki disruptiboak diren jokabideak dituztelako oinarrizko arreta-programaren esparruan artatu ezin direnentzat.

### CET Gasteiz hezkuntza-zentro terapeutikoa

Egoitza-arretako 21 plaza ditu, eta eguneko arretako.
36 adingabe (26 mutil eta 10 neska) artatu dira urte osoan, eta 2024ko abenduaren 31n 12 mutil eta 5 neska zeuden bertan.

### Etxebarri zentroa

2024an, baliabide honek Estibaliz Unitatearen lekukoa hartu zuen, eta jokabide-arazoak dituzten adingabeei arreta ematera bideratu da. 2024an, guztira 31 adingabe artatu ditu: 17 mutil eta 14 neska nerabe. Abenduaren 31n, 15 lagunek (9 mutil eta 6 neska) jarraitzen zuten bertan.

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| CET GASTEIZ | 21 | ITA CONSULTINGekin kontratua | 26 | 10 | 36 | 12 | 5 | 17 |
| ETXABARRI zentroa | 12+1* | NUEVO FUTURORekin hitzarmena | 17 | 14 | 31 | 9 | 6 | 15 |
| **GUZTIRA** | **34** | | **43** | **24** | **67** | **21** | **11** | **32** |

** Beste plaza bat du larrialdi-egoeretarako.*

**JOKABIDE-ARAZOAK DITUZTEN NERABEAK ARTATZEKO PROGRAMA ESPEZIALIZATUKO PLAZA- ETA ERABILTZAILE-KOPURUAREN BILAKAERA (2005-2024)**



### 3.5.7.2.2. Emakumeak eta haien 6 urtera arteko haurrak artatzeko Sortuleku programa. Castillo de Portilla etxea

Baliabide honetan, aldi batez harrera, laguntza eta gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzen zaie haurdun dauden eta/edo 6 urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeei (nerabeak eta adinez nagusiak), baldin eta arrisku handiko egoeran badaude, egoera hori alda badaiteke eta horrek babesgabetasun-egoerara eraman baditzake haurrak, familiaren eta gizartearen laguntzarik ez dutelako edo amentzako eurentzako eta beren amatasuna garatzeko baliabide pertsonalik ez dutelako. 7 plaza ditu.

2024. urtean, 2 familia-unitate egon dira bertan, guztira 7 lagun: 2 ama, 2 mutiko eta 2 neskato, baita 2024an adin-nagusitasunera iritsi den adingabe bat ere.

### 3.5.7.2.3. Beste programa espezializatu batzuk

Arabako Lurralde Historikoan titulartasun publikoko egoitza-harreraren tipologian eskaini ezin den arreta integrala behar duten eta defizit anizkoitzak eta behar bereziak dituzten adingabeak daudenez, GOFEk aldi baterako 36 plaza hitzartu ditu 2024an honako erakunde hauekin:

| ZENTROA | Plaza-kop. | Zeharkako kudeaketa | Erabiltzaileak 2024 | | | Erabiltzaileak 2024/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | G | E | GUZTIRA | G | E | GUZTIRA |
| RECURRA - GINSO egoitza | 17 | RECURRA GINSOrekin kontratua | 13 | 4 | 17 | 8 | 3 | 11 |
| MARINER egoitza (LA ALMENARA MADRID) | 3 | CONSULTING SOCIOSANITARIOrekin kontratua | 1 | 2 | 3 | 1 | 2 | 3 |
| LA CAÑADA etxea | 3 | CONSULTING SOCIOSANITARIOrekin kontratua | 3 | 0 | 3 | 3 | 0 | 3 |
| LA MARQUESA egoitza | 3 | ARCO IRIS FUNDAZIOArekin kontratua | 2 | 1 | 3 | 1 | 0 | 1 |
| OBRA SAN MARTÍN FUNDAZIOA (Kantabria) | 2 | OBRA SAN MARTÍN FUNDAZIOArekin kontratua | 2 | 0 | 2 | 2 | 0 | 2 |
| ITA ARGENTONA zentroa | 2 | ITA CONSULTINGekin kontratua | 0 | 2 | 2 | 0 | 1 | 1 |
| PERIPATOS egoitza (Madril) | 1 | EDUCACIÓN ESPECIAL PERIPATOS S.L. rekin kontratua | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| ETXEBIDEA egoitza | 2 | GOFE | 2 | 0 | 2 | 1 | 0 | 1 |
| ITA CANET | 1 | ITA CONSULTINGekin kontratua | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| ITA PRISMA CEREZO (Zaragoza) | 1 | ITA CONSULTINGekin kontratua | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| AITA MENNI | 1 | AITA MENNI FUNDAZIOArekin kontratua | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **36** | | **25** | **11** | **36** | **17** | **6** | **23** |

**BESTE PROGRAMA ESPEZIALIZATU BATZUETAKO PLAZA- ETA ERABILTZAILE-KOPURUAREN BILAKAERA (2005-2024)**




# 3.5.8.
# HARRERA OSTEKO JARRAIPEN-PROGRAMA

Adingabeen eta Familiaren Arloan espediente bat irekita izan duten gazteei laguntzeko eta haiek gaitzeko programa da. Batez ere, Adingabeen Kontseiluaren zaintzapean eta/edo tutoretzapean egon dira, etxeetan edo familia hartzaileetan.

Helburua gazte horiek beren kabuz bizitzeko gaitasuna eskuratzea da.

2024. urtean, familia- eta egoitza-harreratik etorritako 10 gazteri (6 mutil eta 4 neska) eman zaie harrera osteko laguntza eta jarraipena, eta 35 gaztek (16 mutil eta 19 neska) etxebizitza alokatzeko eta mantenurako laguntza ekonomikoak (63 laguntza) jaso dituzte.

# 3.5.9. BESTE JARDUERA BATZUK

- 20.000 biztanletik beherako udalerrietako oinarrizko gizarte-zerbitzuei laguntza teknikoa emateko zerbitzua, laguntza profesional espezializatua eskaintzeko eta haurren babesgabetasun-kasuetan esku hartzeko irizpideak bateratzeko.
- Datu estatistikoen bidalketarako laguntza, txostenak eta memoriak egiteko:
    - BOLETINF (Haurrak eta Adingabe Arau-hausleak Babesteko Neurrien Buletina).
    - ARARTEKOA (Euskadiko herriaren defentsarako bulegoa).
    - RUMI (Haurren Tratu Txarren Erregistro Bateratua).
    - ADIN (Nazioarteko Adopzio Araudiaren informazio-sistema lagungarria).
    - Ertzaintza eta Gobernuko Ordezkariordetza, bakarrik dauden adingabeen egoerari buruz.
- Erakundeen arteko lankidetza eta koordinazioak:
    - Babesgabetasun-kasuak Koordinatzeko Erakunde Arteko Akordio Teknikoaren jarraipena, Adingabeen eta Familiaren Arloaren eta Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuen artean.
    - Osasun mentaleko arazoak dituzten eta zaurgarritasun-, arrisku- edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabeekin jarduteko ibilbideen eguneratzea (Batzorde Soziosanitarioko lantaldea).
    - Eusko Jaurlaritzaren 2018-2022 epealdirako Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren tarteko ebaluazioa. Aurreikusitako ekintzen bidalketa eta Planaren ebaluazioa.
    - Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioaren Autonomia-erkidegoen arteko Haurren Batzorderako ekarpenak.
    - Lankidetza adingabeentzako zentroetan erradikalizazioa prebenitzeko planarekin (Islamismo erradikalaren aurkako plan estrategikoa Euskadin).
    - Parte-hartzea Eusko Jaurlaritzak eta Save the children erakundeak bideraturiko Barnahus proiektu pilotuan, Araban ezartzeko.
    - Lankidetza Adingabeen Fiskaltzarekin, Ertzaintzarekin, Udaltzaingoarekin, Gasteizko Udalarekin, Gobernuko Ordezkariordetzarekin, Atzerritarren Probintziako Brigadarekin eta Osakidetzarekin, bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin esku hartzeko protokoloa berrikusteko eta eguneratzeko, adina zehazteko probak egiteko, pasaporteak berritzeko eta eskatzeko, bizileku-baimenak emateko eta abar.

Beste lankidetza batzuk:

- Arrakasta programa. Arabako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetza-hitzarmenaren jarraipena eta koordinazioa, EHUko graduko ikasketak egin ditzaketen edo egiten ari diren tutoretzapeko gazteen integrazioa bideratzeko eta errazteko, unibertsitate-ikasketak egin ditzaten.
- Parte-hartzea Eusko Jaurlaritzarekin eta beste erakunde publiko batzuekin EUSKARRI ereduaren ezarpenean, tutoretzapean egondako adingabe eta gazteei bizimodu independentea egiten laguntzeko.
- Parte-hartzea Ceutarekin eta Kanariekin jarduketa-protokoloen eraketan, bakarrik dauden adingabe migratzaileak lekualdatzeko.
- Parte-hartzea eta lankidetza REDES AFErekin Araban familia-harrera espezializatuarekin lotutako proiektu pilotu bat ezartzeko.
- Arabako Lurralde Historikoko haurrentzako gizarte-zerbitzuen jardunerako HAURREN ESKULIBURUAren berrikuspena eta eguneratzea, EHUrekin lankidetzan.

| HITZARMENA/ KONTRATUA | Erakundea | Kontzeptua |
|---|---|---|
| Hitzarmena | GAO LACHO DROM ELKARTEA | Adingabe ijitoekin eta haien familiekin hezkuntza-arloan esku hartzeko programa. |
| Kontratua | IZEKI ELKARTEA | Bisiten Unitatearen kudeaketa. |
| Kontratua | DELTA SEGURTASUNA | Bisiten Unitateko segurtasun-zerbitzua. |
| Kontratua | NUEVO FUTURO ELKARTEA | Nerabeen emantzipaziorako Aukera programa. |
| Kontratua | AGINTZARI | Familia-harrerari laguntzeko programa integrala. |
| Kontratua | EDIREN OSASUN KOOPERATIBA | Babesgabetasun-egoera arinean edo neurrizkoan (Gasteiz izan ezik) eta larrian dauden adingabeentzako eta haien familientzako arreta psikologiko eta psikopedagogikorako zerbitzua. |
| Kontratua | BABESTEN GIPUZKOA S.L. | • Familian gizarte- eta hezkuntza-alorrean esku hartzeko zerbitzua, babesgabetasun larria.<br>• Arabako Lurralde Historikoan babesgabetasun-egoera arinean eta neurrizkoan dauden familietan gizarte- eta hezkuntza-alorrean esku hartzeko zerbitzua, Gasteizen izan ezik.<br>• Babesgabetasun-egoera larrien balorazio psikosozialerako zerbitzua.<br>• Landa-eremuko babesgabetasunaren eta familia-babesaren balorazio psikosozialerako zerbitzua. |

# 3.6. GIZARTERATZEAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN ARLOA

Abenduaren 23ko 29/2024 Foru Dekretuak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua aldatu du, gizarte- eta lege-premia berrietara egokitzeko, eta Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloa sortu du, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonei eta indarkeria matxistaren biktimei arreta espezializatuagoa eta koordinatuagoa emateko beharrari erantzuteko.

Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloko Zuzendariordetza Tekniko berriak bere gain hartu ditu lehen Gizartegintza Arloari zegozkion funtzioak, eta, horrela, kudeaketa eraginkorragoa eta arlo horietan ardaztuagoa izatea ahalbidetuko du.

Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloko Zuzendariordetza Teknikoari dagokio:

**a)** Honako hauei berariaz zuzendutako zerbitzu guztiak kudeatzea:

- Baztertuta dauden pertsonen gizarteratzea.
- Gaixotasun mentala duten pertsonak.
- Biolentzia matxistaren biktima diren emakumeak.

**b)** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen mendeko zentroak kudeatzea, arloaren egitura deszentralizatuaren bidez, baldin eta zentro horiek zerbitzu espezifikoak ematen badizkiete aurreko letran aipatutako kolektiboei.

**c)** Erakundeak irabazi-asmorik gabeko entitate publiko eta pribatuei dirulaguntzak emateko egiten dituen deialdi publiko guztiak izapidetzea eta ebazpenerako proposamena egitea.

**d)** a) letran aipatutako kolektiboei zerbitzu espezifikoak ematen dizkieten erakunde autonomoak zeharka kudeatutako zentroen asistentzia-kalitatearen hobekuntzaren jarraipena egitea eta hobekuntzak bultzatzea.

**e)** Beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin sinatutako kontratuen, itunen eta lankidetza-hitzarmenen jarraipena eta kontrola egitea, baldin eta arlo honen jarduera-eremuarekin zuzeneko lotura badute.

**f)** Dagoeneko arlo honetan txertatuta dauden gizarte-baliabideetako edozeinetara iristeko eskaeren administrazio-izapideak egitea, arlo honetan dagoeneko arreta jaso duten pertsonek egindakoena, eta erakunde autonomoko Kudeaketako Zuzendaritzari dagozkion ebazpen-proposamenak helaraztea.

**g)** Bere eskumen-eremuan asoziazionismoa sustatzea.

**h)** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendaritza-organoei aholku teknikoak ematea arlo honen jarduera-eremuarekin zerikusia duten gaiei buruz, eta, halaber, dauden beharrak aztertzea eta horien gaineko proposamenak egitea Kudeaketako Zuzendaritzari.

**i)** Erakundeen arteko koordinazioa, arlo honen jardun-eremuan.

Arlo honi Gizartegintza Arloko 15 lanpostu atxikitzen zaizkio, eta honela geratzen da:

| LANGILEAK | 2024 |
|---|---|
| Gizarteratzearen eta Indarkeria Matxistaren Arloko zuzendariorde teknikoa | 1 |
| Gizartegintza Arloko goi-mailako teknikaria | 1 |
| Psikologoa | 1 |
| Programa sektorialen koordinatzailea | 1 |
| Gizarte-langilea | 3 |
| Zerbitzu balioaniztunetako erdi-mailako teknikaria | 5 |
| Prebentzio komunitarioko teknikaria | 3 |
| Administraria | 1 |
| **GUZTIRA** | **15** |

# 4
# INDESA 2010 S.L.

# 4.1. XEDEA ETA ANTOLAMENDUA

INDESA 2010 S.L. foru-sozietate publikoa da, Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren 2010eko azaroaren 2ko 712/2010 erabakiaren bidez eratua, eta 2022. urtea hamabigarren ekitaldia du sozietate mugatuaren formarekin eta berezko ondarearekin eta langileekin egiten duen ibilbidean. 2012an, Arabako Foru Aldundia, Laudioko, Burgeluko, Oiongo, Aiarako eta Arratzua-Ubarrundiako udalak elkartearen barruan sartu ziren; 2014an, Gasteizko Udala; 2016an, Arabako Batzar Nagusiak; eta 2018an, Eusko Jaurlaritza.

INDESA 2010 S.L.ren xede soziala hauxe da:

- Kalitatezko lan-aukerak sortzea, eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-aldetik jasangarriak, Araban desgaitasuna duten pertsonentzat, lan-munduan txerta eta gizartera daitezen lortzeko, betiere enplegu bereziko zentro gisa.
- Gaur egungo edo etorkizuneko legerian sartzen edo sartuko den edozein jarduera sustatuko du, desgaitasuna duten pertsonak enplegu arruntean aritzea errazten badu, baita pertsonentzako, gizartearentzako edo oro har industriarako zerbitzu-jarduerak ere, inolako mugarik gabe, bere xedean azaldutakoak izan ezik, desgaitasuna duten pertsonek enplegua eskuratzeko balio badute. Enplegu-zerbitzu publikoekiko lankidetza bultzatuko du, desgaitasuna duten pertsonak lanerako gaitzeko eta orientatzeko. Gainera, enplegagarritasun zaila duten kolektiboei enplegua ematen dien lan-bitartekaritza sustatuko du, bai babestutako enpleguaren eremuan bai enplegu arruntarenean.
- Honako jarduera hauek egitea, administrazio publikoek edo botere adjudikatzaileek agindutakoaren arabera:
    - Pertsonentzako zerbitzuak: garbiketa, garbitegia eta eraberritzea egoitza-alorrean.
    - Gizarterako zerbitzuak: eraikinak garbitzea, egoitzetako edo ospitaleko arropa garbitzea, berdeguneak mantentzea eta eraberritzea.
    - Industriarako zerbitzuak, oro har: jarduera espezializatuak edo industriak berezko dituen jarduerak, izan ekoizpen-prozesuaren parte edo jarduera edo zerbitzu lagungarria, baina industria-jarduera osorik gauzatzeko beharrezkoak (manipulatuak, mekanizatuak, muntaketak, salgaien erosketa, logistika, administrazioa, bilgarriak).
    - Gaur egun edo etorkizunean INDESA 2010 S.L.ren helburuak betetzeko beste edozein jarduera komenigarria.

INDESA 2010 S.L. sozietateak bere gain hartu du INDESAk (Integrazioa eta Garapena) egiten zuen jarduera guztia, hots, Arabako Lurralde Historikoan desgaitasuna duten pertsonentzat jorratzen ziren titulartasun publikoko lan-ekimen guztiak barne hartzen zituen Enplegu Zentro Berezia, Enplegu Zentro Berezien Erregistroan 111 zenbakiarekin inskribatuta dagoena, 1993ko uztailaren 12ko Ebazpenaren bidez berretsitako inskripzioa.

# 4.2.
# INDESA 2010 S.L.REN JARDUERA-ARLOAK

Enpresa honek garatzen duen jarduerak bi arlo dauzka:

- Industria-arloa (lantegiak).
- Zerbitzu-arloa.

## 4.2.1.
## INDUSTRIA-ARLOA (LANTEGIAK)

Arlo honek, halaber, bi produktu-ildo bereizi dauzka:

- **Industria-laguntzailea**

  Ildo honek ez du produkturik sortzen; aitzitik, eskainitako produktuak lurraldean edo inguruan finkatutako enpresek kanpora ateratako lan osagarriak egiteko dira, hala nola:

  - Mekanizatua eta muntaketa: aldez aurreko edo prozesuan murgildutako azpimultzo eta multzo mekanizatuen muntaketa, egiaztapenak ekoizpen-prozesuetan.
  - Blisterren diseinua eta fabrikazioa: PVC, PET… goi-mailako maiztasunez soldatzea, etengabeko poltsaratze bereziak.
  - Manipulatuak, oro har: piezen edo osagai poltsaratuen hautaketa eta multzokatzea, osagaien edo osagai-multzoen enbalatzeak.

- **Lorezaintza eta baratzezaintza**

  Ildo honetan, lorategi publiko eta pribatuak zaintzeko beharrizanetarako irtenbideak daude, bai eta erabilera publikoko berdeguneen mantentzea ere, dela unean uneko zerbitzuekin, dela aldian behingo mantentze-lanekin.

  - Proiektuak: zuhaitzak, zuhaixkak eta apaingarriak landatzea, belartzak eta zelaiak landatzea, ureztatze automatikoa instalatzea eta bulegoak lorategiz hornitzea (kanpoaldea eta barrualdea).
  - Mantentze-lanak: ureztatze-sistema (kontrola eta erregulazioa); tratamendu fitosanitarioak (prebentziozkoak eta berariazkoak izurriteak kontrolatzeko); belartzak eta zelaiak (ureztatzea, belarra moztea, belar txarrak kentzea, jorraldiak, ertzak moztea); berdeguneak (eskuzko garbiketa eta mekanikoa, sasiak garbitzea, tratamendu herbizidak, sasoiko loreak…); eta inausketak (zuhaitzak, zuhaixkak, landare igokariak, arrosondoak…).
  - Nekazaritzako ustiategiak: baratzeko produktuak saltzea; horretarako, kanpo-azalera bat du, plastikoz estalia. Landaketak EBko baldintzak betetzen dituzten tratamendu- eta nekazaritza-teknikak erabiliz egiten dira. Ildo honek, beraz, lorezaintzako tratamendu- eta mantentze-zerbitzu integrala ematen du, kanpoan kontratatzera bideratua, eta bere mintegiak erabiltzen ditu horretarako.

# 4.2.2.
# ZERBITZU-ARLOA

Aurreko arloan bezala, INDESAk eskaintzen dituen produktuen aukera oso zabala eta askotarikoa da.

**Sukalde industriala**

Catering zerbitzua hozkailuan gordetzeko menuak eginez. Zerbitzu honetan, lehengaiak egunero erosten dira eta hozkailuan gordetzen dira erabili arte. Behin janariak prestatuta, tenperatura 60 º-tik 3 º-ra jaisten da 20 minutu baino gutxiagoan, bakterioek sor dezaketen kutsadura ekiditeko. Hainbat puskatan edo banakako errazioetan platereratuta, etiketa bat ipintzen da produktua, osaera, produktua prestatzeko modua, noiz ontziratu den, noiz iraungiko den eta dieta-mota adierazteko.

**Garbitegi industriala**

Ikuztegi-zerbitzua emateko, lehenik arropak batzen dira bezeroaren etxean eta ondoren tratatu egiten dira. Tratamenduak honako hauek hartzen ditu barne:

- Garbiketa- eta higiene-prozesua
- Lehortzea
- Lisatzea
- Tolestea eta paketatzea
- Egunero arropa garbia ematea

Produktuak honela bana daitezke: arropa laua (maindireak, ohazalak...), felpa (eskuoihalak, komuneko alfonbrak...), mantelak eta musuzapiak, uniformeak eta lanerako arropa, langileen kaleko arropa eta bestelako produktuak.

**Garbiketa industriala**

Zerbitzu honek integrala izateko asmoa du, hau da, instalazioak ahalik eta ondoen zaindu nahi ditu, lokalen higienerik ahalik eta handiena eta pertsonen erosotasuna helburu. Horretarako, honako lan hauek egiten dira:

- Aldizkako garbiketak eta ohikoak, zehatzak edo unean unekoak.
- Tratamendu berezitua lurzoru eta zolatu, kristal eta leihoetan.
- Grafitien ezabaketa, etab.

Arlo horiek, garbiketa industriala izan ezik, Kimu (Oion), Lantze (Laudio), Lortu (Gasteiz) eta Zerbitzuak (Gasteiz) lantegietan egiten dira, non INDESA 2010 S.L.ko langileen % 70 ari diren lanean. Garbiketa industriala 50 zentrotan baino gehiagotan banatutako bezeroen enpresetan egiten da.

INDESA 2010 S.L.ren jardueraren eskatzaileak hala sektore publikoa nola sektore pribatua dira. Lehenarentzat, hainbat modutan egiten da lan: norbere baliabide instrumentala (foru-sektore publikoa) lankidetza-hitzarmenen bitartez edo lehiatutako lizitazio publikoen esleipendunen bitartez (gainerako sektore publikoa).

**Beste zerbitzu batzuk**

Laguntza teknikoen mantentzea eta ostalaritza-jarduera Forondako aireportuko kafetegiaren esleipenarekin.

# 4.3.
# INDESA 2010 S.L.REN ENPLEGUA

2024ko abenduan, 932 langile zeuden; horietatik 843k desgaitasunen bat zuten, eta 89 desgaitasunik gabeak ziren.

Betetzen duten lanbide-kategoriaren arabera, langileak honela daude banatuta:

| LANGILEAK | G | E | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| Zuzendari-kudeatzailea | 1 | 0 | 1 |
| Zuzendariak | 2 | 1 | 3 |
| Arloko eta lantegiko burutza | 6 | 2 | 8 |
| Prebentzio-teknikariak | 3 | 10 | 13 |
| Administraria | 1 | 1 | 2 |
| Ataleko arduradunak | 18 | 6 | 24 |
| Sekzioko arduradunak | 23 | 17 | 40 |
| Taldeko arduradunak | 51 | 43 | 94 |
| Langile kualifikatuak | 16 | 18 | 34 |
| A langile espezialistak | 182 | 144 | 326 |
| B langile espezialistak | 119 | 91 | 210 |
| Zuzeneko langileak | 106 | 71 | 177 |
| **GUZTIRA** | **528** | **404** | **932** |

Langileen **desgaitasun-mota** kontuan hartuta, ia erdiek, % 39,73k, desgaitasun fisikoa dute; % 27,3k, adimen-desgaitasuna; % 25,5ek, desgaitasunaren ondoriozko gaixotasun mentala; eta % 7,47k, desgaitasun sentsoriala.

| DESGAITASUN-MOTA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|
| Desgaitasun fisikoa | 335 | 39,73 |
| Adimen-desgaitasuna | 230 | 27,3 |
| Desgaitasun mentala | 215 | 25,5 |
| Desgaitasun sentsoriala | 63 | 87,47 |
| **GUZTIRA** | **843** | **100** |

Desgaitasuna dutenen **kontratu-motari** dagokionez, langileen % 65,48k kontratu mugagabea dute, baina gizonezkoen artean % 59 eta emakumeen artean % 41 dira.

| KONTRATU-MOTA | SEXUA | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | % |
| Mugagabea | 326 | 226 | 552 | 65,5 |
| Aldi baterakoa | 165 | 126 | 291 | 34,5 |
| **GUZTIRA** | **491** | **352** | **843** | **100** |

Azkenik, desgaitasuna duten langileak **adin-taldeka** nola dauden banatuta kontuan hartuta, langile gehienak 45 urtetik 64 urtera bitarteko adin-taldean daude (% 69,78). Plantilla, beraz, nahiko zaharkiturik dago, 45 urtetik beherako langileak % 28,01 eta 30 urtetik beherakoak % 6,02 baino ez baitira.

| ADINA | SEXUA | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|
| | G | E | GUZTIRA | % |
| 16-19 | 0 | 2 | 2 | 0,24 |
| 20-24 | 18 | 2 | 20 | 2,37 |
| 25-29 | 27 | 12 | 39 | 4,63 |
| 30-34 | 18 | 14 | 32 | 3,80 |
| 35-39 | 29 | 20 | 49 | 5,81 |
| 40-44 | 61 | 29 | 90 | 10,68 |
| 45-49 | 80 | 53 | 133 | 15,78 |
| 50-54 | 106 | 69 | 175 | 20,76 |
| 55-59 | 75 | 74 | 149 | 17,67 |
| 60-64 | 71 | 64 | 135 | 16,01 |
| 65 edo gehiago | 6 | 13 | 19 | 2,25 |
| **GUZTIRA** | **491** | **352** | **843** | **100** |

**DESGAITASUNA DUTEN LANGILEAK SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**



# 4.4. 2024AN EGINDAKOAK

## 4.4.1. HELBURU EKONOMIKOAK

2024. urtea sozietatearen jardueraren hamalaugarrena izan da, 2010eko abenduaren 23an sozietate mugatu bihurtu zenetik. Ekitaldi hau jarduera ekonomikoari eusteko eta zertxobait hobetzeko ingurune ekonomikoan garatu da, eta nabarmentzekoa da ikuztegiaren arloan enkarguak ugaritu egin direla eta gizarteak zentro okupazional gisa duen eginkizuna bere gain hartu duela, zentro okupazionalen inguruko desgaitasuna duten pertsonak gizartean bertan lan egin dezaten gaitzeko urrats gisa.

2024ko ekitaldian, fakturazioa % 9,85 hazi eta 220.121 euroko emaitza ekonomikoa lortu da.

Sozietatearen fakturazioaren bilakaera honako hau izan da 2010-2024 epealdian:



Egoeraren Balantzeari dagokionez, Aktibo ez-arrunta 7.288.449,14 eurokoa da, hots, enpresaren aktiboen % 42,48; hau da, sozietatearen negozioak egiteko erabiltzen diren higiezinak eta makinak.

Aktibo Korrontea 9.867.003,89 eurokoa da; zenbateko horren % 32,97 bezeroarentzako finantzaketari dagokio, eta gainerakoa erakunde publiko zordunei.

Ondare Garbia 15.263815,24 eurokoa da.

Pasibo ez-arrunta 26.730,84 eurokoa da, eta Pasibo arrunta 1.864.907,05 eurokoa.

## 4.4.2. HELBURU SOZIALAK

**Negoziazio kolektiboa**

Negoziazio kolektiboaren esparruan, 2024ko urrian 2024-2027 epealdirako enpresa-hitzarmen kolektiboa izenpetu zen, langileen lan-harremana arautzen duten alderdi ekonomikoak eta sozialak jasotzen dituena.

2024an aplikatutako soldata-igoera % 2koa izan da, 2024ko abenduaren 31n zeuden ordainsarien gainean, 2025. urtean jaso beharreko puntu-laurden gehigarria aurreikusita. Hala ere, hitzarmenak hobekuntza ekonomiko handiagoak ekarri ditu, hala nola langile espezialisten kategoriari aplikatu beharreko kalitate-ordainsariaren eta 2025etik aurrera antzinatasun-plusaren ezarpena.

Hobekuntza sozialen artean, honako hauei eutsi zaie: Jundizko industrialdean eta Arbulu herrian kokatutako lantegietara langileak garraiatzeko zerbitzua, langileak garraio publikorik ez duten lantokietara langileak daitezen; langileentzako bizi- eta istripu-asegurua; langileak eta beren seme-alabak zerbitzu soziosanitarioetara joateko eta haien ikasketetarako laguntzak. Gainera, urteko lanaldia murriztu, eta langileek norberaren kontuetarako har ditzaketen egunak gehitu egin dira.

**Egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuak**

Hauek dira INDESA 2010 S.L.ren xede sozialak: zuzeneko lanpostuak sortzea, batez ere desgaitasuna duten langileentzat; eta INDESA 2010 S.L.ren emaitza ekonomiko orokorrak hobetzea, gizartean berrinbertitzeko.

Enplegu, jasangarritasun ekonomiko eta langileentzako egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen hobekuntzari lotutako helburuak lortzeko, jarduera ekonomikoko nitxo berriak aztertzen ari gara etengabe, bai eta lanean hasi aurreko fase bat zehazteko aukera ere, Enplegu Zentrora hurbiltzea ahalbidetuko duena, dela zentro okupazionaletatik, dela errendimendu txikiko kontratuen bidez. Baita lana amaitu osteko aldia baino lehenagoko fase bat ere, desgaitasuna eta narriadura ebolutiboa duten langileak Enplegu Zentro Berezian duten lan-bizitza amaitu aurretik artatuko dituena, desgaitasuna duten pertsonei arreta pertsonal eta integrala emateko modu gisa, Enplegu Zentro Berezian aritu aurretik, bitartean eta ondoren.

2024. urtean, FSE+ funtsak kofinantzatutako proiektua jarri da abian: Lan Aukera – Aukeren Sustapena. Desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboaren gaikuntza sustatzeko, lan aurreko fase gisa, trebakuntza-ibilbidearen ondoren, laneratzea EZBn bertan.

# 4.5. INDESA 2010 S.L. TALDEAREN SALMENTEN BILAKAERA

**SALMENTEN BILAKAERA 2014-2024 EPEALDIAN (EUROTAN)**

| SALMENTAK | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Industria-arloa | 1.278.914 | 1.366.575 | 2.541.064 | 2.432.520 | 1.283.924 | 1.114.156 | 1.425.542 | 1.513.363 | 1.556.887 | 1.819.616 |
| Zerbitzu-arloa | 9.805.257 | 10.107.888 | 10.055.195 | 11.484.913 | 13.181.566 | 13.188.892 | 14.405.452 | 15.030.789 | 16.316.530 | 17.708.911 |
| Jardueraren erabateko efektua | 11.084.171 | 11.474.463 | 12.596.259 | 13.917.433 | 14.465.490 | 14.303.048 | 15.830.994 | 16.544.152 | 17.873.417 | 19.528.526 |
| **Urtetik urterako hazkundea (%)** | **8,00** | **3,52** | **9,78** | **10,49** | **3,94** | **-1,12** | **10,68** | **4,5** | **8,03** | **10,28** |

Guztizko fakturazioak urtero handitzen jarraitu du 2011-2019 epealdi osoan, 2020an salbu, aurreko ekitalditik apur bat gutxiagotu baitzen (% 1,12), alarma-egoerak iraun zuen aldian jarduerak izandako murrizketaren ondorioz, COVID-19aren aurkako osasun-neurri gisa jarduera ekonomikoaren etena ekarri baitzuen. 2024an, COVID-19aren aurreko joera horretara bueltatu zen, eta % 10,28ko urte arteko hazkundea lortu zen.



# 5
# ERANSKINA

# GOFEREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

## I. KAPITULUA

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Goi kargudunen ordainsariak | 96.241,00 | 0,00 | 96.241,00 | 96.225,22 | (16) | -0,02 | 0,04 |
| LZko plazen ordainsariak | 17.180.733,00 | 0,00 | 17.180.733,00 | 16.870.729,23 | (310.004) | -1,80 | 6,60 |
| LZko plazen ordezkapenen ordainsariak | 43.460.657,00 | 2.112.583,92 | 45.573.240,92 | 46.586.321,04 | 1.013.080 | 2,22 | 18,22 |
| Elkarkidetza | 738.100,00 | 0,00 | 738.100,00 | 792.803,94 | 54.704 | 7,41 | 0,31 |
| Lanpostu berriak | 2.241.322,00 | 170.000,00 | 2.411.322,00 | 1.950.005,93 | (461.316) | -19,13 | 0,76 |
| Gizarte Segurantzako kuotak (finkoak eta ordezkapenak) | 19.939.351,00 | 0,00 | 19.939.351,00 | 19.961.107,48 | 21.756 | 0,11 | 7,81 |
| Beste gizarte gastu batzuk | 1.082.246,00 | 0,00 | 1.082.246,00 | 755.730,67 | (326.515) | -30,17 | 0,30 |
| **I. KAPITULUA GUZTIRA** | **84.738.650,00** | **2.282.583,92** | **87.021.233,92** | **87.012.923,51** | **-8.310,41** | **-0,01** | **34,04** |

## II. KAPITULUA

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Alokairuak | 3.546.021,46 | 0,00 | 3.546.021,46 | 3.604.160,83 | 58.139 | 1,64 | 1,41 |
| Ibilgailuen errentamendua | 18.200,00 | 0,00 | 18.200,00 | 13.209,00 | (4.991) | -27,42 | 0,01 |
| Kanonak | 43.670,00 | 0,00 | 43.670,00 | 42.314,18 | (1.356) | -3,10 | 0,02 |
| Eraikinak konpontzea eta artatzea | 664.549,96 | (56.224,69) | 608.325,27 | 479.172,61 | (129.153) | -21,23 | 0,19 |
| Mak. eta inst. konp. eta artapena | 323.810,00 | 0,00 | 323.810,00 | 349.580,04 | 25.770 | 7,96 | 0,14 |
| Altzarien eta lanabesen kon. eta art. | 28.600,00 | 0,00 | 28.600,00 | 4.856,64 | (23.743) | -83,02 | 0,00 |
| Ekipo informatikoen konp. eta artap. | 35.000,00 | 0,00 | 35.000,00 | 11.479,97 | (23.520) | -67,20 | 0,00 |
| Papera eta bulegoko materiala | 156.330,00 | 0,00 | 156.330,00 | 144.457,22 | (11.873) | -7,59 | 0,06 |
| Hornidurak | 5.016.790,00 | (565.565,56) | 4.451.224,44 | 4.118.396,11 | (332.828) | -7,48 | 1,61 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Telefonoa eta posta | 393.360,00 | 0,00 | 393.360,00 | 436.631,86 | 43.272 | 11,00 | 0,17 |
| Garraioak | 3.001.200,00 | 1.698.620,06 | 4.699.820,06 | 4.697.319,04 | (2.501) | -0,05 | 1,84 |
| Tokiko hainbat zerga | 14.050,00 | 0,00 | 14.050,00 | 8.955,10 | (5.095) | -36,26 | 0,00 |
| Beste gastu batzuk | 665.950,00 | 0,00 | 665.950,00 | 538.053,91 | (127.896) | -19,21 | 0,21 |
| Kanpoko lan eta zerbitzuak | 51.449.665,36 | 3.442.528,38 | 54.892.193,74 | 54.036.288,15 | (855.906) | -1,56 | 21,14 |
| Kanpoko zerbitzuak INDESA | 7.861.975,00 | 352.610,14 | 8.214.585,14 | 8.470.575,64 | 255.991 | 3,12 | 3,31 |
| Etxez etxeko laguntza zerbitzua | 6.810.000,00 | 2.691.258,66 | 9.501.258,66 | 9.501.258,66 | 0 | 0,00 | 3,72 |
| Bidai gastuak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | ! | 0,00 |
| Lokomozio gastuak | 55.650,00 | 0,00 | 55.650,00 | 55.319,95 | (330) | -0,59 | 0,02 |
| Komunikazioak eta argitarauak | 70.000,00 | 0,00 | 70.000,00 | 47.393,95 | (22.606) | -32,29 | 0,02 |
| Kanpo zerb., Erak. eta Elk. Hitzarm. | 2.606.403,00 | (350.272,95) | 2.256.130,05 | 1.682.417,19 | (573.713) | -25,43 | 0,66 |
| Kanpo. Zerb. programak | 27.725.070,00 | 2.374.873,36 | 30.099.943,36 | 30.646.883,53 | 546.940 | 1,82 | 11,99 |
| **II. KAPITULUA GUZTIRA** | **110.486.294,78** | **9.587.827,40** | **120.074.122,18** | **118.888.723,58** | **-1.185.398,60** | **-0,99** | **46,51** |

**III. KAPITULUA**

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Berandutze-interesak | 11.296,85 | 0,00 | 11.296,85 | 4.727,14 | (6.570) | -58,16 | 0,00 |
| Finantza-gastuak | 971,69 | 0,00 | 971,69 | 964,94 | (7) | -0,69 | 0,00 |
| **III. KAPITULUA GUZTIRA** | **12.268,54** | **0,00** | **12.268,54** | **5.692,08** | **-6.576,46** | **-53,60** | **0,00** |

**IV. KAPITULUA**

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Udaleei | 2.965.610,00 | (79.039,60) | 2.886.570,40 | 2.806.467,42 | (80.103) | -2,78 | 1,10 |
| Koadrilei | 821.300,00 | 0,00 | 821.300,00 | 821.300,00 | 0 | 0,00 | 0,32 |
| Familiei | 40.778.626,00 | 1.900.184,91 | 42.678.810,91 | 41.707.192,21 | (971.619) | -2,28 | 16,32 |
| Irabazteko xederik gabeko erakundeei | 3.230.661,00 | 597.606,63 | 3.828.267,63 | 3.781.605,86 | (46.662) | -1,22 | 1,48 |
| **IV. KAPITULUA GUZTIRA** | **47.796.197,00** | **2.418.751,94** | **50.214.948,94** | **49.116.565,49** | **(1.098.383,45)** | **-2,19** | **19,21** |

## VI. KAPITULUA

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | | 0,00 |
| Kreditu orokorra | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | | 0,00 |
| Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk hobekuntzak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | | 0,00 |
| Hobekuntzak egiteko makineria, instalazioa eta tresneria | 40.000,00 | 0,00 | 40.000,00 | 16.277,91 | (23.722) | -59,31 | 0,01 |
| Hobekuntza-altzariak | 470.000,00 | 0,00 | 470.000,00 | 384.809,72 | (85.190) | -18,13 | 0,15 |
| Hobekuntzei buruzko informazioa prozesatzeko ekipoak | 60.000,00 | 0,00 | 60.000,00 | 47.227,41 | (12.773) | -21,29 | 0,02 |
| Aplikazio informatikoak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | | 0,00 |
| **VI. KAPITULUA GUZTIRA** | **570.000,00** | **0,00** | **570.000,00** | **448.315,04** | **(121.684,96)** | **-21,35** | **0,18** |

## VII. KAPITULUA

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sektore publikoko gainerako erakundeak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | | 0,00 |
| Irabazteko xederik gabeko erakundeei | 30.000,00 | 30.000,00 | 60.000,00 | 58.568,79 | (1.431) | -2,39 | 0,02 |
| **VII. KAPITULUA GUZTIRA** | **30.000,00** | **30.000,00** | **60.000,00** | **58.568,79** | **(1.431,21)** | **-2,39** | **0,02** |

## VIII. KAPITULUA

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langileentzako aurrerakinak | 235.310,00 | 0,00 | 235.310,00 | 99.100,00 | (136.210) | -57,89 | 0,04 |
| **VIII. KAPITULUA GUZTIRA** | **235.310,00** | **0,00** | **235.310,00** | **99.100,00** | **(136.210,00)** | **-57,89** | **0,04** |

| | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GASTUAK, GUZTIRA** | **243.868.720,32** | **14.319.163,26** | **258.187.883,58** | **255.629.888,49** | **-2.557.995,09** | **-0,99** | **100,00** |

| IZENA | Has. Aurrek.-24 | Aldatzeak | Amaierako Aurrek. | Benetakoa ixterakoan 24 | Amaierako Aurrek. Arab. Ald. | % | Gastuen guztizkoaren % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bestelako tasak | 29.268,29 | 0,00 | 29.268,29 | 17.650,00 | (11.618,29) | -39,70 | 0,01 |
| Zerb. Komunitatea eta Sozialak | 24.407.500,00 | 0,00 | 24.407.500,00 | 26.168.237,95 | 1.760.737,95 | 7,21 | 10,24 |
| Itxitako ariketak itzultzea | 751.000,00 | 0,00 | 751.000,00 | 1.097.972,47 | 346.972,47 | 46,20 | 0,43 |
| Berandutze-interesak | 10.000,00 | 0,00 | 10.000,00 | 50.689,25 | 40.689,25 | 406,89 | 0,02 |
| Bestelako diru-sarrerak | 498.000,00 | 0,00 | 498.000,00 | 489.460,18 | (8.539,82) | -1,71 | 0,19 |
| Transf. AFAren kontuak | 197.504.311,03 | 14.914.268,26 | 212.418.579,29 | 207.143.692,07 | (5.274.887,22) | -2,48 | 81,03 |
| Transf. Kte. Ad. Ldep grala | 13.500.000,00 | 0,00 | 13.500.000,00 | 14.282.619,25 | 782.619,25 | 5,80 | 5,59 |
| Transf. Kte. Admin. Orokorra-Bestelakoak | 69.000,00 | 0,00 | 69.000,00 | 69.755,00 | 755,00 | 1,09 | 0,03 |
| Transf. Kte. GOVA- AES | 732.026,00 | 0,00 | 732.026,00 | 695.421,42 | (36.604,58) | -5,00 | 0,27 |
| Transf. Kte. GV-Soziosanit | 4.862.200,00 | 0,00 | 4.862.200,00 | 4.862.200,00 | 0,00 | 0,00 | 1,90 |
| Transf. Kte. IVAP | 20.000,00 | 0,00 | 20.000,00 | 15.894,44 | (4.105,56) | -20,53 | 0,01 |
| Rendtoak. Diruzaintzaren kudeaketa | 25.000,00 | 0,00 | 25.000,00 | 110.534,58 | 85.534,58 | 342,14 | 0,04 |
| Transf. AFAren kapitala | 600.000,00 | 30.000,00 | 630.000,00 | 506.883,83 | (123.116,17) | -19,54 | 0,20 |
| Aurrerakinak itzultzea | 235.310,00 | 0,00 | 235.310,00 | 71.604,42 | (163.705,58) | -69,57 | 0,03 |
| **SARRERAK, GUZTIRA** | **243.243.615,32** | **14.944.268,26** | **258.187.883,58** | **255.582.614,86** | **-2.605.268,72** | **-1,01** | **99,98** |

| Emaitza (Sarrera-gastuen arteko aldea, ekitaldi arrunta) | | | | (47.273,63) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **IZENA** | **Has. Aurrek.-24** | **Aldatzeak** | **Amaierako Aurrek.** | **Benetakoa ixterakoan 24** | **Amaierako Aurrek. Arab. Ald.** | **%** | **Gastuen guztizkoaren %** |
| AFAren transf.Arruntak | 197.504.311,03 | 14.914.268,26 | 212.418.579,29 | 207.143.692,07 | (5.274.887,22) | (2,48) | 81,03 |
| AFAko kapital transf. | 600.000,00 | 30.000,00 | 630.000,00 | 506.883,83 | (123.116,17) | (19,54) | 0,20 |
| **AFAko dirulaguntzak GUZTIRA** | **198.104.311,03** | **14.944.268,26** | **213.048.579,29** | **207.650.575,90** | **(5.398.003,39)** | **(2,53)** | **81,23** |
| GOFEren sarrerak, ez AFArenak | 45.139.304,29 | 0,00 | 45.139.304,29 | 47.932.038,96 | 2.792.734,67 | 6,19 | 18,75 |

**GASTU ERREALAREN BILAKAERA 1995-2024 ALDIAN (EUROTAN)**
GOFE guztira

| | 1995 | 1998 | 2001 | 2004 | 2007 | 2010 | 2013 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GASTUAK** | **54.608.212** | **64.550.034** | **84.604.423** | **119.143.180** | **157.482.832** | **229.110.939** | **170.295.662** |
| Indize zk. (95 oinarria) | 100 | 118,21 | 154,93 | 218,18 | 288,38 | 419,55 | 311,85 |
| Urte arteko hazkundearen % | - | 7,72 (*) | 13,28 (*) | 7,40 (*) | 12,68 (*) | 6,80 (*) | 0,52 (*) |
| **SARRERAK** | **12.071.730** | **14.889.864** | **20.320.139** | **31.425.373** | **39.412.985** | **91.364.920** | **37.048.082** |
| AFA-ren dirulaguntza | 42.532.544 | 49.660.277 | 64.290.789 | 87.722.901 | 118.703.011 | 137.590.295 | 133.247.580 |
| Dirulagun. % gastuen guztizkoaren gainean | 77,89 | 76,93 | 75,99 | 73,63 | 75,37 | 60,05 | 78,24 |

| | 2016 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GASTUAK** | **181.400.859** | **210.757.930** | **211.727.490** | **213.724.190** | **218.896.086** | **238.936.396** | **255.629.888** |
| Indize zk. (95 oinarria) | 332,19 | 385,95 | 387,72 | 391,38 | 400,85 | 437,55 | 468,12 |
| Urte arteko hazkundearen % | 4,16 (*) | 4,66 (*) | 0,46 (*) | 0,94 | 2,42 | 9,16 | 6,99 |
| **SARRERAK** | **38.231.115** | **45.338.025** | **43.975.585** | **48.381.402** | **41.951.864** | **44.102.590** | **47.932.039** |
| AFA-ren dirulaguntza | 144.155.996 | 165.461.681 | 169.430.095 | 165.379.369 | 177.623.457 | 195.499.287 | 207.650.576 |
| Dirulagun. % gastuen guztizkoaren gainean | 79,47 | 78,51 | 80,02 | 77,38 | 81,15 | 81,82 | 81,23 |

** Urte arteko hazkundea, aurreko urteari dagokionez; ez, baina, aurreko zutabekoan agertzen dena*



# 2024KO MEMORIA

Gizarte Politiken Saila